2023KO MARTIAREN 22KO BATZAR NAGUSIAREN BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)

DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE FECHA 22 DE MARZO DE 2023 (TRADUCCIÓN)

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da..... 6
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Foru Arauaren proiektua, Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onesteko.”..... 6
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Pradales Gil jaunak hartu dau berbea..... 6
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea..... 8
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea..... 10
- Euskal Sozialistak taldeko Trimiño Vegas batzarkide jaunak hartu dau berbea..... 12
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 13
- Euzko Abertzaleak taldeko Edesa Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea..... 16
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea..... 17
- Euskal Sozialistak taldeko Trimiño Vegas batzarkide jaunak hartu dau berbea..... 18
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 18
- Euzko Abertzaleak taldeko Edesa Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea..... 19
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “1/2023 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, otsailaren 28koa, Balio Erantsiaren Gaineko Zergan, Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren Gaineko Zergan, Ez-Egoiliarren Errentaren Gaineko Zergan eta Ekonomia-Jardueren Gaineko Zergako tarifetan tributu-neurriak aplikatzeari buruzkoa.”..... 21
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea..... 21
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea..... 23
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea..... 24

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea 25

- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea 26

- Euzko Abertzaleak taldeko Arana Requena batzarkide jaunak hartu dau berbea 28

- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: ""Bizkaiko Garraioaren Plan Estrategikoa 2018-2028" izeneko lan-dokumentuari buruzko AZTERLAN BATZORDEA."..... 29

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea 30

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea 31

- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea 33

- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 35

- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea 37

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea 39

- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea 41

- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 42

- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea 43

- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: "Zerga erreforma." 45

- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea 46

- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea 48

- Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea 50

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea..... 52

- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea 53

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea 55

- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea 56

- Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea 58

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea..... 59

- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea 60

- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: "Bizkaian garraio-bonoa sortzea." 62

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea 62

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea 64

- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea 64

- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 65

- Euzko Abertzaleak taldeko Gómez Devesa batzarkide andreak hartu dau berbea 67

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea 69

- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea 71

- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 72

- Euzko Abertzaleak taldeko Gómez Devesa batzarkide andreak hartu dau berbea 73

- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: "Bizkaiaren bidezko eraldaketarako gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioa sustatzea."..... 74

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea 74

- EH Bildu taldeko López Odriozola batzarkide jaunak hartu dau berbea 76

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea..... 78

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Euskal Sozialistak taldeko Trimiño Vegas batzarkide jaunak hartu dau berbea 79

- Euzko Abertzaleak taldeko De Luis Zelaia batzarkide jaunak hartu dau berbea 81

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea 82

- EH Bildu taldeko López Odriozola batzarkide jaunak hartu dau berbea 84

- Euskal Sozialistak taldeko Trimiño Vegas batzarkide jaunak hartu dau berbea 85

- Euzko Abertzaleak taldeko De Luis Zelaia batzarkide jaunak hartu dau berbea 86

- LEHENDAKARI andreak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: "Basogintzaren egoera." 87

- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea 87

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea 89

- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea 91

- Euzko Abertzaleak taldeko Beitia Zurinaga batzarkide jaunak hartu dau berbea 92

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea 94

- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea 95

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Fernández Medrano batzarkide jaunak hartu dau berbea 97

- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea 98

- Euzko Abertzaleak taldeko Beitia Zurinaga batzarkide jaunak hartu dau berbea 99

- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: "Bizkaiko Foru Aldundiko Laguntza Psikologikorako Zerbitzua.". 100

- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea 100

- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea 102

- Euzko Abertzaleak taldeko Furundarena Olabarriaga batzarkide andreak hartu dau berbea 104

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea..... 106
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea 107
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea 108
- Euskal Sozialistak taldeko Gil Llanos batzarkide andreak hartu dau berbea 109
- Euzko Abertzaleak taldeko Furundarena Olabarriaga batzarkide andreak hartu dau berbea 110
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea..... 111
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea 111
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau: "Fortuna Handien ganeko Alkartasun-Zerga Euskadin aplikatzeko konpromisoa." 112
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea 112
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea 114
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea..... 115
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea 116
- Euzko Abertzaleak taldeko Pieló Muguruza batzarkide andreak hartu dau berbea 118
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea 119
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea 120
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea..... 122
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea 122
- Euzko Abertzaleak taldeko Pieló Muguruza batzarkide andreak hartu dau berbea 123
- Batzarra amaitu da..... 124

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2023ko martiaren 22ko batzarra goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 22 de marzo de 2023 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores. Buenos días, señor Diputado General, apoderados/as, junteros/as, así como a las personas invitadas que están entre nosotros/as, gracias. También a los y las compañeras de los medios de comunicación y a todas las personas que seguirán a través de streaming esta Sesión Plenaria. Bienvenidos/as a todos y todas.

Comenzaremos con el Orden del Día. Y para ello, el primer punto.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Proyecto de Norma Foral (R.E.11/E/2022/0002472)
Autor: Diputación Foral de Bizkaia
Asunto: Proyecto de Norma Foral de aprobación definitiva del Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia.
Documento Principal: (R.E.11/E/2023/0000175),Ver
Boletines: Admisión a trámite (20A), Apertura del plazo para presentación de enmiendas (20B), Enmiendas: Admisión a trámite (20C), Dictamen de la Comisión (20D), Enmiendas: Reservadas para el Pleno (20E)
Expediente: (11/A/08/0003991)

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Foru Arau Proiektua (11/E/2022/0002472SE)
Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia
Gaia: Foru Arauaren proiektua, Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onesteko
Dokumentu Nagusia: (11/E/2023/0000175SE),Ikusi
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea (20A), Zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (20B), Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea (20C), Batzordearen Erizpena (20D), Zuzenketa-eskeak: Osokorako gordetakoak (20E)
Espedientea: (11/A/08/0003991)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Para dar inicio al debate, en primer lugar, señor Pradales Gil, representante de la Diputación, tiene usted la palabra.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Señora Presidenta, junteros/as, Diputado General, buenos días a todos/as.

Hoy culmina con su aprobación por estas Juntas Generales el proceso de tramitación de la Norma Foral de aprobación definitiva del Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia 2023-2035.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Este Plan es el resultado de un proceso complejo que ha durado casi 5 años. El Plan concreta la red ciclista estructurante de Bizkaia, y al mismo tiempo desarrolla los objetivos funcionales y estructurales prioritarios en clave de movilidad.

Se trata, por tanto, de un instrumento principal para la habilitación de infraestructuras ciclistas en Bizkaia y, en general, para la promoción del uso de la bicicleta.

Los trabajos relacionados con el Plan comenzaron en 2018, y durante estos años se ha trabajado en colaboración con los ayuntamientos, así como con multitud de personas expertas, agentes y organismos en un entorno participativo. En el proceso se han recogido alrededor de 120 alegaciones al Plan, de las que más de dos tercios han sido incorporadas al texto.

Quiero aprovechar esta ocasión en concreto para felicitar al equipo técnico de la DFB, para agradecer su trabajo, y agradecer y felicitar por el buen y excelente trabajo desarrollado para hacer realidad este plan.

Foru Arauaren Proiektu hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontsejuak onartu eban 2022ko zemendiaren 29ko bilkuran.

5 titulutan, 10 kapitulutan eta 42 artikulutan eratuta dago, bai eta 2 xedapen gehigarri eta 3 gehigarritan be. I. Eranskinean Plana garatzeko arau-esparrua ezarri da. Foru Arauaren proiektuaren II. eta III. eranskinetan, era berean, Ingurumen Azterketa Estrategikoak ezarritako prebentzino-, zuzenketa- eta konpentsazino-neurriak jorratu eta zehaztu dira, horreek be arau lez, eta baita Plan honen helburua dan sarearen eskema grafikoa be.

Ganbera honetara helarazotako dokumentazino hori guztia osotzen dabe administrazino-espedienteak, parte-hartzearen inguruko dokumentazinoan zehazten dan mamina daukana, bai eta behin betiko onartu beharreko Planaren dokumentazino teknikoak be.

Azken informazino hori, eta baita aurreko elaborazino-faseetako dokumentazino tekniko guztia eta Ganbera honetan eztabaidagai dogun Foru Arauaren Proiektua bera, herritar guztien esku egon da (eta dago) bizkaia.eus/bizkaiaenbicicleta foru-webgunean (Batzar Nagusiek Foru Arauaren proiektu honi buruz egin daben zabalkundea alde batera itxita).

Bizikleta-azpiegiturak eta bizikletea garraiobide lez sustatzea XXI. mendearen lehen erdi honetan garraioaren, mobikortasunaren eta lurralde-antolamenduaren politiketan beharrezkoa dogun paradigma-aldaketeari aurre egiteko lanaren oinarrizko zati dirala dinoan filosofiatik abiauta landu da plana.

Horrelan, Planak egunerokotasunean bizikleta bidezko mobikortasun alternatiboa sustatzeko helburu funtzionala proponiduten dau.

Helburu hori gure mobikortasunaren moduen banaketan horren presentzia handiagoa sustatzean oinarrituta dago, egunero 259.954 bizikleta-bidaia izatera heldu arte (eguneroko joan-etorri guztien %7,7, gaur egungo %0,6tik abiauta), garraiobide publikoakaz lankidetzan, eta gaur egun autoz egiten diran 157.130 bidaia bizikletaz egiteko erronkeagaz.

Batez be, 8 km arteko bidaia “laburrak” erakartea da kontua, gure ustez bizikleta bidezko mobikortasunerantza eroan leitekez-eta.

Lurralde Plan Sektorialak lurralde osoan biztanleen bizikleta-irisgarritasuna hobetzeko gaitasuna daukan sare bat ezarten dau, eta landa-eremuen eta uri-

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eremuen arteko lotura sendoagoa eta estuagoa daukaz.

Proponidutako sareak 365,5 kilometroko luzerea dauka, eta Bizkaiko lurralde osoa egituratzen daben 7 ibilbide handik osotzen dabe.

Gaur egun, Planean eratutako sarearen %44,4 (162 km) gauzatuta dago, eta sarearen beste %10,5 (38 km gehiago) aribidean dagoz etorkizunean gauzatzeko, eraikuntza-proiektu lez edo idazteko fasean. Planifikautako sare osotik (hau da, 365,5 kilometroetatik) %36,2 amaitutakoan, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatutako tarteei egokituko jake, eta gainerako %63,8 Bizkaiko udalek kudeatutakoei.

Eta Planak proponiduten dauzan esku-hartze erispideen artean, jarduteko bi ildo estrategiko nagusi nabarmendu behar dira:

1.- Halanbeharreko mobikortasun arduratsurako erabilgarriak diran eta udaletako bizikleta-sareakaz konektetan diran lurraldeko bizikleta-bideen azpiegituren konponbide integrauak sortzea, intermodalidadea sustatzen dabenak eta jarduera ekonomikoko eta azterketetako zentroetara sartzea ahalbidetzen dabenak, garraio jasangarriaren benetako alternatibea izateko.

2.-Bizikletea eta intermodalidadea sustatzea (2 etapako bidaia), ibilgailuen parkean eragina daben neurriak aplikauta eta bizikletea garraiobide lez sustatzeko ekipamentu osogarriak emonda (aparkalekuak, bizikleta partekatuen sistemak, etab.).

Desde su presentación en comisión el pasado 11 de enero, se ha llevado a cabo la tramitación de las Juntas Generales, con las aportaciones de los grupos políticos.

Quiero agradecer a los grupos junteros su talante y quiero destacar principalmente la disposición y el trabajo en colaboración realizado con el grupo juntero EH Bildu. Sus aportaciones han contribuido a mejorar el texto y hemos coincidido en las prioridades establecidas en el plan.

Y son ejemplo de ello, entre otros, las conexiones con los territorios y comunidades limítrofes o aquellas vías ciclistas que dan conectividad al sistema, como pueden ser, por ejemplo, Alonsotegi o Galdakao, en los que el departamento está ya actuando a nivel de redacción de proyecto. Además de dotar al plan de la necesaria flexibilidad que le permita adaptarse a las necesidades de cada período.

Por tanto, solo resta finalizar el debate y aprobar esta Norma Foral con el máximo consenso posible.

Creo que es algo que necesita Bizkaia, que será muy positivo para nuestro Territorio y que así nos lo demanda la ciudadanía.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Pradales Gil. Daremos inicio a la participación de los grupos. Para ello, el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Buenos días a todos/as.

PowerPointaren eta Photocallen legealdian (Aldundian gehien gustetan

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jakuna) ezin ziran falta bizikletak legegintzaldia amaitzear dagoanean. Azken Osoko Bilkuratik hona, azken hilebete honetan, Galdakaoko trenaren 5. lineagaz PowerPoint bat aurkeztu dozue, bizilagunek egindako ekarpenak jaso barik. Ez dau Gernikako Batzar Etxe honen akordioa beteten eta herritarrak ugal garraiatzaileen bidez daroaz Usansoloraino. Solluberi buruzko PowerPoint bat be aurkeztu dozue, hoba ez, Solluben be hauteskundeak irabazi behar dozuez. Eta beste PowerPoint bat be aurkeztu dozue, lasterketen saihesbidearen inguruan, eta bertan trafikoa desbideratu egingo dozue.

Azken finean, 3 PowerPoint aurkeztu dozuez denporaldi honetan, eta bizikletak falta ziran. Zelan ez dogu ba amaituko legegintzaldia bizikletakaz eta PowerPointakaz! Ermuko saihesbidea falta jatzue, eta uste dot batzorde bat izango dogula horri buruz berba egiteko legealdi hau amaitu baino lehenago. Bizikletak doguz berbabide. Nire ustez, gaur Pradales jaunak aurkeztu dauen egitasmoa asmo handikoa da: 157.000 ibilgailu txirrindularietara aldatzea, nire ustez, zeozelan deitzearren, asmo handikoa da, gaur egungo %0,6tik zuek proponidu dozuen %7,74ra igarotea ezinezkoa izango da, nire ustez. Esan dozu lanpostuetara edo ikastetxeetara joateko izango dala. Eta zuk zeuk definidu dozu, gaur bertan esan dozu, eta zure prentsaurrekoan esan zenduan, Lurralde Plan Sektorial hau 8 km-tik beherako bidaietarako aurreikusi dala.

8 km-ra? Horretarako behar al dogu Lurralde Plan bat? 8 kilometrok ez dabe emoten ezta nire herria zeharkatzeko, ez Barakaldo zeharkatzeko, ez Bilbo zeharkatzeko, hau da, 8 km, ez dakit ze zerikusi daukan Aldundiak egingo ez dabeen lurraldeetan, eta, jakina, 8 km baino gehiago dagoz Getxotik Bilbora, Barakaldotik Bilbora… Jenteak ez dauz erabiliko tarte horreek lanera joateko, nahi-ta zuek horretan tematu edo horretara behartu, ezta? Izan be, zuek nahitaezko mobikortasunaz berba egiten dozue. Emoten dau jentea bizikletan joatera behartu gura dozuela.

188 milioi euroko inbersinoa be aitatu dozue, eta, egia esan, benetan kezkatzen nauan gauza bat da, erosketa-saskia maximo historikoetan dagoanean, argiak izugarri egin dauenean gora, gasak itzel igon dauenean, osasungintzea ahultzen hasita, segurtasuna ahultzen hasita, enpresak zarratzen, langabezia areagotu egin danean, hilebete amaierara heltzen ez diran enpresak, Bizkaibuseko beharginak greban, egoitzetako beharginak greban, herritarrak sano egoera kaskarrean..., eta zuek benetan 188 milioi euro gastau gura dozuez bidegorriak egiten? Hori ondorioztatuko dabe bizkaitarrek, gaur egungo Bizkaikoek? Bizkaiko Batzar Nagusiek 188 milioiko bidegorri-sarea onartuko dabela? Bizkaian ez al dogu bidegorriak egitea baino kezka handiagorik? Zergakaz kendu deutsegun dirua, eta zuek bidegorrietara bideratuko dozue? Tira, bada, Aldundi honen oinarrizko helburua bada, uste dot ez gatozala bat horregaz.

Badagoz oinarrizko gogoeta batzuk eta emoten dau ez dozuezala kontuan hartu Lurralde Plan hau egin dozuenean. Bizkaitar gehienak edadekoak dira. Badakizue 2027. urterako, Eustaten arabera, bizkaitarren %50ek baino gehiagok 50 urte baino gehiago izango dabezana. 50 urte baino gehiago: edade horrek bizikletaz ibilteko bere zera dauka. Hori 2027rako. Plan hau amaitzen danerako, ba 50 urte baino gehiago izango dira.

Bizkaian euria egiten dau, Bizkaian ia urtearen erdian hotz egiten dau, 10º-tik beherako tenperaturak egiten dauz, eta urtean ia 165 egunetik gora euria egiten dau. Eta horreek ez dabe laguntzen bizikletaz ibilteko. Gainera, badakizue, danok lez, errepideetan bizikletaz dabilzan txirrindulari gehienek ez dabena garraiorako erabilten. Kirolariak dira, eta kirolariak ez dira bidegorritik joaten. Kirolariak errepideetatik doaz, nahi-ta bidegorria euki. Eta lanera doazenek, esan dodan moduan, ez dot uste bidegorria erabiliko dabenik. Aldundiari kalidadezko garraio publikoak eskatzen deuskuez, maiztasun handiagoagaz, linea gehiagogaz, herri guztietara heltzen diranak, eta linea eta maiztasun batzukaz, esan dodan moduan. Horixe da herritarrek edo bizkaitarrek eskatzen deuskuena.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Programa honetan Bizkaiko herritarrek eskatzen deuskuena baino disuasino-aparkaleku handiagoak falta dira, bidegorriei azken ikutuak emotea falta da, bidegorrien plan osoan argiztapen eraginkorra izatea lako oinarrizko elementuak falta dira, bidegorrien plan guztietan ez da-eta argitasunik ezarten; izan be, herrien arteko bidegorriak egingo doguz eta argiztau barik egongo dira. Bizikleta elektrikoak kargetako guneak falta dira, eta horreek ez dagoz Plan honetan. Gainera, atsedenerako eta babeserako guneak jarri beharko lirateke, badaezpada euria egingo baleu edo bat-batean eguraldi txarra egingo baleu be.

Uste dot Plan honek eukieza ugari dituala, eta uste dot, asmo handikoa izateaz gainera, sano garestia dala, eta bizkaitarrek ez dabe espero bizikleta-planik legealdiaren amaieran, eta, esan dodan moduan, jasaten ari diran egoera ekonomikoan lagundu degiegula espero dabe. Halanda be, ez dogu kontrako botorik emongo, etorkizuna dan plana da, sano itxura ona dauka, asko gustetan jat zure PowerPointa Barakaldotik Getxora 30 milioi euroko kostua izango dauan zubi bategaz ikustea, eta asko gustetan jat itsasadarreko paseoa ikustea. PowerPointa gustetan jat, eta zoriontsu ikusten zaitut.

Ez dogu ezetz bozkatuko, polita da, baina dirua gastetea gainean daukagunagaz, ba hori, ezta? Horregaz be lortuko dozue, plan honen bidez, beharbada, leku baten bidegorriak hastea eta ez amaitzea saihestuko dogu, eta bizikleteagaz heltzea, gelditzea, aurrera ezin egitea, beharbada udalerriak koordinetea lortuko dogu, eta herrien barruko loturea apur bat koordinetea. Ia ezinezkoa da, herriek bidegorri bat egiten dabelako eta kale erdian ixten dabezalako amaitu barik. Ea lortzen dogun bidegorri batek herri bat beste herri bategaz lotzea. Beharbada, Plan honetan finkatzen diran ildo estrategikoak edo ildo nagusiak izanda, ba lortzen da edo lortzen dogu hori saihestea. Hori da Plan honetatik atera geinken gauza on bakarra. Martxan dagozan bidegorriak amaitzen saiatuko gara, eta bidegorriren bat hasten bada, behintzat, jakin daitela hasi egiten dala eta hurrengo herrian amaitzen dala. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Lobato Pascual, tiene usted la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plana azaldu zan Batzordean esan genduan moduan, gure taldeak Plana ezinbestekotzat joten dau Bizkaian mobikortasuna garatu daiten. Bizikleta bidezko mobikortasuna hainbat hamarkadatan ahaztuta egon da Lurraldean gobernau daben administrazinoetan. Hori autortzea eta arautzea guztiz beharrezkotzat joten dogu. Horregaitik, espero dogu Foru Arau honen idazketeak bizikletearen erabilerea eta gozamena normalizetea eta haren erabilerea sendotzea, eta herritarren benetako erabilera-hautu bihurtu dagiala.

Inori ez jako eskapetan, egoerearen arabera, bizikletearen erabilereak gero eta protagonismo handiagoa hartu dauela herritarren eta gure lurraldea ezagutzea erabagiten daben bisitari askoren artean. Gaur egun, ohikoa da ikustea zelan atzerriko bisitariek Bilbo bizikletaz bisitetea erabagiten daben, gertuko adibide bat jartearren. Gure ustez, horren errazoia da gaur egun bizikletaz mobiduteari jagokonez Bizkaian sustatu eta garatu gura dan lana eurek normalizauta daukiela, euren herrialdeetan orain dala urte edo hamarkada batzuk egin ziralako etxeko lanak. Hori ez eizue kritika lez hartu, ezpada errealidade lez, eta errealidade hori azaldu beharko geunke eta herrialde horreek bizikletea egunerokoan sartzeko egin dabenetik ikasi, seguruenik asko eta ondo egingo eben-eta.

Bilboko gure egoitzan Azpiegituretako diputaduak Plana aurkeztu

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ebanean adierazo genduan beste errealidade bat da erakundeek egin behar dabezan ekintzak eguneratzen joan behar dirala bideak eta jarduerak herritarren preminen eta balizko helmuga barrien arabera egokitu daitezan. Hori ezinbestekotzat joten dogu benetan baliagarriak diran bidegorrien sare bat ezarri gura badogu.

Gaur aztertzen ari garan LPS apliketako denpora-eremua 2023tik 2035era bitartekoa da, eta, jakina, denpora-tarte luzea da, gure gizartearen egunerokotasuna zelan aldatzen dan kontuan hartuta. Errealidadea eta mobikortasun-beharrak nabarmen aldatu leitekez lanerako, ikasketetarako eta aisialdirako gune barriak sortzearen arabera. Horren haritik, diputaduak adierazo euskun plan hau aldizkako berrikuspenen bidez egokitzea aurreikusten dala, premina barriei erantzuteko. Gure ikuspuntuaren arabera, hori urteokaz mobikortasun mueta horretan lanean ari diran alkarte eta kolektiboakaz lankidetzan eta alkarrizketan egin behar da eta, harenbaten, ontzat hartuko dabe parte hartzea, jarduketa edo aldaketa egokienak definidu ahal izateko.

Beste alde batetik, legegintzaldiaren hasieran esan genduan moduan, Bizkaiko Foru Aldundian bi sailek ezin hobeto lan egin behar badabe alkarregaz, horreek Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako Saila eta Garraio eta Mobikortasun Jasangarriaren Saila dira, jakina. Alkartasun hori errealidade bat izan daitela espero dogu, eta sorbalda beraren gainean bi buru izatea ez daitela oztopo izan berme guztiakaz garatzeko LPS barri honen idazketan adierazotakoa. Gainera, bere momentuan esan genduan, Bizikleta Bideen LPSren aurkezpenean eta Garraio Plan Estrategikoaren Batzordean be barriro esan genduan bizikletaz egindako garraioak garraio publikoaren sarearen parte izan behar dauela, eta, aldi berean, joan-etorri pribaduetako erabilerea be erraztu eta sustatu egin behar dauela. Horrek guztiak, garraio publikoaren eskaintza sortzaile orokorragaz batera, mobikortasun atseginagoa eratuko dau, zalantza barik, herritarrei eta ingurumenari begira.

Espero daigun etorkizunean erakunde hau gobernauko daben talde politiko guzti-guztien helburua izatea. Halan bada, zalantza barik aurkituko dabe gure talde politikoa hori garatzen laguntzeko bidean. Tira, dakizuenez, bizikleta bidezko mobikortasuna askotan jorratu dogu legegintzaldi honetan, eta gure taldea behin baino gehiagotan saiatu da Bizkaiko Foru Aldundiaren apustuetako bat izan daiten ia 4 urte honeetan. Mahai gainean jarri doguzan ekimenak, neurri baten, geureak dira, baina azaldutakoaren zati handi bat herritarren eskaeretatik sortu da; izan be, herritarren eskariak mobikortasun mueta horren aldeko apustua egiten daben hainbat kolektiboren babespean antolatzen dira, eta antolaketa zehatzagoa eta errealagoa behar dala adierazoten dabe, garraio mueta hori gero eta gehiago erabilten dala oinarri hartuta. Era berean, gure proposamenetan behin baino gehiagotan aitatu dogu joan-etorriak bizikletaz egin ahal izateko oinarrizkoa eta funtsezkoa dan zeozer, hau da, ibilgailuen trafikoa eta oinezkoen bideak bereizitako bideak, gero eta ohikoagoak diran gure bidegorriak.

Lehenago be esan dot, nahi-ta legegintzaldiaren hasieran horrelango bideen aldeko apustua epela egin zan, batez be jasaten ari ginan pandemia baten ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiaren prestasuna areagotu egin da herriak eta eskualdeak azpiegitura barri horreekaz batzeko.

Gure ustez, hori..., hau da, horrek izan behar dau erakundeen prestasuna, herritarren egunerakoan bizikletearen erabilerearen aldeko apustu garrantzitsua egiten daben udal askoren konpromiso instituzionala bateratuta. Bizikleta Bideen Lurralde Plan hau definidutea eta onartzea behar-beharrezko abiapuntutzat joten dogu Bizkaiko Foru Aldundiak garraiobide horregaz daukan konpromiso instituzionala sendotzeko.

Gure Taldeak, Elkarrekin Bizkaiak, esan deutsuedan guztia oinarri hartuta, ez dau dudarik eukiko gure aldeko botoagaz horri babesa emoteko, eta Ganbera honetan berresten dogu gure Taldeak konpromisoa daukala etorkizunean lanean jarraitzeko, garraio-sistema hori babesten eta sustatzen jarraitzeko, Bizkaiko bizilagunen artean haren

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

erabilerea normalizeteari begira.

Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lobato Pascual. Y el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. Ondo etorri guztiok.

Gaur eztabaidatuko dogu, eta, halan bajagoko, onartu egingo dogu Talde Sozialistearen eretxiz Bizkaian gure bizikleta-bideen sarea eta horreek izan behar dabezan ezaugarriak zehaztu, garatu, kudeatu eta antolatzeko tresna egokia dana. Tresna horrek mobikortasun iraunkorraren zerbitzura eta mobikortasun iraunkorreko politikek gure lurralderako ekarri behar daben paradigma-aldaketearen zerbitzura egon behar dau. Mobikortasun horretan garraio publikoa ibilgailu pribaduari lekua hartzen joango jako, bai, baina, gainera, bizikleta ardatz nagusietako bat izango dau. Bizikletea lurraldeko mobikortasunaren beste elementu bat lez, baina elementu protagonistea, jakina, eta Bizkaiko garraio publikoaren ikuspegi integral baten parte izan daitela.

Gure ustez, garrantzitsua da LPS honek bermatu dagiala…, eta halan egiten dauela uste dogu, horren alde bozkatuko dogu-eta, gure lurralderako gura dogun bizikleta-mobikortasunaren eredua azaltzeko funtsezkoak diran hainbat kako bermatu daizala. Hau da, bide seguruak, erosoak eta jarraituak bermatzea, bizikletearen eta garraiobide publikoen arteko alkarreragingarritasuna bermatzea, eta lurralde-kohesinoa bermatu eta bultzatuko dauen bidegorri-sare bat ezartea, hau da, eskualdeen barruko loturea eta eskualdeen artekoa be. Hau da, lurraldearen luze-zabalean zabaldu daitela.

Horrelan, bizikletearen erabilerea aisialdirako garraiobide seguru eta osasungarria izan daitela bermatuko dogu, edo, arabere gehiago, landa-turismoa eta turismo jasangarria ingurune jakin batzuetan bultzatzeko eta sustatzeko modu bat be, horrek hainbat eremutan daukan eragin positiboagaz, baina batez be (eta hor dago erakunde publikoetatik bultzatu behar dogun paradigma-aldaketea), LPS honen bidez gure lurraldeko bizikleta-bideen sareak eguneroko mobikortasuna bultzatu dagiala bermatu behar dogu, hau da, herrigune, langune edo produkzino-zentro, hezkuntza-zentro, osasun-zentro, kulturgune eta abarretara joan-etorriak egitea. Eta horixe da, hain zuzen be, garraiobide kutsagarrienetatik garraiobide iraunkorrenetara egunero bidaiak eta bidaiariak eroateko partekatzen dogun helburu horren kakoa.

Azken baten, eta hori garrantzitsua dala uste dogu, lortu dogun adostasunak eta akordio zabalak poztu egiten gaitue; izan be, Batzordearen eztabaidearen eta Osoko Bilkura honen eztabaidearen artean, EH Bilduk proponidutako 8 zuzenketetatik 7tan akordioak lortu ahal izan doguz hainbat talderen artean, eta horrek maila garrantzitsua adierazoten dau; alde batetik, Lurraldearen beharren araberako testu bat aurrera aterateko konpromisoari jagokonez, eta, bestetik, aitatutako akordio hori bilatzeko konpromiso handia erakusten dau.

LPSren barruan modu positiboan baliosten doguz, era berean, bertan jasotako generoaren eta ingurumenaren gaineko eraginari buruzko txostenak. Izan be, logikoa danez, plana malgua da eta, gure ustez, (eta uste dot Ganbera honetako talde politiko guztiok horrelan ulertu dogula) planaren barruan garatu beharreko bizikleta-bideei buruzko zehaztasun edo zehetasun gehiago emotea gehiago egokituko jake planaren edo eztabaida honen helburu

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ez diran arau-garapenei edo etorkizuneko edo geroko jarduerei. Horren haritik, nabarmendu gura neuke, aitatu barri dodazan gaiei jagokenez, presente dagozala gero bozkatuko doguzan erdibideko zuzenketetan taldeok lortutako akordioetan. Adibide batzuk jartearren: 37.2 artikuluaren amaieran gehitutako 3. eta 4. zuzenketei buruz lortutako erdibidekoan Bizkaiko Foru Aldundiaren zeregina ezarten dau, gaur onartuko dogun LPS hau oinarri hartuta: bizikleta-bideen sarea garatzeko lehentasunak eta jarduera-programea jorratzea. Edo 8. zuzenketarako erdibidekoan, xedapen gehigarri bat da, Planaren garapenean genero-ikuspegia eta –politikak ezarteari buruzkoa, bai eta LPSn bertan adostutako foroetan eta erabagiak hartzean emakumeek daben parte-hartzeari buruzkoa be.

Eta, horrezaz gain, nabarmendu gura neuke 6. zuzenketeari buruz lortutako erdibidekoa edo erdibideratutako zuzenketea, 36. artikuluari buruzkoa. Bertan administrazinoaren betebeharra ezarrita dago, ez bakarrik LPSren emoierak ikuskatzeko, jagokozan parte-hartze tresnen arabera, ezpada emoiera horren barri emoteko betebeharra be, urtean behin gitxienez, lantzean behin, bai Batzar Nagusi honeei eta bai herritarrei batez be.

Eta ez genduan aitatu barik itxi gura LPS honetan garrantzitsua iruditzen jakun gai bat, lurraldearen iraunkortasunagaz sano lotuta dagoan gai bat, beste ikuspegi batetik bada be. Izan be, dokumentu honek, Plan honek azpimarratu egiten dau eraikuntza eta azpiegitura barriek ingurumenean ahalik eta gitxien eragin dagiela, eta ahal dan guztietan, daborduko artifizializauta dagoan lurzorua aprobetxetan saiatzen da, bizikletarako azpiegitura barrien eraikuntzearen ingurumen-aztarnea ahalik eta gehien murrizteko.

Eta hori sano jarrera edo ikuspegi egokia iruditzen jaku, hau da, azpiegitura barriek, baita iraunkortasuna bultzatzeko helburuagaz diseinetan diranek be, ingurunean ahalik eta inpaktu txikiena izan dagiela. Azpiegitura horreek, gainera, bizikletearen erabilerea sustatzeko politikakaz, politika zabal eta zeharkakoakaz eta azpiegituren bideen eraikuntza beraren jarduera osogarriakaz batera joan behar dabe, aurreko berbaldiren baten aitatu dan moduan. Halanda ze, politika horreek Azpiegitura Sailetik eta Lurralde Plan Sektorial honetatik harago doaz, esate baterako, bizikletea sustatzeko egin behar dabezan politikak, eta Garraio Saila egiten ari da. Adibide batzuk ipintearren bizikletentzako aparkaleku seguruak, bizikletentzako konponketa- eta mantentze-guneak edo BizkaiBizi sarea, lurraldeko hainbat udalerriren arteko bizikleta bidezko joan-etorria ahalbidetzen dauen zerbitzu publikoa. Kasu honetan, hasiera baten Bilbo metropoliaren eremuaren inguruan, baina lurraldeko beste udalerri batzuetara zabaltzeko asmoa dauka.

Azken baten, Talde Sozialistearen eretxian, bide onetik goaz lurraldearentzat funtsezkoa dan gai baten.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos y a todas.

En primer lugar, quiero saludar a los miembros de Biziz Bizi y a los concejales y concejalas de Alonsotegi hoy aquí presentes: Agurtzane, César, Errapel, Unai y Asier, bienvenidos/as.

El Plan General Vías Ciclistas de Bizkaia nació en 2003. En 2005 se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

incorporó al Primer Programa de la Estrategia de Desarrollo Sostenible de la Diputación, Programa Bizkaia21 (actualizado en 2011 y que estuvo vigente hasta 2016).

Desde entonces, la Diputación está elaborando el nuevo Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia, que verá la luz este año con un notable retraso.

Esta es la primera conclusión que hemos sacado. Este plan, esta Norma Foral llega tarde; con 7 años de retraso, ni más ni menos.

Y ello condiciona de inicio el contenido del Plan. Si empezamos tarde, por muy ambiciosos que sean los objetivos, tenemos que reconocer que el punto de partida es muy bajo.

En 18 años se han construido 367 km, con una media de 23 km al año. Eso es lo que ustedes han ejecutado en planes anteriores, por lo que partimos de una base muy baja.

Entendemos que la cifra es mínima, insignificante si se compara con el protagonismo que está adquiriendo el uso de la bicicleta en Bizkaia en la última década.

El Plan Sectorial trabaja con el escenario "Bizkaia Bizikletaz 2035", en el que se prevé alcanzar el 7,7% en el uso de la bicicleta para ese año, pero partimos del 0,6% del uso modal de la bicicleta.

El Plan plantea pasar de 19.000 viajes en bicicleta cada día a casi 260.000. Que así sea.

En definitiva, podemos decir que compartimos buena parte de la filosofía del documento que se ha presentado, pero tenemos dudas en su ejecución y financiación. Plazos y dinero, ahí están las claves.

Pero también coincidimos en que es necesario un nuevo plan; si queremos avanzar, hay que hacerlo con valentía y firmeza.

Eta kako horretan dago EH Bildu unada honetan. Ikusten dogu Plana berandu datorrela, zalantzak daukaguz epe batzukaz eta finantzaketeagaz, baina, beste alde batetik, uste dogu beharrezkoa dala Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorial barri bat bultzatzea, inoiz baino gehiago. Hori egiten ez badogu, aurrera ez egiteko, trabatzeko eta bizikleta-azpiegiturak bultzatzeko galdutako beste aukera baten aurrean egoteko arriskuan gagoz.

Horregaitik, ez gara teorian geratu, beste talde batzuk lez, eta modu aktiboan parte hartu gura izan dogu. Eztabaida filosofikoa eta teorikoa sano ondo dago, baina kasu honetan bidea pedalei eraginda egiten da.

Halanda ze, EH Bilduk 8 zuzenketa aurkeztu eutsazan Foru Arauaren proiektuari, hemen aitatu dan lez, eta horreetako 7 erdibideratzea lortu da, eta jarraian zehaztuko dodaz:

1. Lehenengoak aukerea emoten deusku bizikletea, 200 urte baino gehiagoko historia daukan garraiobidea, ezarri barri diran mobikortasun personaleko ibilgailu barriakaz ez parekatzeko. Bizikletea garraiobide lez kontuan hartu behar dala uste dogu, bizikleteari prestigioa emon behar jakola.

2. Bigarren zuzenketeak balioa emoten deutso "Bike on board"

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

sistemeari, hau da, bizikletea trenbideko garraiobideetan sartu ahal izateari, hau da, gure lurraldea egituratzeko pentsauta dagozan garraiobideetan.

3 eta 4. Hirugarren eta laugarren zuzenketen helburua betearazpenaren arloan lehentasun batzuk definidutea zan, esate baterako, beste lurralde batzukaz konexinoak Nerbioiko Parke linealaren bidez Aiaralderantza, Arabarantza, eta Kantabriagazko konexinoa Herrerosko tunelaren bidez. Galdakaoko eta Alonsotegiko bidegorriak be aitatzen ebezan, gaur Ganbera honetara konbidautako personek bultzatzen dabezan herri-aldarrikapenak. Foru Arauak ez dau onartzen hain lehentasun zehatz hori, baina etorkizuneko plangintzeari buruzko testu bat adostu dogu, eta horrek ibilbide horreek sustatu eta arintzeko aukerea emongo dau, bai eta bidea be, erabiliko daben personen proposamenagaz bat etorrita.

5. Bosgarren zuzenketan etorkizuneko bidegorrietarako aurreikusitako atalak eta neurriak zabaltzea eskatzen genduan. Ze beharrizan daukagu geure buruari gehienez 4 metroko mugea jarteko? Akordioari esker, goranzko mailak aldatu ahal izango dira, eta, aldi berean, eraikuntza-dimentsinoak bat etorriko dira 12 urte honeetan unean-unean aurreratuen dagozan Europako araudiakaz.

6. Seigarren zuzenketeak aukerea emoten deusku funtsezko zeozer azpimarratzeko, Planaren jarraipena aldizka egiteko, urtean behin gitxienez, bi norabidetan: bata, sektoreko gizarte-eragile eta enpresakaz, eta Ganbera honetan be talde guztiok urtero jasoko dogu Planaren betete-maileari buruzko informazino zehatza. Gure ustez, arau hau eta plan hau Batzar Nagusi honeetan onartzen badira, argi dago informazino hori jaso behar doguna eta parte hartu behar doguna.

7. Zazpigarren zuzenketeak bizikletearen mundua ordezten daben bi alkarteren parte-hartzea jaso gura eban alkarrizketa-mahaian. Ez da izan posible, erremin hori geratzen jaku, proposamen ona zala uste dogulako parte-hartzearen ikuspegitik. Eta aurreratu dodanez, hori izango da Arauaren artikulu guztietan gure abstentzino bakarra.

Eta azken 8. zuzenketeak sano puntu garrantzitsua jasoten dau EH Bilduren eretxian, genero-politiken ezarpena bermatzen dauen xedapen gehigarria, ez bakarrik planaren diseinuan, ezpada planaren garapen eta ebaluazino osoan be. Hemendik aurrera, genero-ikuspegia eta emakumeen parte-hartzea modu jarraituan eta sistematikoan bermatuko da, kudeaketa osoaren bidez.

Halanda ze, esan geinke Foru Araua nabarmen hobetzea lortu dogula. Hori ez zan posible izango Azpiegitura Sailak erakutsi dauen negozietako borondaterik ez balitz egon, eta hemendik eskertu gura dogu jarrera hori.

Akordiorako borondatea dagoanean, eta alderdiek alkarri entzuteko eta negozietako asmoa dabenean, nabarmena da bizkaitarren bizi-baldintzak hobetzen dirala, kasu honetan, bizikletearen erabiltzaileenak.

Para finalizar, hemos intentado mejorar esta Norma Foral, por eso votaremos a favor, porque cuando EH Bildu participa en los acuerdos, la ciudadanía es la última beneficiaria, porque ese debe ser el objetivo principal de cualquier acuerdo en esta Cámara, mejorar Bizkaia, mejorar la Bizkaia que amamos; y estamos en ese camino. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Y la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Edesa Gómez, tiene usted la palabra.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Gaur Bizkaiko Bizikleta Bideen 2023-2035 Lurralde Plan Sektoriala onartzeko Foru Arauaren proiektua eztabaidatuko dogu. Eta dana aurreikusitakoaren arabera badoa, gure lurraldean bizikleta-azpiegiturak garatzen dauzan lurraldeko plangintza eta antolamenduko tresna bat onartuko dogu.

Argi daukat mahai gainean Foru Arauaren proiektu on bat daukaguna, Garraioko eta Lurralde Antolaketarako politikak aldatzeko premina horretatik bideratutako Foru Arauaren proiektu bat, eta horri esker mobikortasun iraunkorreko beste modu bat sustatu ahal izango da. Zuzenketen eztabaidearen Batzordea egin ondoren, gaur Osoko Bilkura honetan Batzorde horretako erespenari buruz eztabaidea jagoku. Foru Arauaren proiektua Euskal Herria Bildu taldeak bakarrik zuzendu dau. 6 zuzenketa geratu ziran gordeta gaur hemen eztabaidatzeko, eta EH Bildugaz batera behar egin dogu horreetako bakotxean akordio bat lortzeko, bi taldeok zentzun horretan adosteko asmo argia geunkalako, Batzordean iragarri genduan moduan.

Esan dodan lez, hasierako 8 zuzenketetatik, gaur Osoko Bilkura honetan gainerako seiei buruz berba egitea jagoku; izan be, Bilduk aurkeztutako lehenengo bi zuzenketei buruzko akordioa Batzordean itxi ahal izan genduan, eta gaur akordio zabala daukagu mahai gainean, 3 taldeok erdibideko akordioak aurkeztu geuntsezalako zuzenketa horreetako bosti. Bilduren hasierako zuzenketei buruz daukagun jarrerea azalduko dot, baita azkenean akordio horreetara zelan heldu garan be.

Lehenengo akordioak Euskal Herria Bilduren 3. eta 4. zuzenketak aitatzen dauz. Horreetan Bilduk eskatzen eban, alde batetik, Nerbioi ibaiaren parke lineala Aiaragaz eta Castro Urdialesegaz Herrerosen bidez lotzeko tarteak kontuan hartzea, eta, horrelan, lurraldeen arteko lotura hori bermatzea, eta, bestetik, Zaramillo-Zorrotza eta Galdakao-Bilbo tarteak batez be kontuan hartzea, eskualdeen arteko loturea bermatzeko.

Gure ustez, ezinezkoa zan zuzenketak planteauta egozan moduan onartzea; izan be, linea batzuk besteen gainetik lehenesten saiatzen ziran Foru Araua lako dokumentu baten, eta hor lehentasun bat ezarten jaku, eta kontuan hartuta, gainera, Foru Arauaren proiektuan ez dirala lotura horreek zalantzan jarten; arabere gehiago, beharrezkotzat joten dira. Eta, azkenean, akordio bat lortu dogu, eta 37.2 artikuluari paragrafo bat gehitu deutsagu; izan be, diputaduak inoan moduan, EH Bildugaz bat egiten genduan planean ezarritako lehentasunetan, eta aitatu dodazan loturak dira adibide.

Bigarren akordioari jagokonez, 5. zuzenketea aitatzen dau, bizikleta-bideen neurriei buruzko 17. artikuluari buruzkoa. Kontu hori teknikoagoa zan, eta parametro jakin batzuk aldatzea proponiduten zan, batez be, bizikleta-bidearen zabalereari jagokonez. Gure ustez, zentzun horretan, oso kontuan hartu behar zan praktikotasunaren printzipioa, eta erispide teknikoak kontuan hartzen dauzan Foru Arauan planteetan danak bideragarritasun teknikoa lortu gura dau eta bizikleta-bideen funtzionaltasuna bermatu. Hau da, sano gatxa izango litzateke kasu askotan, batez be uri-eremuetan, arabere gehiago kontuan hartzen badogu trazadura gehienak uri-tarteetatik igaroten dirala. Kasu askotan, 4 metroko zabalera hori ziurtatzeak esan gurako leuke ezinezkoa izango dala hori egitea. Eta, horregaitik, denpora honetan akordio bat bilatzen aritu gara, eta bi jarrerak islatzen dauzan testu bat zarratu dogu.

Hirugarren erabagia 6. zuzenketeari buruzkoa da, Batzar Nagusi honeei edozein aldaketa edo berrikuspenen barri emoteari buruzkoa. Zuzenketea ez genduan hasieran planteauta egoan moduan ikusten, araututa egoan-eta berrikuspenek eta aldaketek onartzeko jarraitzen dan prozedura bera jarraitu dagiela, eta halan jasoten dau Foru Arauaren proiektuak 23. artikuluan. Eta, gainera, Batzar Nagusien gure antolaketan eta funtzionamentuan, zentzun

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

horretan mekanismo nahikoak eta bermatzaileak ezarrita dagoz daborduko.

Edozelan be, akordio batera heldu gara, eta 36. artikuluari 3. paragrafoa gehitu deutsagu, informazino-, partaidetza- eta jarraipen-espiritu hori jaso daiten eta Batzar Nagusi honeen funtzionamentura egokitzeko.

7. zuzenketan ez dogu akordiorik lortu. Zuzenketa horren bidez, 32. artikuluari 6. atal bat gehitu gura jakon, erakundeen arteko koordinazino-tresneari buruzkoa, eta EH Bilduk 2 alkarteren parte-hartzea eskatu eban. Zuzenketa hori ez dogu ikusten; izan be, gure ustez, erakundeen arteko koordinazino-tresnea, hau da, erakundeen arteko alkarrizketa-mahaia administrazinoen artean bizikleta-bideen betearazpena koordinetako da, eta bizikletearen erabiltzaileen alkarteak alkarrizketa- eta partaidetza-mahai baten inguruan egotea nabarmenduta eta ziurtatuta dago Foru Arauaren proiektu honetan, bizikletearen lantegi-foroan parte hartzen dabelako. Foro hori, 31. artikuluaren b) atalean zehazten dan lez, partaidetza- eta alkarrizketa-organo aholku-emoile lez eratu da, erakundeakaz batera, aholku-emoile lez. Horregaitik dabe euren lekua, eta horregaitik ez dogu zuzenketa hori onartuko.

Eta azken akordioari jagokonez, genero-politikei buruzko 8. zuzenketea aitatzen da. Jakina, sano garrantzitsutzat joten dogu gai hori, eta funtsezko eta zeharkako alderdi bati heltzea, hau da, mobikortasun- eta garraio-politikak diseinetan eta zehazten diranean genero-ikuspegia aintzat hartzea, eta hori egitea, era berean, politika horreen erregulazinoaren zati horretatik. Halanda ze, alderdi horrek, arau-proiektu ia osoa hartzen dau, eta bat dator Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazinoari (GEAE) buruzko Txostenean jasotako azterketeagaz.

Eta lortu dogun erdibideko akordioan, izan be, lehen xedapen gehigarri lez jasoko dan testu bat proponidu dogu, eta bertan genero-ikuspegia rol zentralago baten kokatzen da, eta emakumeen beharrezko ekarpena eta ikusgarritasun soziala indartzen eta balioesten saiatu gara.

Horreek lirateke, beraz, lortutako akordioak eta gure taldeak egin dauen zuzenketen azterketea. Andrade jaunak berbaldi elektoralistea egin dau, eta, tira, gagozan garaian egonda, ez dau aldeko botorik emongo, baina gatxa da ulertzea, proiektua ez dauenean zuzendu eta ekarpenik egin ez dauenean. Ekarpen bako kritikek, Andrade jauna, ez dabe zentzun handirik. Eta esaten badozu proiektuak eukiezak daukazala, ba, ondo baten zuzendu ahal zenduzan.

Eskertzen dot Elkarrekin Bizkaia taldearen tonu atsegina, eta eskertzen dot bere aldeko botoa, eta nire taldearen izenean eskerrak emon gura deutseguz Euskal Herria Bildu taldeari, Mendez jaunari eta Isuzkiza jaunari, Foru Arauaren proiektuari egindako ekarpenakaitik eta adosteko eta Foru Arau on bat zarratu ahal izateko erakutsi daben jarrera onagaitik.

Borondateak beti aurkitzen dau modua, eta kasu honetan aurkitu dogu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHEN**DAKARI andreak: Muchas gracias a usted, señora Edesa Gómez. Y en cuanto al segundo turno de los grupos... El señor Andrade no va a participar. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Lobato Pascual, ¿va a participar? Desde el escaño, tiene usted la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Bai, tira, Sailak eta gainerako talde politikoek 4 urte honeetan egindako lana eskertu besterik ez; izan be, Bizkaian mueta

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

horretako bideetarako zer gura dogun landu ahal izan dogu guztion artean, eta aurrerantzean be LPS honen garapena bultzatu ahal izateko lan instituzionala babesten dogula berretsi gura dogu. Lehen esan dogun moduan, denpora aldetik garapen horrek urte asko hartzen dauz, eta uste dogu jarraipen koherentea egin behar dala, eta espero dogu Gobernua osotzen daben eta hurrengo legegintzaldietan Bizkaiko Foru Aldundiko kide izango diran etorkizuneko taldeek zentzun horretan lan duina egin dagiela.

Besterik ez. Hori baino ez.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted. El representante del grupo Socialistas Vascos, también desde el escaño, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Ondo. Muchas gracias.

Nik be hemendik, labur-labur egingo dot-eta; izan be, behar izan dan zehaztasunagaz azaldu da zuzenketen eta lortutako akordioen eztabaidea eta, tira, talde jakin bat izan ezik, LPS honen aldeko akordio nahiko zabala dago.

Beste barik, gure ustez, Plan hau onartzea Lurralde honetan tresna ona da eta akordioa balioetsi gura dot beste behin, esan dodan moduan. Eta uste dogu norabide onean emoten dogun urratsa dala, eta, jakina, bide horretan etorri behar diran beste askoren arteko urrats bat da, ze, esan dogun moduan, oinarri horretan lan egin behar dogu, baina etorkizuneko jarduketak eta arau-garapenak egotea beharrezkoa da, eta egongo dira, eta Bizkaiko bizikleta-bideen sarea zehaztu eta hobetuko dabe. Halanda ze, zorionak akordioagaitik, Plan honen onarpenagaitik, eta hori da dana.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo, señora Presidenta.

Yo aprovecharé el tiempo, porque en esta Cámara hablamos muy poco de la bicicleta y creo que tenemos la oportunidad de liquidar hoy esa deuda.

Hoy vamos a llegar a un acuerdo amplio y creo que lo vamos a hacer casi por unanimidad, y creo que eso es algo de lo que alegrarnos. Creo que todos los discursos, excepto uno, eso es evidente, han sido partidarios de la bicicleta, de favorecer su uso. Y algunos, ya lo he dicho en mi primera intervención, quizás han sido muy teórico-filosóficos, pero al fin y al cabo, han sido favorables. Y quiero comentar al menos cuál es la actitud de nuestro partido, de nuestro grupo. No podemos aceptar un discurso populista con respecto a la bicicleta. No podemos aceptar. Hemos dicho que debemos prestigiar la bicicleta, que la bicicleta debe ser aceptada como un modo de transporte, y que ese debe ser el objetivo y no el contrario. Y creo que aquí ustedes han ido en contra de la bicicleta.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Eta hori zutaz doa, Andrade jauna; hau da, PowerPointak izan dozuz berbabide. Uste dot ez dala PowerPointen garaia, gaur ez da ezer digitalik egon. Nire ustez, bada garaia hobekuntzak aurkezteko, alegazinoak egiteko, alkarteakaz eta udalakaz berba egiteko, testuak hobetzen saiatzeko. Gero, lortu edo ez, hori beste gauza bat da, horretarako bozkatzen dogu, aurrera egin dogun ala ez erabagiteko, eta hori da EH Bilduk egin dauena, eta hori da zuek lehenengo minututik egin gura izan ez dozuena. Horregaitik dinotsut bizikleteagaz egindako berbaldi populistak, gitxi; hau da, bidegorriek lehentasunezkoak izan behar dabe Bizkairako, eta zuk proposamen guztien barrenera bialdu dozuz.

Guk ez dogu uste 188 milioi neurribakoak diranik; alderantziz, gitxi dala uste dogu, beste azpiegitura batzuk gogoratzen badoguz. Izan be, Azpiegitura Sailaren barruan berba egiten ari garalako, eta badakigu Bizkaian beste arazo batzuk dagozana, eta uste dogu handitu egin leitekezala, esan dodalako 7 urtetik gorako defizita daukagula, eta horreetan ez dogu aurrera egin, egin beharko geunkenaren neurrian. Bizikletan ez dogu gastetan, bizikletan inbertidu egiten dogu. Bidegorrietan inbertidutea osasunean inbertidutea da, segurtasunean inbertidutea, mobikortasun jasangarrian inbertidutea. Badakit zuei hori ez jatzuena gustetan, gehiago zarie asfaltozkoak, motorrekoak eta ibilgailukoak, baina, behintzat gorde eizuez formak.

Eta Plana asmo handikoa eta garestia izateagaz be ez gatoz bat; guztiz kontrakoa dala uste dogu. Horregaitik, EH Bilduk, eta nire lehenengo berbaldian esan dodan moduan, Planaren jarraipen zorrotza egiteko erantzukizuna jaso dogu, asmo handikoa izan ez daiten, arabere handiagoa izan daiten, apala izan ez daiten eta, batez be, daukan finantzaketea areagotu daiten.

Esa es nuestra apuesta. Ese es nuestro compromiso para la próxima legislatura. Y vuelvo a reiterar, creo que debemos prestigiar la bicicleta en esta Cámara. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Para finalizar el debate, la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Edesa Gómez, tiene usted la palabra.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Muchas gracias a usted, señora Presidenta.

Nire lehenengo berbaldian esan dot mahai gainean Foru Arau on bat daukagula, eta talde desbardinei entzun eta euren boto-asmoa ikusi ondoren, Andrade jaunarena gorabehera, ba hori berretsi egiten dot. Gainera, talde bakar batek zuzendu izana eta adostasun zabala lortu izana, ba, hori argi ixten dauen beste elementu bat da.

Foru Arau honegaz, gure lurraldean beste urrats bat emon dogu Bizkaia hondinokarren jasangarriago baterantza, beste mobikortasun modu bat sustatuta, eta gai honetan ia aho batez adostea lortu dogu, eta hori, ba, zoriontzekoa da. Eta, gainera, Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailaren diputaduaren eta bere taldearen lana nabarmendu eta eskertu gura dot. Gaur, ondo egindako lanaren beste adibide bat daukagu mahai gainean, erantzukizunetik eta konpromisoak betetetik lan egiten dauen Saila, Foru Arau honegaz zein beste gai batzukaz, inplikautako eragileakaz, alkarteakaz eta udalakaz egoteaz arduratu dana. Entzute aktiboko lan horri esker, azpiegituren arloan, lurralde honek norabide onean egin dau aurrera, eta horregaitik, Imanol, zuri eta zure talde osoari, eskerrik asko.

Eta gaur Foru Arau hau onartuko dogu, ondo egindako lan horren ondorioz.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Edesa Gómez.

Y una vez finalizado el debate, debemos someter a votación el proyecto de Norma Foral. Con la tabla delante, en primer lugar comenzaremos votando las enmiendas mantenidas, pero tal y como hemos escuchado en el debate, en la mayoría de esas enmiendas (excepto en una) se ha alcanzado una transaccional entre los grupos. Por lo tanto, someteremos a votación ahora las transaccionales alcanzadas en relación a las enmiendas 3 y 4 presentadas por el grupo Euskal Herria Bildu. Por tanto, votamos la transaccional. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 50 votos. 48 a favor, no ha habido votos en contra, 2 abstenciones. Por lo tanto, aprobada la transaccional.

A continuación, debemos someter a votación la 5ª enmienda retirada, y su correspondiente transaccional. Podemos votar. El resultado es el siguiente. En total se han emitido 50 votos. 48 a favor, no ha habido votos en contra, 2 abstenciones. Por lo tanto, aprobada la transaccional.

A continuación, someteremos a votación la 6ª enmienda retirada y su correspondiente transaccional. Podemos votar. El resultado es el siguiente. En total se han emitido 50 votos. 48 a favor, no ha habido votos en contra, 2 abstenciones. Por lo tanto, aprobada la transaccional.

A continuación, sometemos a votación la enmienda, la 7ª enmienda que mantiene Euskal Herria Bildu. Podemos votar. El resultado es el siguiente. En total se han emitido 50 votos. Han sido 9 votos a favor, 33 en contra, ha habido 8 abstenciones. Por lo tanto, no se ha aprobado la enmienda 7ª.

Y a continuación, sometemos a votación la 8ª enmienda retirada y su correspondiente transaccional. Podemos votar. El resultado es el siguiente. En total se han emitido 50 votos. 48 a favor, no hay votos en contra, 2 abstenciones. Por lo tanto, aprobada la transaccional.

A continuación, debemos someter a votación la enmienda que ha recogido el articulado. Desconozco si podemos votar juntos o de uno en uno. Debemos realizar la votación de uno en uno, ¿no es así? Sí. En primer lugar, someteremos a votación el primer anexo, el artículo 11. Podemos votar. El resultado es el siguiente. En total se han emitido 50 votos. 48 a favor, no ha habido votos en contra, 2 abstenciones.

Si los grupos van a mantener el sentido de la votación, creo que podemos hacer una única votación. Entiendo que podemos realizar una única votación, excepto en un caso, el primer anexo, el artículo 32. Creo que ese debemos votar aparte. Primero votaremos ese, si les parece bien, y luego el resto en conjunto. Por lo tanto, votaremos aparte. En el articulado enmendado, pienso que con dos votaciones tenemos decidida la cuestión, y si lo ven bien, en primer lugar votaremos aparte el primer anexo, el artículo 32 y, luego, el resto. Por lo tanto, sometemos a votación los artículos mencionados. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 49 votos. Han sido 39 votos a favor, no ha habido votos en contra, han sido 10 abstenciones. Por lo tanto, aprobado el artículo 32.

Y ahora votaremos el primer anexo, artículo 13; el primer anexo, el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

artículo 17; el primer anexo, el artículo 23; el primer anexo, el artículo 42. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. En total se han emitido 49 votos. Han sido 47 a favor, no ha habido votos en contra, 2 abstenciones. Por lo tanto, se aprueban los artículos mencionados.

Y ahora creo que podemos votar en conjunto los artículos que no han sido enmendados, que son los siguientes: el artículo único, el primero de la última disposición; el segundo de la última disposición; el primer anexo, los artículos del 1 hasta el 10; el primer anexo, el artículo 10; el primer anexo, los artículos entre el 14 y 16; el primer anexo, los artículos entre el 18 y el 22; el primer anexo, los artículos entre el 24 y el 31; el primer anexo, del artículo 33 al artículo 41; el primer anexo, la primera disposición adicional; el primer anexo, la segunda disposición adicional; el primer anexo, los apéndices primero, segundo y tercero; el segundo anexo, el tercer anexo y la exposición de motivos. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 49 votos. Han sido 47 votos a favor, no ha habido votos en contra. ha habido 2 abstenciones. Por lo tanto, aprobada la Norma Foral.

Vayamos al segundo punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Decreto Foral Normativo (Transposición) (R.E.11/E/2023/0000354)
Autor: Diputación Foral de Bizkaia
Asunto: DECRETO FORAL NORMATIVO 1/2023, de 28 de febrero, de medidas tributarias en el Impuesto sobre el Valor Añadido, en el Impuesto sobre el valor de la producción de energía eléctrica, en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes y en las tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas
Documento Principal: (R.E.11/E/2023/0000354)
Boletines: Admisión a trámite (17A)
Expediente: (11/A/03/0004244)

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Foru Dekretu Arauemailea (Transposizinoz) (11/E/2023/0000354SE)
Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia
Gaia: 1/2023 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, otsailaren 28koa, Balio Erantsiaren Gaineko Zergan, Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren Gaineko Zergan, Ez-Egoiliarren Errentaren Gaineko Zergan eta Ekonomia-Jardueren Gaineko Zergako tarifetan tributu-neurriak aplikatzeari buruzkoa
Dokumentu Nagusia: (11/E/2023/0000354SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea (17A)
Espedientea: (11/A/03/0004244)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Para la presentación del proyecto, el representante de la Diputación, señor Iruarrizaga Artaraz, tiene usted la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Presidenta, buenos días a todos/as.

Foru Dekretu arauemailearen tituluak berak adierazoten dauen moduan, testu honetan Balio Erantsiaren Gaineko Zergea, Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren Gaineko Zergea, Ez-egoiliarren Errentearen Gaineko Zergea eta Ekonomia-jardueren Gaineko Zergea aldatzen dabezan zerga-neurriak sartu dira.

Guztiok dakizuenez, tributu horreetan Estaduak tributu horreetan egiten dauzan prozedura, kontu eta erregulazino berberei eutsi behar deutsegu, Estaduari jagoko-eta hareen araugintza-ahalmena, eta ez jagoke Batzar Nagusi honeei arautzea. Estaduko araudian egindako aldaketa horreek zergapeko 2 bideren bidez gertatu dira.

Lehenengoa 2023rako Aurrekontuen Legea izan zan, abenduaren 23koa, eta bigarrena, abenduaren 27ko Errege Lege Dekretua, Ukrainako gerrearen ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta La Palma ugartea eta beste zaurgarritasun-egoera batzuk berreregiten laguntzeko neurriei buruzkoa. Legeari jagokonez, Estaduko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko Legean sartzen danari jagokonez, batez be BEZaren aldaketak dira.

Hiru atal inguru dagoz; BEZaren aldaketa horreen lehenengo atalak Europako Erkidegoko zuzentarauen trasposizino batzuk egiten dauz. Zuzentarau horreetan, orokorrean, BEZaren sistemea erkidera, zerbitzu-prestazinoetara, aduana-araudira, merkataritza elektronikoaren tributazinora eta zorduna deitzen danera egokitu dira, eta hartzekodunen konkursoan dagoala edo kreditu hori kobrauezina dala deklaretan danean, ba, ze egoera dagozan. Tributazino murriztua be sartu da: konpresak, tanpoiak, slipak, preserbatiboak eta sendagarriak ez diran beste antisorgailu batzuk babestea. Eta, azkenik, 2023ko ekitaldi osora luzatuko dira araubide sinplifikadua eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezia apliketako mugak.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergeari jagokonez, telefonia mobikorreko zerbitzuen tarifak eguneratu dira, epigrafe barri bat idatzi da, 842.2 epigrafea, bulego malguetako zerbitzu integralen (“coworking” izenagaz ezagutzen diranak) eta negozio-zentroen tributazinorako, zerbitzu-mueta horretan sailkatzeko asmoagaz, eta talde barriak sortu dira beste jarduera batzuen tributazinoari jagokonez. Mendi gidariez, musikagileez, letragileez, moldatzaileez, musika egokitzapenez, idazleez, gidoilariez eta abarrez ari gara.

Azkenik, Ukrainako gerrearen ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko neurriei buruzko abenduaren 27ko Lege Dekretuak 2023rako txertatzen dauzan aldaketetan, gas naturalaren, biomasatik datozan briketa eta “pelleten” eta sutako egurraren emoteei, inportazinoei eta Europar Batasunaren barruko eskurapenei aplikau beharreko BEZaren %5eko tasea ezarri da, bai eta %0,62ko baliokidetasun-errekargua be.

2023ko bagilaren 30era arte luzatuko da BEZaren %4ko aplikazinoa maskara kirurgikoen Europar Batasunaren barruko emoteei, inportazinoei eta eskuraketei, eta %0koa txertoen kasuan.

Energia elektrikoaren hornidura jakin batzuen kasuan be %5eko zerga-tasea apliketea 2023ko abenduaren 31ra arte luzatuko da.

2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko bagilaren 30era bitarteko ondorioakaz, BEZari aplikau beharreko zerga-tasea ezarriko da elikagaien emote, inportazino eta Europar Batasunaren barruko eskurapen jakin batzuetan. %5 honako kasuetan: oliba-orioa eta haren haziak, eta elikadura-pastak. Eta %0 honakoetan: ogi arrunta, ogi bihurtu leitekezan urunak, esnea, animalia-jatorria, gaztak, arrautzak, frutak, barazkiak, ortuariak eta lekaleak.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Eta, azkenik, Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren balioaren gaineko Zergearen aldi baterako etetea 2023ko abenduaren 31ra arte luzatu da.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz.

A continuación, someteremos a votación para ver si se ratifica la iniciativa. Por lo tanto, podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 48 votos. Han sido 38 votos a favor, no ha habido votos en contra. Han sido 10 abstenciones. Por tanto, queda ratificada la Norma Foral Normativa. Y, a continuación, daremos comienzo al turno de los grupos. Para ello, la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Egun on guztioi.

Beste behin bozkatu barri dogu, eta enegarren aldia da, aldaketa fiskalen moltso handi bat trasposizinoaren figurapean. Ezin dot esan ezta deigarria danik be, Espainiako Gobernuarentzat ohiturea da-eta Errege Lege Dekretuak erabiltea; hain zuzen be, trasposizinoa egin barri deutsagun hau 2022ko hogeigarrena da. Nire ustez, horrek argi ixten dau Espainiako Gobernua legegintza-figura horren erabilera neurribakoa egiten ari dana, eta, batez be, Gorte Nagusiei egiten jaken gitxiespena. Azkenean, Errege Lege Dekretuak erabilten dira nahaste-borraste moduko bat egiteko, non dana egin leiteken. Gai batzuk Ogasuneko foru-diputaduak adierazo dauz, baina tira, 15 zerga-aldaketara arte egin dira, batzuk ezelako logika barik, dana nahastean, eta beste askotan lez, Gorte Nagusietan beharrezkoa dan eztabaidea saihestuta.

Izan be, gaur aldatuko dogun Errege Dekretua joan dan abenduaren 27an onartu zan, Estaduko Aurrekontu Orokorrak onartu eta lau egunera, eta horren maminaren zati bat be gaur ekarri da. Dekretu horren bidez, abenduaren 31n amaitzen ziran neurriak luzatu egin ziran. Horreetako batzuk Alderdi Popularrak apirilean, 9 hilebete lehenago, proponidutakoen kopia dira, eta talde popularraren atzera botatako proposamenen kopia be badira, BEZa beharrizan handiko elikagaietara jastea, esaterako.

Gu abstenidu egin gara. Izan be, aldatzen ari dana, ba, gai batzuk Alderdi Popularrak proponidutakoak dira. Egia da berandu eta txarto aplikau dirana, eta horrek, jakina, espainiar guztiei jagoken fakturea pasetan deutse, jagoken fakturea. Izan be, egunetik egunera gero eta gehiago dira argiaren, berokuntzearen eta erosketa-saskiaren ezinbesteko gastuei aurre egin ezin deutseen espainiarrak, eta Espainiako Gobernuak, ostera, urtebete igaro dau zuen guztion babesagaz, izan be, laurok, lau taldeok alkarregaz zoaze-eta gai honetan, eta uko egiten deutsazue neurri eraginkorrak onartzeari. Berbarako, elikagaien jatsierea, elektrizidadearen jatsierea edo gasaren BEZaren jatsierea lehenago egin izan balira, proponidu genduan moduan, ba, nire eretxian, gure egoerea hobea izango zan.

Halanda ze, abstenidu egin gara, barriro dinot. Neurri batzuk kopiau egin dira, berandu kopiau dira, beste batzuk erdizka kopiau dira. Izan be, elikagaien BEZaren jatsierearen gaian erdizka geratu zarie, ia betiko lez, baina Espainiako Gobernua egiten ari dan Errege Lege Dekretuen neurribako erabilerea be azpimarratu gura dogu, Gorte Nagusietan beti izan behar dan eztabaidea saihesten dabe-eta.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Egun on guztioi.

Estaduko araudiaren trasposizinoari buruzko Foru Dekretu arauemaileetarako argudiatu ohi dogun moduan, gure taldeak gurago dau Ekonomia Itunak ezarten dauen betebeharrean ez oinarritzea gure jarrerea, ezta horri men egiteari uko egitean be, ezpada sartzen diran neurrien balorazinoan, neurrietan eta, batez be, neurri horreek Bizkaiko herritarrakan izango daben eraginaren ikuspegian.

Horri jagokonez, Dekretu bat daukagu, gai askotako hainbat alderdiren trasposizinoa egiten dauena. Zeozelan moltsokatzeko, gure jarrerearen arabera, gai batetik hastea gustauko litxakit, nahi-ta ikuspegi ekonomikotik edo fiskaletik garrantzi txikiagoa daukan. Esan daigun gure taldean NATOko herrialdeek gaur egun daben BEZaren salbuespenagaz kexetan garala, eta, era berean, egoera hori NATOko kide ez diran Europar Batasuneko herrialdeetara zabaldu izanaz be kexetan gara. Ezinezkoa da gai hori fiskalidadearen ikuspegitik baloretea, testuan aitatzen dan segurtasun- eta defentsa-politika erkidea kontuan hartu barik.

Politika erkide horrek, alde batetik, Estatu Batuen eta NATOren estrategiaren itzalpean jarraitzen dau, eta, bestetik, ikusi dogun moduan, eta hondinokarren be ikusten dogun moduan, zoritxarrez, Mediterraneoan hainbeste min eta heriotza eragiten ari dan muga-kontrola zabaltzen ari da.

Bigarrenik, neurri moltso zabal bat bildu geinke: BEZean sartzen diran zuzenketa moltso hori, segurtasun juridikorako idazketa-hobekuntzak, edo izapideak errazteko, esaterako, eta Auzitegi Gorenaren epaia betetea be sartu geinke hemen, telefono-konpainien Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergearen likidazinoak itzultzera behartuko dauena. Nire ustez, interesgarria izango zan jakitea ze eragin izango dauen horrek Bizkaiko udalerrien finantzaketan, eta hondino kalkulua egin ez bada interesgarria litzateke egitea. Uste dot datu hori garrantzitsua izango zala gaur hemen emotea. Hemen, kontuan hartu behar da telefono-konpainien zerga horren kuoten salbuespena nazinokoa dala, hau da, Zerga Agentziak egiten dau, eta gero udalerriei banatzen deutsez. Halanda ze, kopuru hori edo Bizkaiko udal-finantzaketan izan leiken eragina ezagutzea interesgarria izango zan.

Azkenik, Bizkaiko gizartean eragin positiboena daben neurrien moltsoa izango geunke. Lehen aitatu da proponidutako neurriak dirala, kopiauta dagozala. Tira, ez da be BEZaren jatsierea kea asmetea danik, baina uste dogu, eta aprobetxau gura dot esateko Bizkaia osoko eta Estadu osoko personak oraintxe bertan ondoen babesten dauzana ez dala BEZaren jatsierea bakarrik, ezpada babes sozialeko eta ezkutu sozialeko neurrien moltsoa be. Izan be, neurri horreek familien, personen eta enpresen diru-sarrerak, bermatu egiten dabez eta manteniduten, arintzen edo moteltzen ari dira orain bizi dogun krisi sanitarioaren eta ekonomikoaren arteko talkea, gerrea dala eta.

Tira, hor honeek sartuko lirateke:

Hainbeste itxaroten eta eskatzen egon garan hilekoaren higieneko produktuei eta antisorgailuei BEZaren jatsierea, Bardintasun Ministerioak sustatutakoa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Lehen sektoreko erregimen sinplifikadua eta araubide berezia apliketako mugak luzatzea.

Maskaren edo energia-fakturearen BEZaren luzapena, murrizketak edo ezabatzeak. Esan dodan moduan, azken neurri horregaz batera energia-sektoreagaz lotutako beste neurri batzuk be hartu dira, eta, neurri horreek, ba, tira, unada honetan Espainia Europan azkenetakoa egotea ekarri dabe, inflazinoari jagokonez.

Eta, azkenik, elikagaien BEZaren murrizketea be badaukagu, edo %0ra edo %5era. Nahi-ta gure talde politikoak esan dauen ez dala nahikoa eta beste neurri osogarri batzukaz batera joan beharko leukela, autortzen dot neurri hori neurri ona dala eta eragin positiboa izan beharko leukela edo izaten ari dala elikagaiak erosteko tiketetan, hori ukatuezina da.

Horregaz guztiagaz, eta balorazino orokorra eginda, gure taldeak Dekretu honen aldeko botoa emon dau.

Mila esker.

La Sra **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Benito Ziluaga. Y el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideok, jaun-androk, ahaldunok, buenos días a todos/as.

Zerga-neurriei buruzko Foru Dekretu Arauemaile bat gure ordenamentura aldatzen ari gara. Foru Dekretu horren jatorria daborduko aitatu dau diputadu jaunak, gure aurretik berba egin dau-eta. Guk Espainiako Gobernu aurrerakoiak arlo guztietan, eta batez be, espainiarren bizi-kalidadea hobetzeko arlo adierazgarriagoetan egindako arau-ekoizpen eskuzabala azpimarratuko dogu. Horreek guztiak eta osotasunean.

Baten bati ez jako gustetan Gobernu hau egiten ari dana egiten egon daitela, Errege Dekretu bidez. Kasu horretan, esan behar dogu errege-dekretu horreek baliozkotu egiten dirala Legebiltzarrean, eta talde politiko batzuek ezetz dinoe beti, arrautza egosiei ezetz, eta ezetz bere marka zuri, berde edo beilegiari, bardin jat, baina beti dagoz EZetzagaz. Ba hortxe geratuko dira urte askoan, betiko ez horregaz, hortik ez dabe-eta aurrera egingo.

Tira, gainera, horrek, eta, hain zuzen be, orain egiten dogun trasposizinoak arau asko biltzen dauz. Esan daigun arau horreetako asko profil teknikokoak dirala, eta beste batzuk, unean-uneko koiunturarako egokitzapen hutsak dirala. Horreetan, Benito jaunak, nire aurretik berba egin dauenak, nabarmendu dauz daborduko arau batzuk, eta horreetako askotan guztiz bat natorrela esan behar deutsut. Gainera, nik azpimarratuko neuke arau batzuk dagozala zerga-saiheste egoeretatik iges egiteko, eta arau hori subjektu pasiboari egindako inbersinoen araua zerbitzu-prestazinoei apliketatik kanpo geratzen dala, hau da, ezarri bako enpresaburu profesionalek egindako higituezinen errentamenduko bitartekaritzatik kanpo, eta hori zerga-saihestearen eta igesaren bide bat izaten ari zala.

Balio Erantsiaren gaineko Zergan merkataritza elektronikoaren erregulazinoaren arloan, egokitzapen tekniko batzuk egin behar izan dira, zehatzago definiduteko egiteko lekuari buruzko arauak, eta baita eragiketa horreekaitik zergak jatorrian ordaintzen jarraitzeko aukerea emoten dauen mugearen kalkuluaren araberakoak be.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Baina nik hemen batzuk nabarmendu gura neukez, berbarako, orain arte %10eko tasa murriztuan ordaintzen ebezan ondasun jakin batzuk %4ko zerga-tasa murriztuan zergapetuko dira. Horreetako batzuk daborduko aitatu dira, emakumeen egoereari atxikitako premina biziko artikuluetan dagoz-eta: slip-babesak, behar handiko produktuak, konpresak, tanpoiak edo preserbatiboak eta neurri horreetan sartu diran sendagarriak ez diran beste antisorgailu batzuk be.

Balio Erantsiaren gaineko Zergan araubide sinplifikadua eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia apliketako mugak 2023ko zerga-aldirako luzatu dira.

2023ko abenduaren 31ra arte luzatu da gas naturalaren entregen fakturetako osagaien gaineko BEZaren zerga-tasearen %5eko murrizketea.

BEZari jagokonez, abenduaren 31n energia elektrikoko hornidurei %5eko zerga-tasea apliketako luzapena be sartu da, fakturen zenbatekoa murrizteko.

Azkenik, elikadurearen arloan, oinarrizko elikadura-produktuen gaineko BEZaren zerga-tasea %4ra jatsi da. Hau da, ea inork aurkitzen dauen hemen danontzat onuragarria ez dan zeozer, baita gizarte-bonuak eskatu dabezan horreentzat be, ahulenentzat zanaz baliatzeko. Halanda be, on egin degiela.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Álvarez Castrejón. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Volvemos a votar un Decreto Foral Normativo sin posibilidad de modificación alguna.

Un decreto en el que se modifican diferentes impuestos y se plantean medidas muy diferentes. Y dado que se plantean tantas medidas a la vez, lógicamente estamos de acuerdo con unas y no con otras. Pero no podemos cambiar nada y tenemos que votar el decreto en su integridad. Y por eso nos hemos abstenido.

Si tuviéramos la oportunidad, a unas medidas les diríamos que sí y a otras que no, pero no es posible votar cada una de las medidas.

Claro que estamos de acuerdo con:

•La aplicación de un tipo impositivo reducido del 4 por ciento en tampones, compresas y protegeslips, al tratarse de productos de primera necesidad inherentes a la condición femenina.

•Estamos de acuerdo, aunque la eficacia de estas medidas aún no se ve, en el ámbito alimentario, en reducir del 4 al 0 por ciento el tipo impositivo del Impuesto sobre el Valor Añadido correspondiente a los alimentos básicos, hasta ahora sujetos al tipo reducido, y en reducir del 10 por ciento al 5 por ciento el que se aplica a los aceites y pastas de alimentación.

Si tuviéramos posibilidad de llevarlo a cabo, aplicaríamos estas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

reducciones a otros alimentos, pero no podemos. Asimismo, hay que tener en cuenta que se establecen como medidas transitorias y extraordinarias, desde el 1 de enero de 2023 hasta el 30 de junio de 2023.

A la vista de lo que ha ocurrido con el IVA alimentario, seguramente este plazo deberá ser prorrogado.

•Pero no estamos de acuerdo en extender las excepciones que correspondían a las Fuerzas Armadas, a las fuerzas armadas de los Estados miembros que participan en actividades en el marco de la política común de seguridad y defensa. De esta forma, se declaran exentas las entregas, importaciones y adquisiciones intracomunitarias de bienes realizadas por las referidas fuerzas armadas, para su uso o del personal civil a su servicio, así como para el suministro de los comedores o cantinas de las mismas. Con eso no estamos de acuerdo, pero no podemos cambiar.

Luego, se amplían los plazos de las medidas ya implantadas hasta el 31 de diciembre de 2023:

-Se establece una prórroga de los límites de aplicación del régimen simplificado y del régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca en el Impuesto sobre el Valor Añadido.

-En la reducción al 5 por ciento del tipo impositivo del Impuesto sobre el Valor Añadido que recae sobre todos los componentes de la factura de las entregas de gas natural.

-También en el caso de determinados suministros de energía eléctrica, la aplicación del tipo impositivo del 5%.

-La suspensión temporal del IVA de producción de energía eléctrica.

Adoptaríamos diferentes sentidos en nuestro voto, pero no podemos.

Por último, se adoptan una serie de medidas en el Impuesto de Actividades Económicas para incorporar a nuestra normativa las adoptadas por el Estado. Y en esto quiero hacer una referencia al Informe Preliminar de Impacto de Género.

El Decreto Foral Normativo está exento porque el IVA, etc. no son competencias nuestras.

Pero el Impuesto de Actividades Económicas no está exento y en el informe se argumenta que estos cambios no tienen impacto de género. Pero, ¿la actualización de las tarifas de teléfono móvil tiene el mismo efecto en hombres y mujeres? No lo creo. En cualquier caso, debería estudiarse.

Y lo mismo puede ocurrir con nuevos grupos que pueden surgir (guías de montaña, compositores/as, escritores/as de canciones, creadores/as y adaptadores/as musicales, escritores/as, guionistas y otros/as profesionales relacionados/as con actividades artísticas y culturales). ¿Cuántas mujeres y cuántos hombres hay en estos grupos? ¿Existen diferencias? Seguro que sí. ¿La Diputación Foral de Bizkaia no tiene información sobre ello? No lo sé.

Pero el informe señala que “el contenido del artículo 9 hace imposible, a nuestro juicio, una evaluación del impacto diferenciado sobre la situación de mujeres y hombres, dado que dicho precepto carece de relevancia desde el punto de vista del género”. Yo creo que la tiene, otra cosa es si disponemos de todos los datos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

En cualquier caso, dado que no podemos votar los contenidos de forma diferenciada, y para reivindicar nuestra plena soberanía fiscal, como hemos hecho en ocasiones anteriores, nos hemos abstenido.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Para finalizar con el debate, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Arana Requena, tiene usted la palabra.

El Sr. **ARANA REQUENA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Zerga-neurriei buruzko zezeilaren 28ko 1/2023 Foru Dekretu Arauemaile honi jagokonez, esan dogun moduan, BEZagaz, Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergeagaz, Ez-egoiliarren Errentearen gaineko Zergeagaz eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergeagaz zerikusia dauka. Foru Aldundiak berresteko defendidu dau, eta gure taldeak aldeko botoa emon dau, beste batzuetan lez. Adierazo behar da gure Erkidegoak arautzen dauen Ekonomia Itunak ezarten dauela zerga horreek itundutako zergak dirala, eta Estaduak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberek arautuko dabezala.

Hainbat alderditan aitatu doguzan xedapen horreek lauzpabost gauza txikitxotan zentrau gura nebazan.

Lehenengo eta bat, zerikusia dauka 2019/2235 Zuzentarauak, EEren 2006ko Zuzentaraua eta 2008/118EE Zuzentaraua aldatzen dauzanak, guztiak Indar Armauakaz lotuta.

Bigarrenik, krisi garai honetan premina biziko produktuen BEZaren tipoa murriztea, esate baterako, tanpoiak, konpresak edo daborduko garatuta dagozan eta ezabatu diran abusuaren aurkako neurriak ebezan slip-babesak.

Hirugarrenik, zergearen araudiaren manu batzuk eguneratu dira, haren eukia harmonizetako eta Europako Erkidegoko aduana-araudira egokitzeko.

Laugarrena. Subjektu pasiboaren inbersino-mekanismoaren erregulazinoan aldaketak; plastikoaren eta ehun-materialaren hondakinen entregetan be aplikauko da, jagokozanak kanpo itxita.

Bosgarrena. Egokitzapen teknikoak dagoz salbuespenez bakarrik merkataritza elektronikoko eragiketak egiten dabezan enpresaburu edo profesionalentzako Europar Batasunaren barruko ondasunen urrutiko salmentak egiteko lekuari buruzko arauak zehatzago definidu daitezan.

Seigarrena: kreditu kobrauezinak berreskuratzeko alderdien aldaketak, Europar Batasunaren eremuari jagokonez.

Zazpigarrena. 2023ko zergaldirako luzapenak onartzea, azken hilebeteetan jazo diran BEZaren murrizketetan: maskara, oinarrizko produktuak, COVID proba diagnostikoak, etab.

Gero, aldaketa teknikoei eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergearen egokitzapenei buruzko gai oso bat dago. Mamina ikusita, Foru Dekretu Arauemaile honek

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zerga-legeria egungo egoerara egokitzen jarraitzen dau, Bizkaiko Lurralde Historikoko gure zerga-sistemara ezinbestean egokitu beharreko neurri fiskalak txertatzen dauzan ikuspegi sozialagaz.

Horregaitik, Foru Aldundiak Foru Dekretu Arauemaile hau emon behar dau, eta ahalmena dauka. Horregaitik guztiagaitik, eta segurtasun juridikoa bermatzeko, gure taldeak, Euzko Abertzaleak taldeak, Foru Dekretu Arauemailearen aldeko botoa emon dau. Muchas gracias.

Parkatu, nire azken berbaldia dan ezkero, Mahaiburu andrea, agur lez nire parkamenik zintzoenak adierazo gura neukez, nire jardunean ahaldun lez, urte honeetan baten bat mindu badot. Nire esker ona Batzar Nagusi honeetan behar egiten daben persona guztiei eta nigaz behar egin daben ahaldun guztiei. Bizkaiko herritarrak Legebiltzar honetan ordeztea, Euzko Abertzaleak taldeko kide lez, ohore bat izan da eta da niretzat.

Azkenik, Bizkaiko Legebiltzar honi lanez eta arrakastaz beteriko etorkizuna opa deutsat. Gogoratu eizue: Mendebaldeko Europa demokrazia liberaleko ugarte bat da, munduan Europa bakarra dago, hauskorra da, jagon daigun. Nire ustez, lurrean dagoan paradisu bakarra da.

Muchas gracias a todos y a todas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Arana. Ya tendremos ocasión de despedirnos.

El tercer punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Comisión especial de estudio (R.E.11/E/2021/0001616)
Autor: Otermin Eraso, Juan - Lekerikabeaskoa Arrillaga, Jesús (EAb/NV·SV/ES)
Asunto: COMISIÓN DE ESTUDIO sobre el Documento de trabajo denominado "Plan Estrategico del Transporte de Bizkaia 2018-2028".
Documento Principal: Ver,(R.E.11/E/2023/0000289),(R.E.11/E/2023/0000321),(R.E.11/E/2023/0000357)
Boletines: Admisión a trámite (4A), Acuerdo del Pleno (4B), Comisiones Especiales, Constitución y Composición (4C), Informe de la Comisión (4D), Votos Particulares (4E), Votos Particulares (4F)
Expediente: (11/B/32/0002339)

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Azterlan-batzorde berezia (11/E/2021/0001616SE)
Egilea: Otermin Eraso, Juan - Lekerikabeaskoa Arrillaga, Jesús (EAb/NV·SV/ES)
Gaia: "Bizkaiko Garraioaren Plan Estrategikoa 2018-2028" izeneko lan-dokumentuari buruzko AZTERLAN BATZORDEA
Dokumentu Nagusia: Ikusi,(11/E/2023/0000289SE),(11/E/2023/0000321SE),(11/E/2023/0000357SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea (4A), Plenoko Akordioak (4B), Batzorde bereziak, eraketea eta osaerea (4C), Batzordearen txostena (4D), Boto bereziak (4E), Boto bereziak (4F)
Espedientea: (11/B/32/0002339)

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Comenzaremos con el debate. Para ello, el representante del Grupo Mixto-Partido Popular, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Uste neban lehenengo lanaren aurkezpena egingo zala.

Lehenengo eta behin, ezin bestelan izan, eskerrak emon behar deutsadaz azterlan-batzordeari, batzordeburuari, egindako lanagaitik eta azterlan-batzorde horren zuzendaritzeagaitik. Batzorde horretan luze eta zabal aztertu doguz etorkizunean Bizkaiak izan behar dauen mobikortasunerako plan estrategiko baten gaiak. Uste dot danok lan egin dogula eta ahal genduana eta genkiana ekarri dogula, uste dot ikuspegi desbardinak emon dirala, hizlari sano onak ekarri dirala, eta ondorio eta azterlan sano landuetara eroan gaituela. Eta, esan dodan moduan, lehenengo eta behin, eskerrak emon gura deutsedaz Batzorde horretan parte hartu dogun guztioi, bai eta batzordeburuari be, batzordearen zuzendaritzeagaitik.

Azterlan garrantzitsu eta sendoa egin da, nire ustez, eta ez deutsagu aurka egingo, jakina. Izan be, uste dot azterlan horrek islatu egiten dauela berba egin dana, eta guk aurkeztu besterik ez dogu egin, eta, beraz, ez dogu ordezkapen-zuzenketarik aurkeztu, ezpada gehitzeko zuzenketak, boto partikularrak, gure ustez gehitu leitekezanak, eta lantalde horren ondorioak arean hobetuko leukiezanak, batzorde horreetan berba egin ziran gaiak diralako eta kanpoan geratu diralako, eta guk uste dogu sartu egin beharko liratekela.

Lehenengo boto partikularra zahartzeari laguntzeko politikak bultzatzea zan. Kontuan izan behar dogu Mobikortasun Plana dala, eta Mobikortasun Planak kontuan izan behar dau, goizeko lehen orduan adierazo dodan moduan, Bizkaiko biztanleria zahartzen ari dala. 2 urte barru biztanleen %50 50 urtetik gorakoa izango da, eta, gure ustez, Mobikortasun Plan osoak edadekoei garraio publikora sartzen laguntzeko neurriak hartu behar dauz, hobekuntza teknologikoak, komunikazino-hobekuntzak eta abar eginda, tira, Batzordean berba egiten ari izan garana.

Batzordean atera zan beste gai bat zan, bide-azpiegiturak hobetzeko ahalegina. Horri esker, esaterako, Bizkaibusek daborduko badaukaguzan azpiegituretan errei espezifiko batzuetatik zirkulau ahal izango leuke. Garraio publikoakaz, orokorrean Bizkaibusegaz, arazoa da trabatu egiten dirala goizero guztiok trabatzen garan errepide berberetan, eta hareentzat eta okupazino handiko ibilgailuentzat errei espezifikoak ezarteak, gure inguruko beste errepide batzuetan dagoan moduan, ba, erraztu egingo leuke garraio segurua, orduan eta garaiz heltzeko, eta, nire ustez, horrek asko hobetuko leuke jenteak garraio publikoa erabiltea, badakialako lekura garaiz helduko dala, ez daukalako arazorik izango gure errepideetan.

Beste boto partikular bat orain daukagun sistemetan, lizitazino-sisteman daukaguzan arazoetatik gertu egoan. Plan Estrategiko horretan, behingoz, garraio publikoaren lizitazino-sistemearen aldaketea sartzea eta behargin guztientzako lan-baldintza berberak bermatzea gura genduan. Enpresa bateko edo besteko behargin batzuek lan bera egiteagaitik desbardin kobretea, hori guztiz ulertezina da. Halanda ze, gure Plan Estrategikoan etorkizuneko plan bat lez sartu beharko geunke. Bertan, egindako lan beragaitik bardin kobrauko leukie guztiek. Eta irabazi edo galduko leukiezan bidaiarien kopuruaren arabera enpresa emokidadunak saritu edo zigortuko leukezan sistema bat sartu beharko geunke, egindako kilometroko ordainketea kenduta, horrek ez dau-eta ezer sustatzen. Hau da, emokida barriek, emokidadunek eurek egiten ari diran zerbitzua hobetzeko zeozer egin dagien saiatu behar gara, eta egin behar daben gitxieneko garraio-kopuru hori galtzen daben edo ez kontuan hartuta saritu edo zigortu daitezala; izan be, une honetan bardin jake persona gitxiago edo gehiago eroatea, eta horrek ez dau hobetzeko tarterik emoten.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Gure ustez, era berean, Plan Estrategiko horretan ibai-garraioa sartu behar da, kanpoan geratu da-eta. Itsasadarreko garraioari buruzko batzorde bat sortu da, itsasadarrean parte hartzen daben erakunde guztiena. Hontsu, itsasadarrean pantalanetarako 12 lizentzia emon dira, eta datozan urteetan ibai-garraioko sistema bat ezarriko da. Plan Estrategiko horretan jasota egon beharko leukela uste dogu.

Txosten baten arabera, itsasadarrean zehar joango litzateken garraio horrek urigune jakin batzukaz lotuta egon beharko leuke, eta, beraz, autobusak geraleku barri horreetan gelditu beharko leuke, itsasadarrean egingo diran 12 geltoki horreetan, bizikletentzat aparkalekuak egon beharko lirateke han, eta, tira, nire ustez etorkizuna dan sisteman integrauta egon beharko leuke. Itsasadarra garraio-sistema lez erabiliko da, bi aldeak eta Uribe Kosta Bilboko erdiguneagaz lotuta. Eta, era berean, uste dogu kanpoan geratu dala eta funtsezko atala dala.

Sistemea eta garraio, trenbide eta errepide bidezko bikoiztasuna saihesteagaz, nire ustez, danak zagoze bat. Ezin da izan Bizkaibuseko erreiak Metroa egiten ari dan toki berean eukitea; hori ezabatu egin behar da. Plan Estrategikoan hori ez dago argi, Bizkaibus bideratu behar danik Metroa heltzen ez dan beste toki batzuetara, eta ezin dogu linea bat goitik euki eta beste bat behetik.

Bizikleta-aparkaleku seguruak ezartea. Izan be, askotan berba egin dogu intermodaletan ezarri behar diran bizikleta-aparkalekuei buruz. Hori da gure eretxia, gaur goizean planteau dodan lez. Hau da, kontua ez da udalerri sakabanatuak eta luzeak alkarregaz lotzeko errepideak egitea; izan be, jenteak bere herritik bizikletaz heltzea gura dau, bizikleta elektrikoz, edo herrian daukazan bidegorriak, eta intermodalidade batera heltzea, bizikletea aparkaleku seguru baten ixtea, Bizkaibus bat hartzea, Bilbora heltzea, beste bizikleta bat hartzea eta zirkuletan jarraitzea. Gure ustez, hori jaso egin behar da.

Berbaldi batzuetan be luze egin zan berba jazoten ari dan eraldaketa digitalaren ondorioz dagozan hobekuntzen inguruan, datozan eta geratzeko datozan teknologia barri guztien inguruan, eta ez dot uste Plan Estrategiko horretan argi ixten danik eraldaketa horretara egokitu behar garala, erantsi behar diran hobekuntza barri horreetara.

Eta gero, gure alderdiak beti eskatzen dauen moduan, planen jarraipenari buruzko txostenak egitea. Plan Estrategiko bat egiten dan guztietan, guk uste dogu urtero gainbegiratu behar dala, azterlanak egin behar dirala, eta egutegi bat egin behar dala Plan hori zelan ezarriko dogun zehazteko. Azken baten, Plan hori hobetzeko proposamenak dira, eta, dinodan lez, ona da, Bizkaiarentzat ona da, eta proposamen horreek onartzea defendiduten dogu. Eskerrik asko.

La Sra. **VICEPRESIDENTA PRIMERA / LEHENENGO LEHENDAKARIORDE** andreak: Eskerrik asko, Andrade Aurrecoechea jauna. Elkarrekin Bizkaiaren txandea. Cabornero Alor andreak dauka berbea.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Tira, urtebete bete da 2018-2028 aldirako Bizkaiko Garraio Publikoaren Plan Estrategikoaren Azterlan Batzordea abian jarri zanetik. Plan horrek gure lurraldeko garraio publikoa berrantolatu gura dau, baina 4 urteko atzerapenagaz heldu da, 2016an jasotako datuetan oinarritu gura eban-eta, eta hainbat defizit garrantzitsu daukaz, eta horrek zeozelan berrikusi eta eguneratu beharra eskatzen deusku.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hilebete honeetan, taldeok proponiduta, garraio publikoan adituak diran personen berbaldiak entzun ahal izan doguz, eta Planean gaine-gainetik edo aitatu be egiten ez ziran funtsezko alderdiei ekiten eutseen. Egoera hori zuzentzeko, ondorioen txosten bat prestau da, eta, bertan, taldeok ekarpenak egin doguz, gomendioen atalean horreek kontuan hartu eitezan.

Elkarrekin Podemos-IUk bi proposamen erregistrau dauz. Lehenengoan, ezin bestelan izan, Planean genero-ikuspegia sartzea eskatu dogu, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arauaren 62. artikulua osorik kontuan hartuta, garraioari eta mobikortasunari jagokon zatia aitatzen dau-eta, gitxieneko batzuk beteteko bakarrik agertu beharrean, hasiera baten planteau zan moduan. Bide batez, eskerrak emon gura deutsedaz taldeek gure ekarpena onartu eta kontuan hartzeko ahalegina egin dabelako, eta gaur eztabaidagai dogun txostenean sartu dabelako.

Beste alde batetik, gure bigarren proposamena, nahi-ta garraio publikoko bi sistema izan, gaur egun sistema hori eraginkorra ez dan eskualdeen egoerea aztertzera eta onartzera bideratuta dago. Izan be, landa-eremuetan bizi eta behar egiten dogunok badakigu mobikortasuna dana gure herrietan konpondu beharreko arazo nagusietako bat. Izan be, uriguneetan, autoez gain, garraio publikoko sare garrantzitsua dago, baina landa-inguruneak garraio publikoko zerbitzu sano eskasa dauka.

Lehenik eta behin, autobus-lineak, eta kasurik onenean trena be, erdigunean uria daukan eredu erradial baten arabera diseinauta egoten dira. Horrelan, landa-eremuko biztanleoi urira joan eta ordutegi sano zurrun eta zehatzetan itzultzeko aukerea emoten jaku. Eta subertea euki ezkero, gure herria ondokoagaz konektau geinke, bidean harrapetan dauelako.

Garraio publiko barik, automobilagazko mendekotasunak gora egiten dau, eta horrek mobikortasuna mugatu egiten dau, eta sarbiderik ez daben edo ibilgailu propiorik izan gura ez daben kolektikboetako persona asko baztertu egiten dauz. Gazte asko eta asko, esaterako, familien mende dagoz joan-etorriak egiteko. Edadekoen kolektiboak be jasaten dauz mobikortasun-eredu baztertzailearen ondorioak. Ezin dogu ahaztu gure edadekoek biztanleriaren ehuneko sano esanguratsua dabena herrietan, baina mobikortasun-politikek ez dabe ia hareen beharrizanetan pentsetan.

Gazteak eta edadekoak lez, emakumeak dira auto bako edo mobikortasun-ohitura bereziak dabezan beste kolektiboetako bat, eta eskualde horreetan mobikortasun-gaiztasunei aurre egin behar deutsee. Edade ertaineko emakume askok ez daukie gidabaimenik, edo ez daukie ibilgailu propiorik. Garraio publikoa erabili ahal izango leukie, eta erabili egiten dabe, baina egiten dabezan jarduerak, horreetako asko, ez datoz bat garraio-eredu linealakaz.

Eta zer gertatzen da auto partikular bat izatea onartu ezin daben edo gaur egun gasolinea ordaindu ezin daben persona guztiakaz, esate baterako? Biztanleriaren egungo pobretze-joereak, erregai fosilen prezioaren igoereagaz batera, etorkizunean persona askok gure ibilgailu motordunak erabilteari itxiko deutsagula adierazoten dau.

Zer egingo dau Gobernu honek landa-ingurunean, zuzendu edo lortu ez badau mobiduteko beste modu batzuk sustatzea eta zuzentzea edo indartzea? Zenbat persona bizi dira inguru horreetan? 200.000, 300.000 bizkaitar? Zergak ordaintzen dabez, eta zerga horreetatik garraio publikoa danon artean ordaintzen dogu, baina ez dabe garraio bermatzaile eta eraginkorrik, ez errepidez, ez trenbidez.

Diskriminazino hori urteokaz ari da jazoten, eta zeozelan zuzendu beharko litzateke. Hara, gazte asko eta asko, berbarako, familien mende dagoz joan-etorriak

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

egiteko. 18 urte arteko neska-mutilek persona bat izan behar dabe eroateko eta ekarteko, eta horrek erabateko autonomia-faltea dakartse, edade horretan uriguneetako gazte gehienak laguntzeko beharrizan barik mobiduten ari diran bitartean.

Gurasoek seme-alabak eroateko eta jasoteko zereginaren kargea hartzen dabe, ez dago-eta hori egiten dauen garraio-zerbitzurik. 18 urte bete baizen laster, inguru horreetako gazteek, begiak itxita eta bi aldiz pentsau barik ekiten deutsie gidabaimena aterateari. Halanda ze, eremu horreetan erabateko mendekotasuna daben personen belaunaldiak hazten ari gara, garraiobide arriskutsu, insolidario, bidebako, alde ekonomikotik bideratuezina eta ingurumenaren aldetik jasanezina.

Beste alde batetik, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legeak ezarten dauenez, podere publikoek herritarren garraio-beharrizanak behar bezala asetzea sustatuko dabe lurralde osoan, eta arreta berezia jarriko dabe gizarte-kategoria kaltetuetan, bai eta urrun dagozan edo heltzeko gatxak diran eremuetan eta biztanleguneetan be. Eta hori, jaunok, gaur egun ez da beteten ari.

Horregaitik guztiagaitik, egungo beharrak islatuko ebazan azterlan bat egitea proponidu genduan. Ezezkoaren ondorioz, negozietan jarraitu genduan, eta, azkenean, esaldi txiki bat sartzea aurkeztu genduan; bertan preminak jaso ziran, edo zeozelan nabarmendu, edo txosten horretan islatu persona guztiek dabela mobikortasun duina, eraginkorra eta efizientea izateko eskubidea, edozein lekutan bizi dala be.

Eta, ba, zoritxarrez, badirudi, gaur ez badoa aurrera, bada, kanpoan geratuko dala.

Horregaitik, gure boto partikularra ekarri dogu gaur eztabaidara, horren inguruan gure ekarpena barriro aztertu daiten, eta ondorioen eta gomendioen txostenean berenberegi jaso daiten landa-inguruneetan edo inguru periferikoenetan bizi diran persona askoren egoerea.

Hori da dana. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Cabornero Alor. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo Moreno, tiene usted la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días. Buenos días a todos/as. Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Gaur Osoko Bilkura honetan Bizkaiko Lurralde Historikoko Garraioaren Plan Estrategikoari buruzko ebazpen-dokumentua aurkeztu dogu. Dokumentu honen oinarrian Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Zuzendaritzapean Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzeak enkargautako azterlan zabala eta osoa dago. Horrek Azterlan Batzorde bat eratzera eroan ginduzan, gure Erregelamentuan ezarritakoaren arabera. Batzorde horretan ekarpenak egin dira, eta era guztietako teknikari adituek, arduradun politikoek, gizarte zibileko alkarteek eta taldeok gura izan doguzan parte-hartzaile guztiek euren ideak, proposamenak eta esperientziak aurkeztu dabez.

Lan hori aspalditik datorrela esan dot, eta hainbat errazoigaitik aldatu egin da, besteak beste, azpiegitura barrien existentziagaitik, aurrerapen tekniko eta teknologikoakaitik, Covid-19aren pandemiagaitik eta Errusiak Ukraina inbadidu izanagaitik. Eta horrek, jakina, arabere gehiago eragin dau gaur hemen aurkeztu doguzan ondorioak

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

atzeratzeko orduan.

Plan estrategiko horrek lan handia eta denpora luzea eroan deusku ahaldunoi eta Plana egiteko be idea garrantzitsuen ekarpena egin daben Ganberako teknikariei be. Eskerren lehenengo zati honetan une batez gelditu gura dot, uste dot-eta justiziazkoa dala lan hau egin daben personei autortzea eta eskerrak emotea dokumentu honen ondorioak aterateko ezinbestekoak izan diran eretxi eta esperientziakaitik. Halanda ze, aurretik joatzuez autortzea eta ekarpenakaitik eskerrak, Eritz San Gurtubai, Susana Alarcón Fernández, José Alfonso Antequera Chávez, Ula Iruretagoiena Busturia, Jon Albizu Agirrezabalaga, Julián Fernández Sumiller, Iván Pedreira Lanchas, Xabi Elustondo González-Pinto eta Josu Ramírez Freire.

Persona gehiagok parte hartu dabe lanetan. Baina honeek izentau gura izan dodaz euren ezagutzakaitik eta euren konpromiso altruista eta desinteresaduagaitik. Dokumentu horren ondorioek datozan urteetako (hamarkadetakoa, esango neuke, esatera ausartuko nintzateke) Bizkaiko garraioaren lana eta estrategia markauko dabe, asmo handikoak diralako, baina, aldi berean, errealistak, eta etorkizunean garraio-politikea zeinek edo nortzuek zuzenduko daben alde batera itxita, Plan honetan adierazoten diran ondorioak eta gomendioak kontuan hartu beharko leukiez.

Hori dala eta, lehenengo adostasunetako bat “Bizkaiko Garraioaren Plan Estrategikoa 2035. urteari begira” izenekoa izan da. Sozialistontzat mobikortasun iraunkorra, eta ondorioz, garraio publikoa ondoizate-egoerearen zutabeetako bat da, gizarteagaz kohesinoa, eta ezinbestekoa da horri buruzko errealidade eta modernidade iraunkor bati ekitea, kontuan hartuko dauzana gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren efizientzia, genero-ikuspegia, garraio publiko kolektiboaren aldeko apustua egingo dauena ibilgailu pribaduaren aldean, lehentasuna emongo deutsana trenbideari, gainerako moduak baino gitxiago kutsatzen dauelako eta seguruagoa dalako, eta ingurumen-jasangarritasun handiagorantza aurrera egingo dauelako. Horregaitik, behin eta barriro, eten barik eta egonkor hobetu behar dogu, eta dokumentu hau erabilgarria eta beharrezkoa da.

Ondorio batzuk garatu gura dodaz, labur-labur bada be. Ondorio horreek agirian ixten dabe dokumentuak sakontzen dauzan gaien artean garrantzitsuena. Gai horreek hainbat eta hainbat batzordetan jorratu doguz, eta gure lurraldeko herritarrek urteak daroez eskatzen.

Bidaiarien mailea apurka-apurka handituko dauen tarifa-integrazinoa lortzea, hareen erabilerea erraztuta eta ikuspegi ekonomikotik errazagoa eta iraunkorragoa eginda, eredu eraginkorrago batega z. Eremuak sinplifiketea, 5etik 3ra murriztuta. Horrek operadore guztien ahalegina eragingo dau, tarifak eta ibilbideak lerrokatuta, interoperabilidadea eta intermodalidadea aplikauta, transbordoen ordainketea murriztuta, baita garraiobide desbardinen artean be. Batzar Nagusiek asmo sendoa dabe sistema iraunkorra, soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa garatzeko, zerbitzuaren estaldura-indizeak handitzeko helburuagaz.

Azterlanean jasoten dan beste gomendioetako bat garraio publikoa osotzen daben flotetan zero isuria lortzea da, eta Plan estrategiko hau onartzeagaz batera, konpromisoa hartu genduan 2030ean konpromiso hori errealidade bihurtu eiten.

Gure lurraldean funtsezko azpiegiturak bultzatzea, isurien eta eragin akustikoaren garraio garbiaren ardatz egituratzaile lez. Helburu hori sailen artekoa da, eta hori lantzen ari dira, bai Batzar Nagusietan, bai Aldundian. Hori erakusten dau gaurko Osoko Bilkurearen gai-zerrendako 1. puntuak.

Genero-politikak ezartea, emakumeen mobikortasun-ereduak

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

proponiduten dabezan aldaketak gure ekintzen erdigunean sustatuta, gure Lurralde Historikoko mobikortasunaren garapenean.

Tren-garraiobidea lehenestea, ekonomia eta ingurumen aldetik garraiobide jasangarriena dalako; ahalik eta ibilgailu pribadu gehien kentzea eta, aldi berean, garraio publikoaren erabilerea areagotzea. Garraio publikoaren gobernantzeari eta kudeaketeari buruzko azterlanean, Batzar Nagusi honeek ikusten dabe beharrezkoa dala gaur egun lurralde honetan garraio publikoan eskumenak dabezan erakundeak bateratzea. Nahi-ta biek daben euren eginkizuna, beharrezkoa da bateratzea. Beraz, egungo Bizkaiko Garraio Partzuergoa oinarritzat hartuta, figura juridiko bakar baten biltzea, Bizkaiko Mobikortasun Agintaritza izenagaz homologau eta modernizetako.

Sozialistok garraio publikoa sustatu gura dogu, eta hori erakusten ari gara Espainian, Euskadin eta hemen, Bizkaian, bidaiarientzako garraio publikoko tarifen murrizketeagaz, doakotasunagaz ez bada. Baina hori guztia ez da doakoa; herritar guztiok ordaintzen doguzan zergetatik ateraten da. Beraz, kontua da alderdi politiko bakotxak lehenesten dauzan ekintzei lehentasuna emotea eta baliabide gehiago eskaintzea. Eta gure ustez, mobikortasun iraunkorra lehentasun ukatuezina da. Horregaitik, esan dodan moduan, garrantzi handia dabe Plan estrategiko honen ondorio eta gomendioek, etorkizunerako garraio publiko iraunkorra antolatu eta mahai gainean jarri gura dauelako, baina ez da ez erraza ez doakoa izango. Hori lehenetsi beharko da etorkizun hurbileneko kudeatzaileen ekintza politikoan, hau da, hurrengo agintarien ekintza politikoan.

Azaldu barri deutsuedanez, Plan estrategiko hau bete-betea eta asmo handikoa da. Ganbera honetako talde guztiakaz lan egin da. Kontuan hartu dira Ikerketa Batzordean parte hartu daben adituen azalpenak eta Batzordeko lan-saio ugarietan eta egin gura izan diran ekarpenetan talde bakotxak sartzea komenigarritzat jo dauzanak.

Horregaitik, nire aurretik izan diran taldeen boto partikularrak ez dira egokitzat jo ondorioen dokumentuan sartzea, eta dokumentu hori gainerako taldeek onartu egin eben. Edo Osoko Bilkura honetan aurkezten doguzan ebazpenetan sartuta dagozala uste dogulako, edo horreek tratetako eskumenak hemen ez dagozala uste izan dalako, eta baita garaiz kanpokoa iruditzen jakulako be, esan dodan moduan, bilera eta batzorde askoren ondoren, Plan estrategiko honetan sartu ez diran alderdi zehatz-zehatzak foro honetara ekartea. Talde guztiak animau gura dodaz dokumentu honegaz bat egin dagien, Ganbera honetako ordezkaritzearen %84,3 ados dago-eta. Baina, benetan, %100ekoa izatea gustauko litxakit.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Jerónimo Moreno. El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

En primer lugar, quiero disculparme por haber salido antes tan precipitadamente. Ha sido una cuestión repentina, pero no ha sido nada grave. Entonces, muchas gracias de nuevo.

Para este punto relacionado con la movilidad también podría hacer prácticamente el mismo discurso que hemos hecho en el primer punto del Orden del Día de hoy, porque partimos de la misma base.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Estas conclusiones, este dictamen llega tarde, muy tarde. Hemos vuelto a perder toda la legislatura para sacar adelante conclusiones que hubiéramos podido fijar desde el principio, desde 2020. Lo que hubiéramos podido hacer más rápido, lo hemos retrasado hasta el último pleno de la legislatura.

Quiero recordar cuál era el título inicial de este Plan: “Plan Estratégico del Transporte Público de Bizkaia 2018-2028”.

Este plan tenía que estar terminado para 2018. Han pasado 5 años y lo que vamos a tener en este momento son las conclusiones de una comisión de estudio, pero el propio plan estratégico sigue siendo hoy una utopía.

Al final de la legislatura, lo que vemos es que los mayores logros del Departamento de Transportes serán las nuevas marquesinas y los “Bizipuntos”. Ese será el legado del señor Gómez-Viar.

Y teniendo la oportunidad de definir el transporte público de Bizkaia para los próximos 10 años, no entendemos cómo no han priorizado ustedes este objetivo. Una vez más, una oportunidad perdida.

Sin embargo, y una vez más EH Bildu ha decidido participar activamente para mejorar el texto con las conclusiones de la comisión de estudio.

EH Bilduren jarrerea argia izan da hasieratik. Parte-hartzea bai; eztabaidea eta analisia be bai, eta horregaitik, bere garaian, Azterlan Batzordea sortzearen alde bozkatu genduan, eta abisau genduan Bizkaiko garraio publikoa hobetzen lagunduko eben proposamenakaz joango ginala, eta badakizue, gainera, EH Bilduk egiten dauena dinoana, eta dinoana egiten dauena.

Eta halan izan da. Ezin konta ahala hobekuntza egin deutsaguz hasieran argitaratutako testuari, eta, ondoren, 12 alegazino erregistrau deutsaguz azken testuari. Nire ustez, zintzotasunez jokatu dogu lehenengo minututik. Negoziazino-mahaian esan genduan gure aldeko botoa emon ahal izateko onartu egin beharko zirala, edo negoziau, aurkeztutako testuaren hobekuntzen %80, eta uste dogu azkenean halan izan dala, aurkeztutako 12 alegazinoetatik 9 onartu eta/edo erdibidetu dira-eta. Halanda ze, beste behin, barriro, hasieran goizean esan dogun moduan, uste dogu eztabaidearen bidea egin dala, negoziazinoarena. Hori positiboa dala uste dogu, eta barriro be eskerrak emon gura deutsadaz Azterlan Batzordeko kide guztiek erakutsi daben prestasunari.

EH Bilduk bi helburu eukazan: lehenengoa, hizlarien bitartez azaldu ziran ondorio nagusiak biltzea, aurreko saioetara joan ziranak; eta, bigarrena, testuaren gomendioak eta ondorioak zehaztea, gauza jakinak eta orokortasunak saihestuta, ahal zan neurrian, eta Garraio Publikoaren Plan Estrategikoa hobetzeko termino eta kontzeptu zehatzagoak eta egokiagoak bilatuta. Eta uste dot lortu dogula helburu hori, goizean goiz esan dodan moduan, bizikleta-bideen LPSgaz. Testua hobetu egin dogu. Hemen be egoera bera dagoala uste dogu. Gure ustez, hobekuntza batzuk proponidu doguz, hemen esan dan moduan, etorkizunean bizkaitarren garraio publikoaren etorkizuna markauko daben gomendioei jagokenez, baina EH Bilduk garraio hori benetan hurbilekoa izatea espero dau, ahalik eta hurbilena.

Testuak garraioaren egungo egoereari buruzko hobekuntzak jaso dauz, garraio publikoaren emokiden eta multinazionalen bidezko kudeaketeari buruzko aitamenak ezabatu dira, errentagarritasun sozialeko parametroak sartu dira eta tarifen integrazinoari eta txartel bakarrari erreferentzia zuzena egin jake. Horretarako, erabiltzaileen errentak, egiten diran bidaien kopurua edo jatorriaren eta helmugearen araberako ibilbidea lako kontzeptuak sartu dira. Sinpletasuna, progresibotasuna eta multimodalidadea nabarmendu dira.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Tarifa-eremuen kopurua murriztea planteetan da, sinplifikauta eta homogeneizauta. Gaurko gai-zerrendako lehenengo puntuan be berba egin dogunagaz bat etorrita, kakoen egiturak modu irmean handitzearen aldeko apustua egin da, eta bizikletea barriro izentetan da, garraiobide mailea emonda, eta horrek, zalantza barik, intermodalidadean lagunduko dau beste garraiobide batzukaz eta BizkaiBizi alogatze-sistemeagaz.

Trenaren garraio-sistemea indartu egin da Bizkaiko garraio publikoaren ardatz egituratzaile lez, eta gure aurreko ekarpenagaz koherentziari eutsita, genero-ikuspegia be bermatu egin da. Plan osoaren plangintzan eta ebaluazinoan genero-politikak ezarriko dira, eta, horretarako, emakumeen mobikortasunaren ereduak jarriko dira azterlanaren erdigunean, garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak dira-eta, ez daigun ahaztu.

Amaitzeko, azpimarratu gura dot legegintzaldi honetan eten barik atzeratzen eta gelditzen ari diran proiektuen inguruan, ezinbestekoa dala urrats sendoak emotea, baina baita azkarrak eta bizkorrak be, eta, horrelan, etorkizuneko Bizkaiaren mobikortasuna definidutea. Bizkaian mobikortasun iraunkorragoa, garraio publiko gehiago eta ibilgailu pribadu gitxiago, metro-linea gehiago eta tunel gitxiago eta makroazpiegitura gitxiago, tarifa bidezkoagoak eta lehiakorragoak, txartel bakarraren bidez, intermodalidade handiagoagaz, oinez ibiltea edo pedalei eragitea lako modu iraunkorragoakaz. Eta, horretarako, gogoeta egin behar da, egin dogun moduan, eta ahalik eta lasterren neurriak hartu behar dira, eta hori egin daitela espero dot.

Desde EH Bildu reafirmamos nuestra apuesta por la consecución de estos objetivos y para ello consideramos imprescindible hacer un seguimiento de estas recomendaciones que hoy aprobamos. Esa será una de nuestras tareas de la próxima legislatura. Hacer un seguimiento de estas recomendaciones y solicitar desde el primer momento la publicación urgente del Plan Estratégico del Transporte Público. No podemos retrasarlo más.

Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. El representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as. Ha sido largo, ha durado mucho tiempo, pero hoy estamos ya realizando el estudio y estamos votando.

Heldu da Garraioaren Plan Estrategikoa izeneko lan-dokumentuaren Azterlan Batzordearen erespena aztertzen ari garan eguna. Erespen horren arabera, ondorio batzuk ezarten dira, eta gomendio batzuk emoten dira, eta Batzar Nagusi honeek garraio-sistema publikoaren ildo estrategikoak zeintzuk diran, edo nondik joan behar daben, hau da, gitxi gorabehera ze gai aldatu behar diran, ze eretxi daben berretsi baino ez dabe egiten gomendio horreek.

Eta Azterlan Batzordeak egin dauen lana alde batera itxita, nire ustez, daborduko bageunkan Ganberan ordezkaritzea daben talde politiko bakotxaren eretxia, eta idea hori aldez aurretik ezarrita ahal izan genduan, ez Garraio Plan Estrategiko bat edo estrategia zehatz bat zorrotz eztabaidatu dalako, ezta gaur egunera arte botorik emon dalako be, baina, egia esan, askotan azken urteotan, bai Osoko Bilkura honetan, bai Garraio Batzordean azaldu diran eztabaidetan, gure eretxia emoten joan gara, gai jakin batzuei jagokenez behintzat.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Danoi belarrira ondo emoten euskun terminoa erabili dogu, idea, kontzeptu eta erispide jakin batzuen alde agertu gara, gure ustez personen garraio publikoaren sistemearen hobekuntzea gidatu behar ebanaren inguruan.

Kalidadezko sistema bat daukagun arren, danoi ondo iruditu jakuz beti aspalditik garraio-sistemeak gizarte-kohesinoa bultzatu behar dauela dinoazan erreferentziak, hau da, gizartearen aldetik arduratsuak izan behar dauela, ingurumenaren aldetik arduratsua dan moduan. Danok agertu gara txartel bakarra egotearen alde, esan daigun, ibilbide beragaitik gauza bera ordaintzearen alde, erabilten ari dan modua gorabehera, intermodalidadea sustatzeko beharra eta erabiltzaileari bideratutako garraio-sistemea izatearen alde. Esan daigun, orokorrean, zehetasun zehatzetan sartu barik, horrelango ideen alde agertu garala, eta horreen gainean garraio-sisteman aldaketa jakin batzuk gidatzea egokia dala.

Bada, lehenengo eta bat, esan gura dodana da uste dodala ez gagozala hain urrun beharbada ahobatezkotasuna bilatzetik, idea horreek be identifikauta dagozalako Garraioaren Plan Estrategikoan beste era batera adierazota, beharbada. Garraioaren Plan Estrategikoa dokumentu bat da, eta, gure ustez, lan horrek balio handia dauka garraioaren kudeaketa estrategikoaren arduradunentzat eta estrategiari buruzko erabagiak hartu behar dabezenentzat, garraio-sistemeak nondik jo behar dauen egungoa hobetzeko.

6 ardatz estrategiko identifiketan dauz, eta horreetan oinarrituta taiutu behar da eredu hori edo lortu gura doguzan hobekuntza horreek, lortu gura doguzanak. Kontuan hartu beharreko ardatzak edo premisak dira garraioari buruzko edozein gairi heldu behar jakonean edo erabagi behar danean.

Eta identifikau eta aitatu egingo dodaz.

Plan Estrategikoan aitatzen da beharrezkoa dala eredu hori gizartearen ikuspegitik arduratsua izatea, eta garraio publikoa kolektibo guztientzat egokia izango dala bermatu behar dauela. Ezinbestekoa da alderdi ekonomikotik bideragarria izatea, inoiz ez dala autofinantzatuko onartuta, eta, ondorioz, haren eraginkortasuna eta efizientzia handiagotzen saiatu behar gara, jasangarria izan daiten.

Ingurumenagaz konprometiduta egon behar dau.

Kalidadezkoa eta erabiltzaileari zuzenduta egon behar dau.

Intermodalidade iraunkorra erraztu. Eta tren bidezko garraioaren ezaugarriak kontuan hartuta, esan daigun personak garraiatzeko gaitasun handiak dagozala, hori da-eta garraioaren ardatza, eta bilakaera teknologiko guztiak baliau behar dauz eraginkortasuna, zerbitzuaren kalidadea eta erabiltzaileen gogobetetasuna lortzeko.

Hori jasota dago dokumentuan, eta, egia esan, uste dot, orokorrean, idea horreekaz danok gentozala bat, eta, horregaitik eskatzen dogu agiri eta erespen hau onartuko dauen adostasuna, Ganbera honen ahal dan eta adostasun handiena izan daitela.

Azaldu da daborduko Azterlan Batzordea batzartu dala. Lehenengo eta bat, lan-plan bat ezarri zan, eta bertan aditu jakin batzuk konbidau ziran, ez bakarrik garraioaren kudeaketarako, ezta gitxiago be, ezpada mobikortasun iraunkorrerako be. Eta lan-saioetan, hain zuzen be bosgarrenean, idea garrantzitsuak sortu ziran, horreetako batzuk hasierako dokumentuan jatorriz aitatzen ez ziranak, genero-ikuspegia txertatzeko beharra, esaterako. Alderdi horreetako asko, beraz, erespen honetan jaso dauz Garraio Plan Estrategikoaren Azterlan Batzordeak, 2035. urteari begira, hain zuzen be. Hasierako berbaldia aldatu egin dabe Euskal Herria Bilduk egindako 9 proposamenek, eta Podemosek egindako beste batek, eta adostasun zabala izan dau, Batzordeko kide guztien arteko adostasun osoa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Negozietea aitatu da, ba, beharbada, gairen bat negoziau da, baina, egia esan, Bilduko bozeroaleari planteauko neuskio baten bat negoazieteaz gain, beste asko dagozala hasierako idazkerea benetan hobetu dabenak eta, ondorioz, erespen bat osotu dabenak, gure ustez, Ganbera honen gehiengo zabal batek onartu behar dauena.

Alderdi garrantzitsuak, beharbada hemen arean errepetidutea da. Gainerako parte-hartzaileek azaldu dabez, gainerako bozeroaleek. Kalidade handiko sistemea daukagu, baina alderdi batzuk gainbegiratu egin behar dira eraginkorragoa izan daiten.

Baliabideak optimizau behar doguz, eta herritarren eskaerei erantzuna emon behar deutsegu; horretarako, ondoizate eta kohesino sozial handiagoa bermatu eta sortuko dauen eskaintzea behar dogu; ustiapen eraginkorra behar dogu, gastu publikoa maila kontrolauetan mantenidu daitela eta, batez be, errentagarritasun sozialaren ikuspegitik koherentea izan daitela.

Garraio publikoaren erabilerea areagotzen lagunduko dauen tarifa-integrazinoa ezartea; horretarako, intermodalidadea erraztu daitela, ikuspegi ekonomikotik errazak eta iraunkorrak diran transbordoen bidez. Tarifek kontuan izan behar dabez ibilbideak, erabiltzaile batek egiten dauzan bidaia kopurua eta erabiltzaile horren errentea. Tarifa-eremuek sinpleagoak izan behar dabe, murriztu egin behar dira. Operadoreek, beraz, tarifa jakin batzuk lerrokatu behar dabez, baita ibilbide batzuk be, halan bajagoko.

Eta beharrezkoa da gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-sistema jasangarria izatea, zero isurietan aurrera egiteko ahalegina egin behar dogu, eta, jakina, bizikleteak garrantzi handia hartu behar dau beste garraiobide batek lez, horrelan hartu daitela aintzat, eta intermodalidade hori erraztu dagiala.

Genero-ikuspegia azaldu da, eta, lehen esan dodan moduan, trenaren bidezko garraioak ardatz egituratzailea izan behar dau.

Ondorioz, eta kontuan hartuta Ganbera honetako kideon jarrerak ez dagozala hain urrun, erespenaren alde bozkatzeko eskatzen dogu, eta, gero boto partikularrak zergaitik ez doguzan babestuko azalduko dot.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lerma Mentxaka. No va a intervenir el señor Andrade Aurrecoechea. La representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora Cabornero Alor.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) enkargau eban Plan Estrategikoaren arazoaren oinarria eta gaur hemen eztabaidatzen ari garan txostenaren zati baten arazoaren oinarria herritarrei mezu okerra helarazoten jakiela da. Planaren iraunkortasuna eta efizientzia bilatzen dira, baina, egia esan, Gobernu honen gomendioari erantzun gura deutsan plan bat da milioi batzuk euro aurrezteko, eta, ondoren, bide gehiagotan gastauko dogu, eta modu horretan ibilgailu pribaduaren erabilerea sustatuko dogu.

Herritar guztien preminei erantzungo deutseen garraio-zerbitzu publiko eraginkorrak izango dauzan mobikortasun eredu bati ekin beharrean, Aldundiak Plan honen bidez autobusak murrizteko eta lineak berrantolatzeko gomendio batzuk aurkeztu dauz,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

garraiobide alternatiboak dagozan eskualdeetan. Halanda be, ez da proponidu zerbitzu gitxiagoko eremuak edo alternatibarik ez dagoan eskualdeak sustatzea. Izan be, gaur egun, aldiriko trena, orokorrean, ezin da alternatiba lez hartu, bere zerbitzua sano-sano eskasa dalako.

BGPk agindutako azterlanak egoera horren zati bat islatzen dau, datu batzukaz, baina ez dau ezelako konponbiderik emoten. Ez orain, ez etorkizunean; txostenak be ez dau emoten. Txosten horretan aitatzen da trena lehenetsi behar dala, jakina baietz, baina esaidazu zelan lehenetsiko dogun bazterbideetan erabiltzaileak egunero botata ixten dauzan zerbitzua, C2 Muskiz-Bilbao linea, esaterako. Egunero, azken bi urteokaz. Zelan lehenetsiko da Feve trena? 90eko hamarkadan trenak Bilbo eta Balmaseda 53 minututan lotzen ebazan, eta gaur egun ordu bat eta 4 minutu behar dauz. Eta hori gitxi balitz, garai haretan agertzen eban puntualidadea, bada, iraganeko kontua da. Sano arraroa da garaiz heltzen dan trena, eta sano ohikoa da zerbitzuak kentzea, beharginik ez dagoalako edo beste errazoi batzukaitik.

Zer esan gura dau horrek? Bada, eremu horreetan bizi garan personen preminari erantzuteko garraio-sistema publikorik ez dagoan ezkero, ezinbestekoa dala ibilgailu pribadua erabiltea. Ondo etorri nekazaritza mundura, kotxe barik ez zara-eta ezer. Galdamesek ez dauka loturarik Enkarterriko gainerako eskualdeagaz. Bat be ez. Meatzaldeagaz bakarrik, Muskizetik. Sopuertako gazteek ez dabe Balmasedako institutu publikora joateako garraiorik, eskualdeko erreferentziazkoa dana. Ez dagoanez autobus-linearik, gurasoek eroan behar dabez egunero auto partikularretan.

Enkarterri lako eskualdeetan garraio publikoaren beharrak asko eta askotarikoak dira. Jakina, gaur egun ez dagoz bape pozik Bizkaibusegaz, eta arabere gitxiago Fevegaz edo aldiriko trenagaz. Eta badakigu, badakigu hondinokarren ez daukaguna ia eskumenik trenaren inguruan. Halanda be, azken urteotan errentagarritasun ekonomiko zalantzagarria daben eta gizartean eta dagozan trenbide-lineak hobetu eta optimizau beharrean ingurumenean eragin handia daben trenbide-linea barriak sustatu dozuez, AHT, esaterako, eta hori be ez da zuon eskumenekoa edo gure eskumenekoa.

Beste alde batetik, zuek iraunkortasunaz berba egiten dozuenean, ekonomiaz ari zariela emoten deust, jakina. Izan be, gehiegi gastetan ei dogu garraio publikoan. Ikusiko dogu autobus batzuk murriztu geinkezan, autobusak asko kutsatzen dau-eta, jakina. Ezin da izan, dirutza bat ixten ari gara, hau herritarren boltsikoetatik ateraten da. Jakina, gainjarteak dagoz, bikoizketak dagoz, hoba ez, errepide-azpiegituren bikoiztasunak Bizkaibuseko linea batzuetan jazoten diran eskari-gainjarteak baino askoz gitxiago kezkatzen gaituala emoten dau. Ezkerraldeko errepidean, Itsasadarrean, 634an, A-8 errepidea egin zan, Ballonti, eta, ondoren, Hegoaldeko Saihesbidea etorri zan. Orain, handitu egingo da, eta sano hurbil itsasadarpekoa helduko da.

Hara, mobikortasunaren plangintzearen helburu nagusiak ibilgailu pribaduaren erabilerea murriztea izan beharko leuke. Eta plan hau ez doa hortik, eta txostenak ia aitatu be ez dau egiten. Egia da txostenak aldaketa garrantzitsuak daukazana, eta horregaitik ez deutsagu kontra egingo.

Gure botoaren zentzuna abstentzinoa izango da, Planak berak zalantza ugari sortzen deuskuzalako, eta, era berean, zalantzak sortzen deuskuez gure taldeak garrantzitsutzat joten ebazan alderdi batzuk txertatzeko erabili diran erresistentziek, gaur planteau doguzanak, eta uste dot ez dala horreen alde bozkatuko.

Beraz, tira... Muchas gracias. Hori da dana.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

usted, señora Cabornero Alor. A continuación, el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo Moreno, tiene usted la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días de nuevo. Muchas gracias, presidenta.

Boto partikularrei jagokenez, lehenengo eta behin, eskerrak emon gura deutsadaz Andrade jaunari bere berbaereagaitik, boto partikular lez hona ekarri dauzan ekarpenakaitik, eta Batzordean daborduko irakurri doguzanak. Zuk be Batzordean behar egin dozulakoan nago. Benetan, nire ustez, alderdi batzuk ez dira sartzen eroan gura dozuzan zehaztasunagaitik, edo era honetako Plan Estrategiko baten eroan gura zenduzan alderdiak, ba, ez zirala posible uste genduan. Autobusen diseinuaz, lizitazino-sistemearen aldaketeaz, ibai-garraioaz, bikoiztasunak saihesteaz, autobus-erreiaz... ari nintzan. Nik be arretaz eta guraizanaz irakurri dodaz egin dozuzan ekarpenak, baina ezin ziran egin, eta, horregaitik, zure lana autortu gura deutsut, zure jarrerea autortu, eta dokumentuaren alde bozkatu daizula eskatu gura deutsut. Izan be, badakizu dokumentuak lan handia ekarri dauena, baita zure ekarpenakaz be, eta, beraz, uste dot merezidu dauela horrelango dokumentu batek zure taldearen adostasuna eta onespena izan dagiala.

Cabornero andreari eta Elkarrekin Bizkaia taldeari jagokenez, lehenengo eta behin esango deutsut hona zatozala eta gauza asko esaten dozuzala, baina Batzordean salgaien garraioari buruz berba egin eban teknikari bat jarri zenduan. Merkantzien inguruan, esan gura dot, tira, gauza bat da hona etortea, eta, ez dakit, diskurtsoa inolako zentzunik ez daben eukiez betetea; trenari buruz berba egitea, Galdamesi buruz berba egitea. Eta beste gauza bat da benetan hona etorri eta herritarrentzat baliagarriak diran gauzak egitea. Eta uste dot, zentzun horretan, egoereak..., hau da, zuk bi ekarpen egin dozuzala edo zure taldeak, parkatu, uste dot ekarpen bi egin deutsazala dokumentuari, orokorrean. Horreetatik %50 onartu dira. Bitik bat. Bestea zehatz-mehatz irakurri ezkero, 4. puntuan esaten ari zarana aitatzen da, eta kalifikazino-adjektibo txikiez harago, uste dot irmetasunez jasoten dauela dokumentuak garraio publikoa eta, batez be, tren bidezko garraio publikoa sustatzen dauzala. Horregaitik, uste dot... Lehenengo eta bat, dokumentua ez eban BGPk eskatu. Esan dodan moduan, dokumentua Bizkaiko Mobikortasun Agintaritzeak enkargau eban, eta BGPk gainbegiratu.

Edozelan be, iraunkortasun ekonomikoa izan dozu berbabide, ez? Orain bai, zalantzan jarten nozu, dokumentuak ez dau-eta iraunkortasun ekonomikoaz berba egiten. Iraunkortasun guztiaz berba egiten dau: ekonomikoaz, ingurumenaren ingurukoaz, etab.

Ez dot hasierako berbaldi osoa errepetiduko ia 7 minutu eta erdi emon dodaz-eta azalpen bat emoten, baina barriro dinot. Uste dot, ez dakit, uste dot irakurriko zenduala behintzat, baina dokumentuaren ondorioak barriro irakurri behar dozuz, ez dira-eta zuk hemen esan dozuzanak.

Bilduko jaunaren berbaldiari jagokonez..., erespenak dino berandu dala. Parkatu, Raúl Méndez jaunaren berbaldia; ez neban gogoratzen zure abizena oraintxe bertan, parkatu. Esan dot ez nentorrela ni diputaduaren kudeaketea defendiduten, baina, edozelan be, legegintzaldi honetan egindako lanak gogaitu egin zaituan lez, ahaztu egin jatzuz eskaeren araberako geldialdiak. Bide batez, Cabornero andrea, zuk be eragina izan zenduan, zerean dinot: eskaeren araberako geldialdiak, zero isuriko ibilgailuen sakontzea, hau da, beste linea batzuen sustapena. A! Eta Aldundian zuzenean kudeatzen dogun garraioaren %50eko doakotasuna, sano alderdi garrantzitsuak dirala uste dot, baina tira, kasu honetan EH Bilduren ekarpenaren garrantzia azpimarratuko dot.

Sano garrantzitsua izan dala uste dot. Nire ustez, dokumentuak onartu

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

badauz edo, parkatu, taldeok onartu badoguz egindako ekarpen asko, horrek esan gura dau dokumentua aberastu egin dala, era sakonean behar egin dogula esan gura dau, eta esan gura dau egin diran proposamenak errazoizkoak eta egokiak izan dirala.

Halanda ze, uste dot, edozelan be, gu pozteko modukoa dala, eta sinistu daigun, Méndez jaunak inoan lez, ez dala itxurakeria bat, baina, egia esan, jarraibidea marketan dau etorkizunean lurralde honetako garraio publikoak horri buruzko gogo bat euki dagian, barriro dinot, ez dot errepetiduko, baina hau da, trenbide-garraioa sustatu daitela eta urietako garraio pribaduan autoa gitxitu. Azken finean, ekarpen ugari, eta ez dot gehiago esan gura.

Edozelan be, eta amaitzeko, Ganbera honetako talde politiko guztiei eskerrak emon gura deutsedaz egin daben lanagaitik. Era berean, barriro dinot, eskerrak emon gura deutsedaz Erakunde honetako teknikariei euren laguntzeagaitik eta egindako lanagaitik, esango neuke sano ona eta ezinbestekoa izan dalako hori horrelan izan daiten, eta baita lagundu daben gainerako teknikari eta adituei be. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Jerónimo Moreno. El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Antes no he mencionado nada; entonces, comenzaré con los votos particulares, porque no hemos explicado cuál será la postura de nuestro grupo en esto.

El Partido Popular recoge todas las alegaciones vertidas en la Comisión, o la mayoría, y aunque compartimos algunas, actuamos en contra de otras en dicha comisión, por lo que nuestra posición no puede ser favorable y votaremos en contra.

Y con el voto particular de Elkarrekin Bizkaia, ya mencionado aquí, entendemos que en parte, en gran parte está recogido en los acuerdos que hemos transaccionado, y en este caso nos abstendremos para no entorpecer esa vía, por si acaso. Y con el dictamen, qué decir, que votaremos favorablemente, por supuesto.

Repetiré un poco las palabras que he dicho en mi anterior cita, porque igual no se han entendido muy bien.

Barriro dinogu, eta uste dogu, gure eretxian, larregi atzeratu dala hondino aurkezpena, eta Bizkaiko Garraio Publikoaren Plan Estrategikoa utopia dala esan dot. Batzorde horrek berak askoz arinago egin ahal ebazan bi gauzak, eta hori bistakoa da, baina horrek ez dau esan gura ondorioen dokumentu on baten aurrean ez gagozanik, dokumentu positibo baten aurrean. Gauza batek ez dau bestea kentzen.

Datozan hamarkadetarako norabidea markau leikela aitatu da hemen, eta horregaz bat etorri geintekez, baina hori baizen garrantzitsua edo gehiago da, zera, gure ustez, ezinbestekoa dala ondorio horreek albait arinen apliketea. Ez da beste hamarkada bat itxaron behar horreek apliketako. Ahal bada, bihartik aurrera. Ez da hurrengo legegintzaldira arte itxaron behar horretarako. Izan be, une honetan helburu nagusia adostasuna bilatzea izan leitekela iruditu jaku, eta esan lei hori ez dala emongo, nahi-ta amaiera ona izan, baina, gure ustez, lehentasunezko helburua izan behar dau behin hori eginda eta erespen hau onartuta, ahalik eta arinen apliketea. Horrek izan behar dau benetako helburua, eta hori, zuzenean, egia da, ez dago gure esku. Behintzat Garraio eta Mobikortasun Jasangarriaren Sailaren konpromisoa eta dedikazinoa behar dira, eta ezinbestekoa izango da aktibau daizala.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Diputadua ez dodala kritikau gura izan be badinotsut. Bakarrik esan gura izan deutsat, gure eretxiz, hurrengo hamarkadetarako eta legegintzaldi honetatik kanpo itxi dauela garrantzitsua dana, estrategikoa dana, mobikortasun-parametroak definiduko ebazana, zuok esan dozuen moduan. Eta hori begi-bistakoa da Gómez Viar jaunak be ez dauzana asmatu eskarien araberako geldialdiak eta garraioko deskontuak, hau da, batzar honeetan egin diran proposamenei esker aplikau doguz. Eta berak gauzatu egin dau, hemen gagozan taldeok agindu baten bidez egin deutsagulako. Baina hemendik animetan dot, ez dot kritiketan, ezpada animau egiten dot Gómez Viar diputadua, legealdia amaitu orduko norabide horretan urratsak emon daizan. Ulertzen dot hondino ez dagoala amaituta, eta uste dot badakiala EH Bilduren babesa daukana horretarako. Aldundiaren jauregian egongo zaran azken egunera arte. Eta barriro aurkezten bazara, aurrera egiteko laguntzea izaten jarraituko dozu.

Baina uste dogu aurrera egiteko garaiz gabilzala, eta uste dogu azken esprint hori aprobetxau behar dogula, behintzat Sailak ikusi dagian erespen hau aintzat hartzen dala eta errazago aplikau leitekezan gauzak ikusten hasi daitezan.

Planak zalantzak sortzen ete dauzan planteau da. Zalantzak sortzen deuskuz, jakina, zalantza asko. Asko apliketako orduan, guri ez bajaku tokauko be, baina, era berean, erronka bat dala uste dogu. Gure eretxian, apustu bat da, eta horixe aukeratu dau EH Bilduk. Bai bizikleta-bideen LPSn, bai Plan honetan, partaide izaten eta bi kasuetan Lurralde honen mobikortasun iraunkorraren aldeko lanerako prestasuna erakusten saiatu gara. Eta, nire ustez, argi geratzen ari da horixe dala EH Bilduren jarrerea, hasiera-hasieratik inpliketea, alde batera jarri barik. Prozesu hori arintzeak kakoa izan behar dau, jarrera baten edo geldialdi egoera baten jarraitu ez daigun, eta ezarterakoan ez daiten atzerapenik egon. Uste dogu garaia dala benetako urratsak emoteko, modu errealistan, konpromisoakaz, emoierak ahalik eta epe laburrenean ikusi ahal izan daiguzan.

Eta lau puntuko laburpen bat eginda amaitu gura dot. Gure ustez, proposamen horreetatik hasi geintekez eta horreek lehenetsi beharko geunkez. Eta nahiko errazak dira. Txartel bakarra sortzea bultzatzen daben proposamenak egin doguz. Bada aurrera egiteko garaia.

Bizikletea sartzeko eta goratzeko proposamenak egin doguz, hori zan-eta ikerketa honetan ahaztuta geratu zana. Azterlanean sartzeko ordua da.

Aldundiak daukan araudia beteteko proposamenak egin doguz, baina ez bakarrik bete daiten, ezpada Plan osoan genero-ikuspegia kontuan hartu eta hobetu daiten. Barriro dinot, emakumeak garraio publikoaren erabiltzaileen %60 baino gehiago dira.

Eta egungo garraio publikoaren sistemea optimizetako eta hobetzeko proposamenak egin doguz, sistema horren benetako kudeaketa publikoa bermatzeko.

Hortik hasi geintekez. Hori da emon gura deutsagun bultzadea, eta kontau eizue EH Bildugaz horretan beharrean aritzeko.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. A continuación, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Lerma Mentxaka, tiene usted la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Eta, tira, proposamenak, boto partikularrak baztertzeko errazoia azaltzeagaitik, labur-labur.

Talde Mistoak, Alderdi Popularrak egindako proposamenei jagokenez, gure ikuspuntuaren arabera, arazoa da hainbat kontu sartu dirala edo sartu daitezala proponidu dauela, eta gure ustez ez dira plan estrategiko baten helburu, edo Batzar Nagusi lez egiten ari garan balorazioarenak, hau da, garraio-sistemea hobetzeko plan estrategiko baten kakoei eta ardatz nagusi horreei jagokenez.

Hau da, esan gura dot gai asko planteau dozuzala, beharbada egunean-egunean konponduko diranak, eta, gure ustez, ez dira estrategia-dokumentu baten sartu behar. Berbarako, gure edadekoentzako arretea; izan be, garraioa kudeatzen ari danak, operadore bakotxak hainbat erabagi hartu beharko dauz egunean-egunean, baina ez dogu uste estrategiari buruzko dokumentu baten kontuan hartu beharrekoa danik. Egutegi bat ezartea, hau da, Batzar Nagusiak lako legegileei kontuak emotea, ba, Batzar Nagusiok geu joango gara eskatzen hori, operadore bakotxak onartzen dan Plan Estrategikoa beteteko behar dauzan jarduerak garatu eta gauzatu ahala.

Eta zalantzak sortzen deuskuezan beste batzuk be badagoz. Hau da, esan daigun, jatorrizko berbaldiaren gainean egindako aldaketetako batzuen helburua izan da, erespenaren ikuspuntutik, zehetasunak saihestea, talde politikoen arteko desbardintasunak eragin leikiezan zehetasunak saihestea, horreen ondorioz, ahalik eta adostasun zabalena bilatzeko aukerea murriztu leitekelako.

Eta, alde horretatik, zalantza ugari sortzen deuskuezan gai batzuk be badagoz; esaterako, ibai-garraioari erreferentzia egin beharra, baina hondino ez dago martxan Bilboko itsasadarrean, nahi-ta horrelango jardueren inguruan egon leitekezan eskaeren inguruko burokraziak ezabatzeko akordioak egon diran. Egunerokotasunaren kontua be bada, eta aldatu leiteke, aldatzen joan daiteke. Horregaitik uste dogu ekarpen horreek ez dirala sartzen estrategiari buruzko eretxiari jagokon dokumentu baten.

Eta Elkarrekin Bizkaiako bozeroalearen planteamentuak…, ba, egia esan, ez nator bat berbaldiagaz, edo ez dot ulertzen, ez dot ulertzen ezta berbaldia bera be. Gai batzuetan ia esan beharko litzateke ez dakidala zer esan gura dauen be. Hau da, gastuaren murrizketea helburutzat hartzeari buruzko aitamenen bat egin dozu. Hori ez da egia, arabere gehiago, jatorrizko testuan Euskal Herria Bilduk egindako ekarpenen ondorioz erreferentzia jakin batzuk ezabatu egin dira. Esaterako, jatorrian ahal dan neurrian gastu publikoa ez handitzea aitatzen zan, kontrolauta geratzea, eta une honetan, berez, dokumentuan zenbateko jasangarrietan edo jasangarritasunaren barruan gastu publikoari eutsi behar jakola aitatzen da. Gai hori ezin dogu orain zehaztu, inork ezin dau jakin zenbateko ekonomikoak zeintzuk diran, baina, zalantza barik, zifrak aldatzen doaz. Garrantzitsuena iraunkortasun jakin bat egotea da; izan be, duda barik, bidaiarien garraio publikoaren sistemea ez da autofinantzetan, eta ez da inoiz autofinantzauko. Administrazinoek ekarpenak egingo dabez beti, horren finantzaketea lortzeko.

Ez dakit. Nire ustez, Plan Estrategikoaren lehen dokumentu bat zer dan aitatu eta balorau beharrean, eta, era berean proponiduten ari garan eretxiak Batzar Nagusien eretxi lez emon beharrean, ba bai, kexa batzuk aitatu dozuz Bizkaiko eremu geografiko baten operadore edo zerbitzu jakin batzuen egoereari buruz. Baina beste barik. Hemen uste dot kontua dala Elkarrekin Bizkaiak bere eretxia emon behar dauela. Identifikau eta adierazo egin behar dau ea ados dagoan txartel bakarra bilatzeagaz, erabiltzaileak ordaindu behar dauzan prezioak egiten dauzan bidaia-kopuruaren eta erabiltzaileak daukan errentearen araberakoak izateagaz, intermodalidadea bultzatu behar ete dan, horretarako transbordoak errazagoak eta sinpleagoak izan behar ete diran, herritarrentzat ekonomiaren ikuspuntutik penalizatzaileak izan barik. Tarifan zona-kopurua murrizteagaz ados dagoan zehaztu behar dau. Horrek,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zalantza barik, une honetan Bilboko erdigunetik urrunen dagozan eremuetan dagozanek tarifa merkeagoak eskuratzea ekarriko dau. Bizikletea intermodalidadea erraztuko dauen funtsezko garraiobidetzat joten ete dauen erabagi behar dau.

Muchas gracias, y perdón.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Perdón, señor Lerma Mentxaka, vaya finalizando.

Muchas gracias a usted, señor Lerma Mentxaka. Y una vez finalizado el debate, en primer lugar, debemos someter a votación los votos particulares. En primer lugar, sometemos a votación el voto particular presentado por el Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia. Por lo tanto, podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 50 votos. Han sido 2 a favor; han sido 42 en contra, y ha habido 6 abstenciones. Por lo tanto, no se ha aprobado el voto particular presentado por el Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia.

Y a continuación, someteremos a votación el voto particular presentado por el grupo Elkarrekin Bizkaia. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 50 votos. Han sido 6 a favor; han sido 35 en contra; ha habido 9 abstenciones. Por lo tanto, no se ha aprobado el voto particular presentado por el grupo Elkarrekin Bizkaia.

Y a continuación, sometemos a votación el informe. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 49 votos. Han sido 41 a favor, no ha habido votos en contra y 8 abstenciones. Por lo tanto, queda aprobado el informe.

A continuación, el punto cuarto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación (R.E.11/E/2023/0000335)
Autor: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)
Asunto: Reforma fiscal
Documento Principal: (R.E.11/E/2023/0000335)
Boletines: Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas (76A)
Expediente: (11/B/20/0004232)

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa (11/E/2023/0000335SE)
Egilea: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)
Gaia: Zerga erreforma
Dokumentu Nagusia: (11/E/2023/0000335SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (76A)
Espedientea: (11/B/20/0004232)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo a todos/as.

En el pasado Pleno de Control, en relación con la intención de acometer la reforma fiscal expresada por PNV y PSE, formulé una interpelación al señor José María Iruarrizaga Artaraz, Diputado de Hacienda y Finanzas, sobre el contenido y forma de la posible Reforma Tributaria. Y como consecuencia de ello, hoy debatiremos la Moción.

En la nota publicada por PNV y PSE se decía que el punto de partida es la buena valoración que se da a la reforma de 2013 y a los ajustes que se hicieron en 2018.

Tanto el Diputado señor Iruarrizaga Artaraz como el Diputado General, señor Rementeria Maiz, confirmaron esta buena valoración en el pasado Pleno de Control.

Una buena valoración por el aumento de los ingresos.

Pero el balance de las reformas acometidas sigue sin hacerse. Y el balance no es solo decir, “hemos conseguido más ingresos, así que vamos bien”. Hay que analizar, por un lado, cómo se recauda ese dinero y habrá que analizar la eficacia de las medidas que se han tomado. Es decir, hasta qué punto se ha cumplido el objetivo que debía cumplirse.

Por ello, en el primer punto de nuestra moción planteamos:

1. Las Juntas Generales de Bizkaia instan al Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi a que concluya el balance de las reformas fiscales aprobadas durante los años 2013 y 2018 antes de la constitución de las próximas Juntas Generales.

Es decir, hasta junio. Ya hay tiempo.

Horregaitik dinot, nire eretxian, zuon berbaldiak trikimailua dirala. Otermin jaunak esan deusku, berbaz berba, kutxan diru gehiago sartzea dala kontua. Aizu, baina zuk zer uste dozu, zergak zerutik datozala? Eta, gainera, aitatu dozu okerren dagoanari laguntzea dala kontua. Elikagaiek %15 egin dabe gora, %15. BEZa, zerga oso progresiboa al da? Hori al da okerren pasetan ari danari laguntzea? Izan be, hori izaten ari da zuon politikea. Halanda ze, euki eizu behintzat errespetu arean.

Eta ELGAren hazkundeei buruz berba egin deuskuzu. Ba al dakizue zer egiten dozuen zuok? Hori goma bat lez luzatu. Izan be, horretan be nahiko bereziak zarie. Espainiako Gobernuaren hazkunde-aurreikuspena %2koa da 2023rako, %1,3ra jatsi zenduen zemendian, eta orain %1,6an dagoala esan deuskuzue; aurreikuspena %2koa zan. Europar Batasuneko azkenak, hondinokarren ez daukagu 2019ko Barne Produktu Gordina. Azkenak, eta datu horreek egiaztauta dagoz.

Zergak herritarrok ordaintzen doguz, eta zuek dirua biltzeko gogoa baino ez daukazue, eta horrek askotan jarduera ekonomikoa baretzea dakar ondorio lez. Herritarren errentak murriztu egiten dira, jakina, euren ahaleginaren, talentuaren, aurrezkiaren eta produktibidadearen ondorio diranak. Eta, jakina, zergek beste kostu batzuk be sartzen dabez, askotan jarduera ekonomikoa jastea eragiten dabenak. Eta hori da zuek, orokorrean, ez dozuena inoiz neurtzen. Nire ustez, ez litzateke harritzekoa presino fiskal handi batek enpresa barrien sorrerea murriztea, eta enpresen merkaturatzea be azkartzea, eta, jakina, eragin kaltegarria euki leike lan-produktibidadean eta soldatetan.

Alderdi Popularraren eretxian, askotan esan dot eta barriro dinot: zerga-erreforma batek, fiskalidadeak edo zerga-bilketearen gehikuntzeak zerga-oinarrien hazkundeagaz lagunduta joan behar dabe beti, hazkunde ekonomikoa eta enpleo-sorrerea sustatuta, zerga-karga handia jasaten daben zergadun partikularren edo enpresen gaineko tasa marjinalak handitu baino gehiago.

Halanda ze, Alderdi Popularraren ustez, edozein zerga-erreforma 3 norabidetan bideratu beharra dago: karga fiskala murriztu, zerga-sistemea modernizau eta jarduera ekonomikoa suspertu. Eta ez da beharrezkoa zergen progresibotasuna gehitzea, hori bermatuta dago-eta Espainiako Konstituzinoan, eta progresiboa ez dan edozer gauza Konstituzinoaren aurkakoa litzateke. Beraz, nik uste dot hemen egin dan ariketea atxakia ugari jarteko ariketa bat dala, ez gagoz orain une aproposean, hilebete honeetan hauteskundeak izango doguzalako, baina argi dago zuok guztiok daukazuen asmoa dala bizkaitar guztiei, euskaldun guztiei eta espainiar guztiei presino fiskala areagotzen jarraitzea.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Martínez Fernández. La representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, Lekerikabeaskoa jaunari erantzuten hasita; esango deutsut zertan ez dozuen bete, irakurriko dot: “EAJ/PNVren eta PSEren arteko akordio programatikoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019/2023ko akordio programatikoa. Azken zerga-erreformearen eragina

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ebaluetea, hartutako neurrien norainokoa aztertuta, eta, halan bajagoko, beharrezko egokitzapenak proponidutea, ekidadearen eta progresibotasunaren printzipioetan oinarrituta, gure zerbitzu publikoak manteniduten dirala ziurtatzeko". Legealdia amaitzera doa, eta hori ez dozue bete.

Jarraituko dot. "Progresibotasunaren eta ekidade fiskalaren printzipioak apliketea, gehien daukienek gehiago ordaindu dagien". Hori ez da 4 urteko legegintzaldian jazo; izan be, askotan proponidu dogu, eta guztietan ezetz bozkatu dozue, eta hori Gobernu Akordioan egoan. Esan gura dot, ez dakit, uste dot gaur dala momentua, benetan dinot, uste dot badagoala akordioa, hau da, benetan, uste dot badagoala adostasuna, hasieran esan dot. Eta, gainera, garrantzitsua iruditzen jat egotea, lehenengo eta bat behar bat dagoalako, beharra dagoalako, errealidade soziala esaten ari jakulako erreforma fiskala egin behar dala. Ados, seguru nago gutako bakotxak gure modua eta erea daukagula zerga-erreforma hori zelan egiten dan ulertzeko; danok gatoz eta etorri gara hona gure proposamenakaz.

Ados, baina bat al gatoz erreforma fiskala egin behar izateagaz, bai ala ez? Dinot, ez dakidalako; hona etorri geintekez, Alderdi Popularraren bozeroalea be etorri dan moduan, eta proselitismo apur bat egiten dogu gure proposamenei buruz. Baina kontua ez da hori. Kontua da ikustea zergaitik gaur, Alderdi Jeltzalearen eta Alderdi Sozialistearen terminoetan idatzita dagoan oinarri-oinarrizkoa dan gai baten, ez garan gai akordio batera heltzeko, oinarrizko gaietan, de facto, bat gatozala esaten ari garanean. Erreforma fiskala egin behar da, progresibidadearen terminoakaz danok gatoz bat, Bizkaiak gaur egun daukazan erronkei aurre egin behar jakela, danok gatoz bat. Hori esaten ari gara gaur hemen. Bat gatoz eragile sozial eta sindikalek parte hartzen daben zeozer izan behar dauela, lau akordio daukaguz, baina ez dogu onartuko. Nik, benetan, hau da, zalantzan jarten dot ea Foru Gobernu honek benetan konpromisorik daukan erreforma fiskal hori egiteko edo ez, legegintzaldi hau amaitzear egotetik harago. Baina, ba al dago konpromisorik edo ez dago konpromisorik? Edo publizidade iragarki bat baino ez da, hauteskundeak datozan bakotxean barriro hasten dan hori? Hartu daigun seriotasun apur batega, gaur eztabaida honetan barregarri geratzen ari garala uste dot-eta.

Halanda ze, ez dakit, lau akordio posible dagoz, Urkaregi andrearen proposamenean sano argi azalduta dagoz, ez dakit. Izan be, zureak mamina kentzen deutso, "hala badagokio". Halan bajagoko, zer? Zuen kasuan, hori ez egitea da, hori da proponiduten ari zariena. Hau da, nik uste dot hona etorri behar zariela erreforma fiskal hori beharrezkoa dala defendiduten, eta errealidade sozialak erreforma fiskal hori egitea eskatzen dauela. Beraz, pentsau daigun danok botoa emon aurretik. Hau da, beharrezkoak diran oinarrizko lau akordio daukaguzalako; 4 urtean ez gara gai izan akordiora heltzeko. Gaur gai gara azken ohiko Osoko Bilkuran heltzeko, eta trena pasetan itxiko dogu. Niri barregarria iruditzen jat gaur hemen jazoten ari dana.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín.

Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido 47 votos en total. Han sido 14 a favor, 33 en contra, no ha habido ninguna abstención. Por lo tanto, no se ha aprobado la moción.

El punto quinto del Orden del Día.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación (R.E.11/E/2023/0000337)
Autor: Lobato Pascual, Emilio (EB)
Asunto: La creación de un Bono Transporte Bizkaia
Documento Principal: (R.E.11/E/2023/0000337)
Boletines: Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas (77A)
Expediente: (11/B/20/0004234)

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa (11/E/2023/0000337SE)
Egilea: Lobato Pascual, Emilio (EB)
Gaia: Bizkaian garraio-bonoa sortzea
Dokumentu Nagusia: (11/E/2023/0000337SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (77A)
Espedientea: (11/B/20/0004234)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señor Lobato Pascual, tiene usted la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Orain dala hilebete, hain zuzen be, itaun bat eztabaidatzeko ekarri neban eta bertan Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaian garraio publikoa sustatzeko ze proposamen garatzea pentsau eban galdetu gura geuntsan Garraioko eta Mobikortasun Jasangarriko diputaduari. Eretxi-truke horren ondorioz, gaur bertan Ganbera honetara proposamen bat ekarri dogu bultzada bat emoten saiatzeko, ez dakigu behin betikoa izango dan, baina bai bultzada garrantzitsu bat ingurumenaren aldetik jasangarria eta ikuspegi ekonomikotik guztion eskura egongo dan mobikortasun publiko baterantza, herritarren preminen eta hainbat forotan erakundeek hartutako ingurumen-konpromisoen arabera.

Itaunaren berbaldian, Garraio, Mobikortasun eta Uri Agenda Ministerioak garatu dauen kanpaina bat aitatu neban. Kanpaina horretan, Estaduko Gobernuko kideek argi ixten eben “garraio publikoak faltan asmetan zaitu” kanpainaren ardatza zan esaldian: “egizu topo barriro zerbitzu arin, ekonomiko, seguru eta ibilgailuak baino 3 bider gitxiago kutsatzen dauenagaz”.

Era berean, berbaldi haretan esan neutsuen Ministerioak 12 puntu aitatzen ebazala kanpaina horretan bertan, eta herritarrek garraio publiko hori ez erabiltea ekarri leikiela. Adierazo neban 12 puntu horreetatik, ni geratuko nintzala…, azpimarratuko neukezala horreetako 2, nire ustez, funtsezkoak izan leitekezalako adierazoten ari natxatzuen helburuari begira, 3 eta 11 puntuak dira.

11. puntua itaunean azaldu neban, eta 3. puntuan zentrau gura neuke, hau da, gaur eztabaidagai dogun proposamenagaz lotura zehatzena daukan puntuan. 3. puntuak honako hau dino, kakotxak zabalduko dodaz: “garestia iruditzen jat hileko abonuaren prezioa”. Kakotxak itxiko dodaz. Orain dala hilebete esan neban, eta barriro errepetiduko dot, nire jarrerea argi geratu daiten. Garraio publikoa garestia da, eta legegintzaldi honetan Ganbera honetan bertan egin dodazan berbaldiak arean jarraitu badozuez, ez zindukeze harritu behar, askotan errepetidu dodalako. Hainbatetan esan dodan moduan, kontuan hartzen badogu kide

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kopuruari jagokonez familia nahiko normal bat (aita, ama eta bi seme-alaba izan leitekez), eta familia horrek berak garraio publikoaren aldeko apustua egin badau joan-etorrietarako, familia tipo horrek jagokozan ordainketak ordaintzeak dakarren gastua bere hileko diru-sarrerakaz alderatuta guztiz desproportzionala da. Familia horri askotan merkeago aterako jako ibilgailu pribaduan egitea joan-etorriak garraio publikoan baino, batez be joan-etorri laburretako ibilbideak kontuan hartzen badoguz, beste nozonoz esan dodan moduan. Erakundeok ezin dogu hori onartu, garraio publikoa sustatzeari buruzko eztabaidea hondatu egiten jakulako. Ezin deutsagu familiari eskatu garraio publikoa erabiltea horrelango kasuak jazoten diranean, tarifa-politikea aldatzen ez badogu.

Jakina, inori ez jako dirua sobran geratzen, arabere gitxiago garai honeetan, eta erakundeok herritarren ondoizaterako oinarriak ezarri behar doguz, eta horretarako alderdi horreek guztiak modu garrantzitsuan jagon behar dira. Eta, adierazo deutsuedan horretan guztian oinarrituta, asmo handiko proposamen bat egin dogu, Bizkaiko Foru Aldundak historikoki zehaztu dauen tarifa-politikeagaz bat ez datorrena, baina, era berean, beharrezkotzat joten doguna, garraio publikoari justizia sozialaren erispidea aplikau gura badeutsagu.

Ganberako talde guztiei helarazo deutsegun proposamena 3 puntutan definiduta dago. Lehenengoa da: Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsagu akordioak bultzatu daizala gainerako erakunde eskudunakaz (autonomikoak eta udaletakoak), Bizkaiko Garraio Bonua sortzeko, Lurralde Historikoan garraio publiko osorako balioko dauena. Horixe da gure proposamenaren oinarria. Bonu barri horri jagokonez, garraio publikoa erabilteko dinamika barri bat planteau leitekela uste dogu. Gure ustez, bonu barri hori erabiltea erabagigarria izan daiteke garraio publikoa modu orokorragoan erabilteko, eta oinarria sendotu leike, ikuspegi ekonomikoan prezio erakargarriagoa ezarten daben ekintzak arindu ahal izateko.

Eratorritako gure mozinoaren bigarren puntuan Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsagu akordioak bultzatu daizala Bizkaiko Garraio Bonu horrek, kasu honetan Bizkaibuseko ibilbide guztietan ondoko baldintzak jaso daizan: helduentzako prezio bakarra (25 € hilean); ikasleentzako prezio bakarra (15 € hilean), eta ume eta nerabeentzako doakotasuna (16 urtera arte). Gure ustez, prezioen egungo jatsiereagaz izaten ari garan esperientzian oinarrituta (Bizkaiko garraio publikoaren barruan zerbitzuen doakotasuna be barne hartzen dauena), erakundeek ezin hobeto onartu ahal dabez tarifa horreek.

Ez litxakigu gustauko proposamen honen bideragarritasun ekonomikoaren eztabaidea oztopo izatea proposamena kontuan hartu ez daiten. Eta hori bi kontugaitik dinot. Lehenengo eta bat, adierazo barri deutsuedan moduan, uste dogu erakundeek ezin hobeto onartu leikiela; eta, bigarrenik, gure taldeak uste dau mobikortasuna ez dala aukera bat, ezpada eskubidea. Gure bizitzea normaltasunez garatzeko, joan-etorriak ez dira aukera bat. Errazoi ekonomikoakaitik bizilekutik urrun dagozan beste herri edo eskualde batzuetara joateko aukerarik ez dabenek lanerako, ikasteko edo aisialdirako aukera sano mugatuak izango dabez. Horregaitik, uste dogu zenbateko horreek herritarren preminakaz bat datorren tarifa-justizia baterako oinarria dirala.

Gure proposamenaren, eratorritako gure mozinoaren azken puntuan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea proponidu dogu Eusko Jaurlaritzagazko akordioak bultzatu daizala, Eusko Jaurlaritzearen eskumen partekatua edo esklusiboa daben garraioak be Bizkaiko Garraio Bonu horretan sartu daitezan, bonu barri horren erabilerea orokorragoa izan daiten. Alde horretatik, lehentasuna izango dabe Bilboko Metro zerbitzuak eta trenbide-garraioak, behin horren eskumena transferiduten danean.

Proposamen hau koherentziaz definiduteko, argi dago tarifa-sistema osoaren mapea jarri behar doguna mahai gainean, eta proposamen barrira egokitu. Inork ez

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

leuke ulertuko Bizkaibusi bakarrik apliketea, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena dalako, eta aldiriko trenei eta metrokoei ez apliketea. Horregaitik uste dogu azken puntu hori ezinbestekoa dala tarifa barria erabat definiduteko. Gainera, erabiltzaile bakotxaren errealidadea desbardina da. Horreetako batzuek garraio publiko mueta bat baino gehiagotan egin behar izaten dabez joan-etorriak, eta horrek nabarmen handitzen dau ibilbidearen azken kostua. Ez da arraroa, berbarako, euren udalerritik metro-geltoki batera joan behar diran erabiltzaileak aurkitzea, aurretik hurbilen daukien metro-geltokira hurbiltzen dauzan autobus bat erabilita. Proposamenean adierazo dogun azken puntu horregaz, hirugarren puntuagaz, garraiobide publikoetan edo konbinauetan egindako joan-etorri horreei lotutako gainkostua saihestuko geunke.

Orokorrean, hauxe da helarazo deutsuegun proposamena, eta poz-pozik entzungo doguz zuon ikuspuntuak eta jarrerak mozinoa onartzeari begira, berba egiteko hurrengo txandetan.

Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lobato Pascual. El representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Gaur goizean bertan onartu dogu Garraioaren Plan Estrategiko bat, gure abstentzinoagaz eta uste dot zuonagaz be. Nire ustez, gomendioetako lehenengoa funtsezkoa da. Bertan, tarifa-sistema barriak ibilbidea, bidaia-kopurua eta erabiltzaileen errentak kontuan hartu behar dauzala aitatzen da. Ez dot ulertzen, beraz, zergaitik 4 puntu geroago, ba, esango dogun bonu horrek 25 eurokoa edo 15 eurokoa edo ezarten diranetakoa izan behar dauela.

Ez dot ulertzen mozino honen helburua. Beraz, guk aurka bozkatuko dogu, jakina, gaur goizean, gure abstentzinoagaz, beste gauza bat onartu dalako, Plan Estrategikoa, eta ez dogu ulertzen zergaitik 15 €, 25 €... Ez dakigu zergaitik ezarri dozuzan 25 € eta ez 20 €, edo zergaitik 30 €, edo zergaitik ez 40 €, eta ez 25 €, eta zergaitik ez diran diskriminetan, Plan Estrategikoan aitatzen dan moduan, distantzia, bidaia-kopurua eta, batez be, personen ahalmen ekonomikoa. Nire ustez, etorkizunean, laguntza guztiek errenteari lotuta egon behar dabe, aldeen gaitasun ekonomikoari, Eusko Legebiltzarretik ezarri zan familia-errenta estandarizau horri, eta hori da bidea. 25 €-ko tarifea, 15 eurokoa ezarteak uste dot gaur ez daukala zentzun handirik.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo Moreno, tiene usted la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días de nuevo. Muchas gracias, señora Presidenta.

Itaunetik eratorritako mozino bat izango dot berbabide orain, Elkarrekin Bizkaia taldeak proponidu dauen proposamen bat. Bertan Bizkairako garraio-bonu bat sortzea

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

proponidu dau. Horren haritik, proposamen-egileari adierazo gura deutsat, antza danez, azken aldietan ez dala egon Batzar Nagusi honeetan. Egia esan, uste dot ez dala prozedurea, eta ez dauela ezertan laguntzen Bizkaiko garraio publikoan sistema moderno eta justu bat ezarten. Denpora luzea daroagu gure lurraldeko garraio publikoan finkatzen diran prezioei buruzko batzordeak, eztabaidak, planteamentu serio eta zorrotzak izaten.

Orain dala hilebete gitxi, premisa bat ezarri genduan prezioak %50ean konpentsetako, inflazinoaren, erregaien prezioaren eta abarren egungo gorabeherakaitik. Eta Plan Estrategiko bat onartu barri dogu, helburu honeek daukazana: tarifen integrazinoa, transbordoen doakotasuna, eta errepetidu gura ez deutsudazan hainbat alderdi, iraunkortasunaren ikuspegitik, zerbitzuaren estaldurearen igoerearen ikuspegitik, tren-garraiobideari lehentasuna emotearen ikuspegitik, eta lan izugarri handia emoten dabenak, inkestak, azterlan teknikoak, adituen ekarpenak…, eta zuk lurzoruaren mailan itxi barri dozuz.

X prezioa ezarri deuskuzu, 20 €, 15 €, ez dakit zenbateko zorroztasun teknikoa edo ekonomikoa ete daukan, baina… bapo!, dana konponduta itxi dozu. Uste dot proposamen hori baztertu egin beharko zeunkela, eta alkarregaz lan egin konponbide erreal eta praktikoetan. Eta ez zaitut iraindu gura, baina proposamen serioa baino proposamen populistea emoten dau, inongo zorroztasun tekniko eta politiko bakoa. Eta, egia esan, ez dot ulertzen zelan dakarskuzun horrelango proposamen bat hona, gaur hemen aurkeztu dan Plan Estrategikoa onartu edo babestu ez dozunean. Izan be, askoz zorrotzago jasoten eban zuk ekarri deuskuzuna. Izan be, horrelango prezioak planteau deuskuzuz, danontzat, bidaiariaren diru-sarrerak kontuan hartu barik, egiten dan erabilera-mailea kontuan hartu barik…, zentzunbakokeria erexten deutsat.

Zure asmoa begirunea izateko modukoa izango da, ez dot ukatuko: garraio publikoaren erabilerea erraztea. Baina hobeto dohainik, ezta? Zergaitik ez? Dohainik, erabat dohainik.

Eta nik neure buruari galdetzen deutsat ea nondik aterako dozuzan hori gauzatzeko behar diran baliabideak. Izan be, hori ez dozu planteau. Planteau al dozu zenbat balio dauen? Zure proposamena gauzatzeko planteau al zenduan zuzenketaren bat orain dala pare bat hilebete onartu barri doguzan aurrekontuetan? Hori ezin da bateratu goizean zehar azaldu deutsudan alkarreragingarritasunagaz, edo zuk be aitatu dozun garraio-titulu desbardinen intermodalidadeagaz. Uste dot askoz be sendoagoa eta errealagoa dala tarifak homogeneizetako eta txartelen kostuaren merkatzea sustatzeko ahaleginak batzea, errentearen eta erabilerearen arabera, aurreko Plan Estrategikoan onartu dogun moduan eta ez bereiztu barik. Izan be, plan horrek azterketa zorrotza egiten dau-eta.

Aurreratzen deutsut gure botoa ez dala aldekoa izango, eta ez guk gura ez dogulako. Sozialistok garraio publikoa merkeagoa izatea gura dogu, aurreko berbaldian esan deutsudan moduan. Hori erakusten ari gara Espainian, Euskadin eta Bizkaian, eta sozialisten ekarpena daukan Gobernu bat dagoan tokian, gure gobernu-ekintzak garraio publikoa bultzatuko dau, baina proposamen serio eta zorrotzakaz, ez gaur hona ekarri deuskuzuna lako planteamentuakaz.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Jerónimo Moreno. El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Presidenta. Buenos días a todos y a todas.

Yo también hablaré en voz alta en este punto, porque en los debates anteriores también hemos comentado el tema, y hablaré de forma clara. Desde EH Bildu consideramos que esta propuesta del Bono Transporte de Bizkaia ha llegado fuera de lugar y fuera de toda lógica.

¿Y por qué decimos esto? Ustedes han tenido ocasión de proponer esta medida en sus alegaciones al informe de conclusiones del Plan Estratégico del Transporte y no lo han hecho. Se ha perdido otra oportunidad. Si lo hubieran introducido allí, seguramente tendría su lógica. Presentándolo el último Pleno de la legislatura, seguramente no tanto. Porque creo que han sacado de la chistera una propuesta, a dos meses de una cita electoral, para impulsar un precio único para diferentes colectivos o personas de Bizkaia.

¿Un precio único? ¿Qué es eso? Conocemos el billete único, pero ¿el precio único?

Uste dot bidaia honen ibilbidearen zati baten galdu egin nazala, beharbada nire arazoa da, beharbada geltokiren bat pasau egin jat, edo txartela galdu dot, baina benetan, ez dot ezer ulertzen. Hau da, Bizkairako txartel bakarra aldatzen ari al zarie Bizkaibuseko prezio bakarragaz, eta gero ikusiko dogu zer jazoten dan gainerako garraiobideakaz? Txartel bakarra eta haren baldintzak ahazten ari zarie, eta horrek esan gura dau Planaren gomendioak onartu barri doguzala, hemen adierazo dan moduan, ordubete pasautxo uste dot igaro dala, eta Bizkaia-bonu bat eskatzen ari zarie? Zuontzat, egun batetik bestera, txartel bakarra prezio bakarra izatera pasau da? Ez dakit.

Gainera, mozino bat aurkeztu deuskuzue, kakotxak zabalduko dodaz, kopiau egin dot-eta: “Aldundiak akordioak bultzatu daizala hiru puntuetan”. Hori al da Aldundiari garraio publikoa sustatzeko eta akordioak bultzatzeko planteetan deutsazuen guztia? Eskatzen hasita, beharbada aukera egokiagoak egongo lirateke: inplementau, gauzatu, martxan jarri... Akordioak bultzatzeagaz beste alderdi batzuk jatortaz burura, ez oposizinoko baten bat.

Mobikortasun jasangarriaren sustapena be berbabide izan dozu, zure berbaldian esan dozu Madrilgo Ministerioetatik heltzen diran jarraibideak jarraitu dozuezala. Nahiko urrun iruditzen jaku, lurralde honetan eginda daukagun lanagaz. Eta harritu egin nau, gainera, zelan inongo lotsa barik pasau jatzuen Alderdi Popularra ezkerretik. Progresibotasunaz, errentez, erabilerearen araberako prezioez berba egiten hasi dira, eta zuek tarifa bat ezarten saiatu zarie, tarifa horrek ez dauenean kontuan hartzen biztanleriaren benetako beharrak zeintzuk diran.

Nire ustez, argi dago, Bizkaian urteak daroaguz, gitxienez 2 legegintzaldi, txartel bakarra sustatzen. 2019an, Ganbera honetan bertan, txartel bakarraren legegintzaldia izan behar zala esaten genduan. Eta orain proposamen bategaz egin dogu topo, behintzat indar bakoa dana. Izan be, posible izan ahal zan modu taktikoan onartzea, egoera puntual baten aurrean, gaur egun jazoten ari dan zeozeri erantzuteko, baina zuek ez dozue horrelan proponidu. Baina kontuan izan behar da, era berean, unada honetan garraio publikoan be badaukaguzala deskontuak. Zelan egokitu gura dira bi neurri horreek?

Galdera batzuk botako dodaz airera, erantzun ahal izan deidazun, eta hobeto ulertu daidan zure proposamenaren garrantzia, eta, gainera, egia esango deutsut, hau da, hondinokarren ez dakit zer bozkatuko dogun nire taldean. Ez dogu WhatsApp taldean jarri, eta, beraz, hondino garaiz zabilz gu konbentziduteko. Zure erantzunetan egongo da gure boto-zentzunaren kakoa, barriro dinotsut. Garraio Ministerioaren kanpaina bat izentau dozu, ederto, oso polita. Gainera, ez dakit zelan zan, “igon ezkero, jatsi egingo dira, jatsi ezkero, igon

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

egingo dira", baina ea ezagun egiten jatzuzan kontzeptu honeek, nire ustez hurbilagoak eta egokiagoak diranak, eta Ganbera honetan eta lurralde honetan landu doguzanak.

Galdetu egingo deutsut: ibilbide bera, tarifa bera. Zure proposamenak jasoten al dau joan-etorri beraren aurrean zenbateko bera ordaintzea, edozein garraiobide erabilita be? Garraio publikoa zenbat eta gehiago erabili, orduan eta deskontu handiagoa txartelaren prezioan. Zerbitzu hori gehien erabilten dauenari hobaria emongo al deutso zure proposamenak? Modu progresiboan, zenbat eta bidaia gehiago, prezio merkeagoa?

Txartelaren prezioak persona bakotxaren errentearen araberakoa izan behar dau. Zure proposamenak bermatzen al dau zenbat eta errenta txikiagoa izan zaurgarritasun gehien daukien personek gitxiago ordainduko dabela? Garraio publikoko enpresa operadore guztien arteko koordinazinoa. Zure proposamena erakundeen eta Bizkaibusen arteko akordioak bultzatzean oinarritzen da ala Bizkaiko Mobikortasun Agintaritzearentzat zeozer proponiduten dozu? Hemen dozu bertako presidentea, aprobetxau eizue. Bizkaia osoan erabili leiteke. Bonu horregaz edozeinek erabili ahal izango dauz Bizkaiko Lurralde osoan dagozan garraiobide publiko guztiak (metroa, trenak, tranbia, autobusak, uri barrukoak zein uriartekoak)? Euskarri bakarra izango da? Garraio publiko osorako euskarri bakarra izango da, edo beste euskarri bat gehiago sortuko dogu?

Eta jarraitu daigun Bizkaian. 2019ko martian, aurreko legegintzaldiaren amaieran, gaur eztabaidatzen ari garanaren antzeko egoera baten, uste dot legealdiko azken Osoko Bilkura politikoa izan zala be, eta Ganberako talde guztiok, PPk izan ezik, txartel bakarrari buruzko erdibideko zuzenketa bat onartu genduan; PPk uste dot gaur onartu dauela, baina orduan ez eban onartu. Gure kasuan, Isuzkiza jaunaren sinadura, hementxe atzean dago, zalantzea balego be, eta honako hau jaso zan: "honako parametroak hartuko dira kontuan: garraio-modu guztien arteko transbordoen doakotasuna, tarifen integrazinoa, tarifa berberak enpresa operadore guztientzat, eredu guztien progresibotasuna eta azterketea, txartelaren prezioa errenta personalera eta/edo familiarrera egokitzea, Bizkaian dagozan garraiobide publiko guztiak erabiltea, eta egungo garraio publikoaren sarea bere osotasunean mantenidutea eta hobetzea".

Pues, a ver si me convencen ustedes con sus respuestas, señor Lobato, a ver si me convence con sus respuestas, porque entendemos que la propuesta que presentan hoy es un paso atrás, no tiene ambición, y se aleja de los parámetros básicos que entendemos desde nuestro grupo, y se ha comentado aquí muy claro: descuentos por uso y tarifas por rentas no se mencionan en absoluto.

Sin otro particular, a la espera de sus respuestas, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Y la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Gómez Devesa, tiene usted la palabra.

La Sra. **GÓMEZ DEVESA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Elkarrekin Bizkaia taldeak Bizkairako garraio-bonu bat sortzearen inguruan aurkeztu deuskun eta orain eztabaidatzen ari garan itaunetik eratorritako mozino honek hainbat gai planteetan dauz, bai proposamenaren aldetik, bai errazoiketearen aldetik, eta horri heltzea gustauko litxakit. Berbarako, hasteko, ekimen honek lehenengo errazoiketa lez zera planteetan dau, zera dino: "gure taldeak irme sinisten dau Bizkaiko garraio publikoa sustatu behar dala". Bada, helburu horregaz bat gatoz, eta bat gatoz garraio publikoaren

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

erabilerea sustatzearen garrantziagaz, gure joan-etorrietarako ibilgailu pribadua erabiltearen kaltetan.

Eta alde horretatik, Euzko Abertzaleak taldeak garraio publikoa sustatzearen aldeko apustua berretsi gura dau eta, orokorrean, mobikortasun iraunkorraren aldekoa, bai gizartearen aldetik, bai ingurumenaren aldetik.

Baina, hortik aurrera, uste dot errealidade hori modu desbardinean ikusten dogula, sano desbardin; niri, behintzat, zalantza ugari sortzen jataz, esaterako, justifikazinozatian planteetan danari jagokonez. Izan be, zera aitatzen danean: "gure ustez, herritarren zati batek garraio publikoa ez erabilteko errazoietako bat garraio publikoaren kostu handia da, eta, horren ondorioz, batez be ibilbide laburretan, norberaren ibilgailua erabilteak garraio publikoaren ohiko txartelak baino kostu txikiagoa ekarri lei". Eta, tira, zalantza asko sortzen jatazala dinot; izan be, ibilgailu ez-elektrikoak, gasolinazkoak edo gasoliozkoak dirala ziurtzat jo ezkero, galdetu leiteke, alde batetik, erregaia egon dan edo dagoan prezioa kontuan hartuta ea benetan merkeagoa izan leiteken ibilgailu partikularra erabiltea, eta hori ete dan herritarrek autobusa edo trena, metroa edo tranbia aukeratu beharrean autoa aukeratzeko errazoi erabagigarria, talde ekimengileak adierazo dauen moduan.

Izan be, jakina, autoa edo, orokorrean, ibilgailua erabilteak ez dau esan gura depositua bete behar dala bakarrik; horrezaz gainera, kontuan hartu behar dira haren erabilereari lotutako gastu gehigarriak, mantentze-lanei jagokenez, berbarako. Eta autoa goizero abian jarteak dakarren kostu ekonomiko osoa eta erreala balorau behar da, nahi-ta ibilbide laburrak izan, adierazo dan lez. Eta, jakina, ez da gauza bera ibilgailuaren mantenimentua eta higadurea egunero erabili ezkero, edo noizean behin edo noizbehinka badarabilgu. Izan be, gaur egun ibilgailu bat erosteak dakarren kostua be kontuan hartu beharko litzateke, zenbat eta gehiago erabili, orduan eta aldaketa-premina handiagoa sortzen dogu-eta, eta gero eta gehiago. Eta hori ez da txikikeria, ikuspegi ekonomikotik, familien boltsikoetarako.

Beste kostu gehigarri bat be ez dogu ahaztu behar: aparkalekua. Horrelan, gitxi gorabehera, eta huts egiteko arriskuan, 25 km-ko ibilbide bat gasolinazko auto txiki edo ertain baten izan daiteke 2,7 euro inguru. Itzulia gehitu ezkero, 5,50 euro inguru, gitxi gorabehera. Horri gehitzen badeutsaguz eguneroko erabilereagaitik mantenimentuaren zati proportzionala, hainbat gastu gehigarri eta aparkalekua, gaur egungo garraio publikoaren tarifak berrikusita, daborduko hobaridun prezioak %50ean jarrita, eta trenbidearen doakotasuna, ba ikuspegi ekonomikotik ez dot uste merkeagoa danik goizero autoa arranketea.

Benetan, ez dot uste hori danik Bizkaiko herritarren joan-etorrien eredua aldatzea justifikauko leuken benetako gaia, ez dot-eta uste eguneroko joan-etorrietarako ibilgailua darabilen personek merkeago ateraten jakelako erabilten dabenik, zuek planteau dozuen moduan; ez dot uste. Izan be, garraio publiko kolektiboaren erabilerea askoz jasangarriagoa da zentzun guztietan eta baita ekonomikoan be. Eta ikuspegi ekonomikoan garestiagoa izateaz gain, argi dago ibilgailua ohiko garraiobide lez erabilteak kostu handiagoa eragiten dauela, itzulezina, ingurumenaren eta gizartearen ikuspegitik.

Akaso, ibilgailu pribaduaren ordez garraio publikoa aukeratzeari jagokonez, aldaketearen errazoia bestelakoa izan leiteke, ekonomikoaz harago. Baleiteke ingurumenagazko sentsibilizazinoagaz, hezkuntzeagaz, konpromiso personal eta kolektiboagaz, alkartasunagaz eta, orokorrean, iraunkortasunagaz eta gure ingurunearen zaintzeagaz lotutako balioakaz lotutako gai bategaitik izatea.

Halanda ze, gure ustez, argi dago joan-etorrietarako ibilgailu pribadua erabilteko errazoia ez dana garraio publikoaren prezioa, ekimen honen justifikazinoan jasoten dan moduan. Eta, gainera, ez litzateke hain argi geratuko prezioak murrizteak, trenbidearen

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

edo kolektibo jakin baten kasuan lez doakotasunera helduta be ibilgailu pribaduaren erabilerearen murrizketa esponentzial esanguratsua eragingo leukela, alderdi kuantitatiboan.

Beste alde batetik, proposamen-zatiari jagokonez, balorau gurako neuken gairen bat be egongo litzateke. Hau da, helduentzako proponidu dozuezan 25 euroei jagokenez, tira, tarifei jagokenez. Baldintza itxiak aurkeztu dira, eta, alde horretatik, gure ustez, mozino honen bidez orain prezio itxia ezartea ez litzateke egokia izango, ezta koherentea be, Bizkaiko Garraio Plan Estrategikoaren izapide-prozesuan gagozan unea kontuan hartuta; bertan, txartel bakarrari eta tarifa-unidadeari buruzko erispide orokorrak jaso dira, besteak beste.

Gure ustez, baldintza horreetan prezio itxi bat ezartea, alde bakarretik aurkeztua, ez litzateke bateragarria izango talde guztiek txartel bakarraren alde eta tarifen bateratzearen eta integrazinoaren alde lan egiteko daben berariazko asmoagaz. Eta, gainera, zergaitik prezio hori eta ez beste bat, bateratu daitekena? Ez dakigu zenbat ordainduko leukien Euskotrenen edo Renferen erabiltzaileen garraio-tituluek; izan be, jakina, ez leuke zentzunik izango beste kopuru bat ordaintzeak, tarifa-integrazinora heldu gura badogu, erispide bateratzaileetara.

Alde horretatik, uste dogu zeozelako koordinazinoagaz jardun behar dala egungo eskumen-aniztasun instituzionalari jagokonez, Euskadiko Garraio Agintaritzearen bitartez, horri buruzko estrategia globala eta bateratua bateratzeko. Garraio-titulu eta tarifa-politika ugari ditugu. Halanda ze, gai horreei zorrotz eta koordinauta heltzeko beharra ikusten dogu.

Beste alde batetik, gai horreez gain, proposamen honek be ez dau erabilera-mailea kontuan hartzen. Gure ustez, proponidu dan moduan, garraio publikoaren erabilera intentsiboa egiten ez daben erabiltzaileen kasuan, erabilera intentsiboa egiten daben erabiltzaileen hobari eta abantaila berberak izango leukez. Hau da, zuek ezarri gura dozuen tarifa finkoak modu berean jardungo leuke bi kasuetan, eta horretan be ez gatoz bat. Izan be, uste dogu helburua ez litzatekela izan behar noizean behin garraioa erabilten dabenei hobariak emotea, ezpada hobari gehiago emon beharko geunskiezala garraio publikoa gehien erabilten dabenei.

Bukatu egingo dot, denporea amaitu egin jat-eta. Errazoietako batzuk azaltzen saiatu naz, bigarren txandan argudiatzen jarraituko dot, baina uste dot argi geratu dala, baina argi eta garbi aurreratuko deutsuet ez dogula proposamena babestuko.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gómez Devesa. Pasando al turno de réplica, el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Lobato Pascual, tiene usted la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Muchas gracias.

Saiatuko naz erantzuten, ez dakit denporea emongo deustan 5 minututan. Danetan aitatu dan gai bat dago, hau da, errentea ez sartzearen gaia proponidu dogun prezioaren inguruan, mahai gainean jarri dogun tarifa-proposamenaren inguruan. Taldearen barruan izan dogun eztabaidea da, eta azkenean ez dogu sartu errazoi bategaitik. Bonu hau aurkezteko errazoietako bat da koherentea erexten deutsagula autoak errepidetik ateratea, hori azaldu dot, bai berbaldi honetan, bai orain dala hilebete bat be, uste dot. Tarifa-proposamen horretan errenta jakin bat daben personak bakarrik sartzen badoguz, harenbaten ez gara

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

egongo laguntzen garraio pribadua erabilten daben beste erabiltzaile batzuek garraio pribadua errepidetik atera dagien, eta eurek be garraio publikoa aukeratu dagien. Hori da errazoia, funtsean.

Prezio itxia dala entzun dot. Tira, itxia ez da, jakina, hondinokarren horren alde bozkatu ez danean. Izan be, gaur arte ez deustazue helarazo beste proposamenik, izan leitekezan tarifei jagokenez. Talde politiko batek baino gehiagok aitatu dau proposamen hori ez dagoala Garraio Plan Estrategikoaren esparruan, eta gaur bertan ekarri dala Osoko Bilkurara. Jakin gurako neuke ze alderditan ez dan aitatzen Plan Estrategikoa zer dan, zertan ez dan aitatzen, hau da, zertan ez datorren bat gaur onartutakoagaz.

Horri jagokonez, berbarako, azpimarratu gura neuke arreta handiz entzun dodazala Plan Estrategikoari buruzko hainbat berbaldi, eta Plan Estrategiko horretan, argi eta garbi, zonaldeak murriztu egin behar dirala aitatzen da, eta daborduko aitatu dogun eta hainbeste gura dogun txartel bakar horren alde lan egin behar dala. Izan be, gura dogun txartel bakar horregaz atzerapen handiagaz gabilz. Eta, lortu daiten bultzatu egin behar dogun ezkero, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta, orokorrean, Batzar Nagusien jarduteko modu hori nahiko esanguratsua dala uste dot. Hau da, gertakariak noiz sortuko itxaroten jarraitzen badogu, uste dot ez goazala inora. Kasu horretan, adibidez, eremu bakarra izango geunke; azkenean, Bizkaiko lurraldearen barruan definiduten dan txartel bakarra da.

Jeronimo jaunak eztabaida berean, berbarako, Talde Mistoa aitatu dau, eta Garraio Plan Estrategikoaren eztabaidan ez zala sartzen hareek sartu gura ebezan alderdi batzuen zehaztapen sano erabagigarria. Uste dot egiten ari nazan proposamenak be ez leukela lekurik izango Garraio Plan Estrategikoan, jarraitu beharreko estrategia dalako. Halanda ze, nik uste dot proposamen zehatz bat dala, eta, esan deutsudan lez, ez dala Plan Estrategikoan onartutakoaren desbardina.

Méndez jaunak, gainera, Garraio Plan Estrategikoaren eztabaidan utopia izaten jarraitzen dauela adierazo dau, eta, ahalik eta lasterren aplikau ahal bada, hobeto, hori entzun deutsat; eta, ahal balitz, legegintzaldi honetan bertan. Hona hemen gure proposamena, Méndez jauna, eta uste dot zuk eskatzen zenduan bizkortasun horregaitik, guztiz zilegi dala gaur bertan ekarri ahal izatea.

Ez daigun trikimailurik egin, ez daigun alderatu gaur ekarri dogun proposamen hau Bizkaiko tarifen egungo egoereagaz. Danok dakigu egoera hori 2023ko abenduan amaituko dana, eta sano gatxa da 2024an jarraitzea.

Jakina, ekarri dogun proposamenak jarraipena emoten deutso gure ustez Bizkaiko herritarrakaz solidarioa dan tarifeari, eta, alde horretatik, sano zehatza da, jakina. Eta nik uste dot argi dagoala, esaterako, erakundeek akordioak lortzeko hartzen dogun bizkortasunari erreparetan badeutsagu, baita gai batzuk zehazteari be, berbarako, txartel bakarra, argi dago-eta sano astiro joaten garana beti.

Garraio Plan Estrategikoa bera 2016an idaztea onartu zan. 2023an gagoz. Ez eidazue tranparik egin erdian pandemia bat egon dala esanda. 2018rako aurreikusita egoan, kasu horretan ez egoan pandemiarik hondino, ezta gerrarik be Ukrainan, eta une honetan mahai gainean daukaguna Garraio Plan Estrategiko bat da, eta 2035. urtea dauka helmuga lez. Nire ustez, proposamen horreek martxan jarri leitekez, eta, benetan, herritarrak gaur egun maila ekonomikoan gatxa dan egoera batetik salbau leitekez. Eta ezer gitxi gehiago daukat esateko, denporea amaitu egin jatalako. Beste barik, sentiduten dot galdera guztiei erantzun ez izana, daukagun denporea daukagulako. 5 minutu baino ez dira, baina argi dago Ganbera honetatik kanpo erantzun ahal izango deutsuedala, baten batek gura izan ezkero, nahi-ta proposamen hau baztertua izan dan.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lobato Pascual. El Grupo Mixto no va a intervenir. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo Moreno, tiene usted la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Eskerrik asko barriro be.

Lobato Pascual jauna, uste dot talde guztiek egin deutsuezan erantzunen bateratzeak barriro gogoeta egitera eroan behar zaituala. Arku parlamentario osoak akordio bat dogu, modu desbardinean, baina bat egiten dogu danok, bat gatoz egin dozun proposamena zorroztasun bakoa dala dinogunean. Nik, nire berbaldia prestetan ari nintzanean, datuak eskatu nebazan, hau da, hara, uste dot 7 urte daroadazala arlo honetan, eta hondino be Creditrans, Creditrans-20, Creditrans F-50, Gizatrans, Gizatrans-oro, hau da, hondino ez dakidaz garraio publikoa ordaintzeko dagozan eredu guztiak. Baina zuk, barriro dinot, txosteneko 400 orri baino gehiago jaurtigi dozuz, ez dakit zehatz-mehatz kalkuletan orduak, baina teknikari eta aditu guztien 100, 200 lanordu, eta zera esanez konpontzen dozu: "ez, txartel bat danontzat, Bizkaibuserako baino ez".

Tira, benetan, izan be, hori eztabaidatu dogu, eta, gainera, arku parlamentario honetako beste kide batzuk be halan berba egiten ari izan gara egoera askotan, txartel bakarra deitu dogun horretan bat egiteko, hau da, interoperatibidadean, intermodalidadean eta alkarreragingarritasunean epe luzerako alkargunea izan behar dau, ezin da egun batetik bestera egin, ezin da-eta modu teknikoan ezarri. Hau da, bene-benetan, horregaitik eskatu deutsut proposamen hau erretiretako, ez dauka-eta inolako zorroztasunik, eta orduan, zuria bada, adarrak badaukaz, esnea emoten badau eta mu egiten badau, ba, behia da; esan gura dot, hemen inolako zorroztasun zientifikorik ez daukan proposamen bat egiten ari zara; gainera, autoa garraio publikoa baino merkeagoa dala dinozu. Aurretik berba egin dauen batek goitik behera desegin deutsu hori, garraio pribadua publikoa baino merkeagoa dan hori. Hori ez da egia, horrek ez dauka zorroztasun zientifikorik. Barriro dinot, hori teknikariek behintzat folio baten egin dabe. Nik ez dot osorik irakurri, bi laburpen irakurri dodaz, bata 100 orrialdekoa eta bestea 50ekoa, eta nahikoa da, osoak 400 orrialde baino gehiago daukazalako.

Halanda ze, ez dakit, hondino transferidu bako lineak integreteaz be ari zara, aldirikoak. Zera dinogu, ez eiguzuz lineak transferidu, txartel bakarra edo prezio bakarra jarriko deutsagu transferiduko deuskuezan linea horreetarako, ez txartel bakarra. Hau da, proposamen populistea dala uste dot, herritarrentzat baliagarria izango dan benetako proposamen bategaz baino hauteskundeen hurbiltasunagaz zerikusi handiagoa daukan proposamena da. Bilkura honen hasieran zure lankideari eta zeuri be azpimarratu deutsuet benetan onuragarria izango zala zuok benetan lanean ari dan azterlan tekniko bati babesa emotea. Eta 2035ekoa aitatu dozu, horrelan balitz! Nik neuk behean sinatuko neuke Plan horrek ezarten dauzan ildo estrategiko guztiak ezarteko gai izango bagina, 2035erako lortuko bagenduz. Izan be, Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Eusko Jaurlaritzako gainerako lurralde historikoetan ordainketa-planteamentua bateratzeaz gain, Espainiako Garraio Ministerioaren eremukoak be bateratu behar dirala ari gara esaten. Hau da, hemen parte-hartzaile asko dagoz, enpresa lizitatzaileak eurek, lizitau egiten ez daben baina garraio publikoa be eskaintzen daben enpresak. Hau da, garraio publikoaren gai honetan parte-hartzaile ugari dagoz, legealdiko azken Osoko Bilkuran dana iruntsi eta esan daigun, "prezio bat ipiniko dogu, 25 € eta 15 € erexten deutsat". Nik uste dot, benetan, hobeto dala guztiz dohainik, erabat dohainik. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

señor Jerónimo Moreno. El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

Jeronimo jauna, nik ez deutsut 2035 sinatuko, estutu egingo zaitut gitxienez 2030 izan daiten, aitatu dozun ezkero, kontuan hartu daizun. Halanda be, nik galdera asko egin dodaz eta gehienak ez deustazuez erantzun, baina galdera bat egin da Ganbera honetan eta erantzuten saiatuko naz, nahi-ta errepetidu egingo dodan.

Zertan egiten dau talka zure proposamenak Plan Estrategikoagaz? Zuzenean eta aurrez aurre talka egiten dau, eta 1.000 aldiz errepetidu dot, txartel bakarragaz, "billete único". Errentearen prezioa ez dator bat zure prezio bakarraren proposamenagaz, hasiera-helmugearen araberako prezioa ez dator bat zure prezio bakarraren proposamenagaz. Erabilera-kopuruaren prezioa ez dator bat prezio bakarraren proposamenagaz, eta, gainera, ez dator bat tarifa-politika integrau bategaz. Talka egiten dau erabilteko erraztasunagaz, ibilbide sinpleagoakaz, zera proponidu dogulako: eremu gitxiago, homogeneizau eta sinplifikau.

Eta zuk, horrelan, munduko lasaitasun guztiagaz, zera dinozu "eremu bakarra izango dogu". Hori dok eta! Hau da, kitu, lasai baino lasaiago geratu zara. Gainerakook egiten ari garan lanak ez dau ezertarako balio, eremu bakarra izango dala ebatzi dozu, eta beste batek egin behar izango deutsun ezkero, avanti tutti, arrapalada baten. Intermodalidadeagaz talka egiten dau, transbordoen doakotasunagaz talka egiten dau, multimodalidadeagaz talka egiten dau, interoperabilidadeagaz talka egiten dau. Eta horreek dira azken bi legegintzaldietan aldarrikatzen ibili izan garan erronkak, gu, Ganberako gehiengoak, eta baita zuek be.

Barriro dinot, hau da, proposamena garaiz kanpo eta lekuz kanpo heldu da. Gaur bertan, Bizkaiko Garraio Plan Estrategikoa berretsi dogu, eta bertan esan dogu bultzada bat emongo deutsagula txartel bakarrak atzera egin ez dagian. Eta hemen planteau bada be, uste dot ez dala finantzaketa-arazo bat; lehentasun-arazo bat da, ikuspegi estrategikoko arazo bat da, zabuka ez ibiltea, ibilbide-orri argia eukitea eta mobikortasun jasangarria lortzeko nondik egin behar dogun aurrera jakitea. Eta zuok batetik bestera zabilzela iruditzen jat.

Bizkaian, txartel bakarra lehenbailehen lortzea da helburu estrategikoa. Eta Gómez Devesa andrearen berbaldia aprobetxauta, aukera-aukeran ipini deust-eta, bide batez, aprobetxau gura dot esateko txartel bakarra bultzatzeaz gain badala garaia, badala garaia Aldundiak be neurriak hartu daizan ibilgailu pribaduaren erabilerea ahultzeko, eta Euzko Abertzaleak taldearen izenean egin daben berbaldiagaz bat etorri daitezan. Eta Elkarrekin taldeak be autoak errepidetik atera gura badauz, esan dauen moduan, bada garaia aurrera egin daigun eta ahultzeko neurriak hartu daiguzan. Izan be, uste dot zuon diskurtsoetan argi geratu dala garraio publikoaren beherapenagaz bakarrik ez doguna lortuko.

Por lo tanto, señor Lobato, no me ha convencido. No ha respondido a mis preguntas, y, por todo ello, ahí sí, sepan que votaremos que no. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Y la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Gómez Devesa, tiene usted la palabra.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

La Sra. **GÓMEZ DEVESA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Nire lehenengo txandan, denpora kontu bategaitik ez deutsat heldu 2. puntuko 3. ataleko gaiari, 16 urte arteko ume eta nerabeentzako erabateko doakotasunaren inguruan. Ez da gai horri buruz eztabadaidatu dogun lehenengo aldia. Urrian Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zan. Legebiltzarrean hemen gagozan talde guztiok daukagu ordezkaritzea eta bertan gure jarrerak adierazo ahal izan genduzan. Gero, zemendian, Batzar Nagusi honeetako Garraio Batzordean be aztertu genduan, eta espero dogu azkenean gaur jarrerak behin betiko argi geratu daitezala, bukatzen ez dan sokea emoten dau-eta honek, kronologia eta testuingurua kontuan hartu ezkero.

Gure aldetik, koherentziaz eusten deutsegu gure jarrerei. Jarrera horreek gaur jorratu dogun Plan Estrategikoagaz bat datoz, eta, gainera, funtsezko bi gaitan oinarritzen dira: batetik, Euskadiko Garraio Agintaritzeak proponidu degiela Euskal Autonomia Erkidegoko operadore publikoei deskontu-sistema bat ezarri eta aplikau dagiela. Eta, bestetik, deskontu horreek tarifen prezioan progresiboak izan daitezala, erabilerearen eta baldintza personalaren arabera, personen errentea eta onuradunen familia-unidadeak kontuan hartuta.

Eta horixe da gure planteamentua, urrian, zemendian azaldu genduana, eta gaur be azaltzen ari garana. Lehenengo eta bat, uste dogu horrelango gaiei modu koordinau eta zorrotzean ekin behar jakela, eta koordinazino horren bidez, eremu horretan homogeneotasuna lortzeko neurriak hartu behar dirala. Eta, bigarrenik, uste dogu egokiagoa dala, zentzun guztietan, baliabide gehien daukanak gehiago ordaintzea, eta baliabide gitxiago daukanak onura ekonomikorik handiena izan dagiala.

Horretarako, hobari horreek progresibotasun-erispideen arabera definidutea proponidu dogu, zuek proponidu dozuen tarifea finko hori ez dator-eta bat familien benetako preminakaz, batez be zaurgarrienen preminakaz. Izan be, horrelan, errenta altuak edo altu-altuak jasoten dabezan personek familia zaurgarrienen hobari bera jaso ahal izatea saihestu geinke, horrek kaltea eragin leikelako, bai zaurgarritasun handiena daben familietan, bai sisteman bertan.

Nik zera esango neuskizu, zergaitik 25 €? Zergaitik ez 20 €, edo 27 €? Norentzat da prezio hori? Zergaitik ezarten dozuez 3 erabiltzaile-tipologia? Errealidade kolektibo sozioekonomikoak jasoten al dau sailkapen hori? Ezin al da egon doakotasuna edo hobaria behar dauen beste kolektiborik? Zein titulutarako, guztientzat edo batzuentzat bakarrik? Bateragarria al da txartel bakarragaz eta tarifa-unidadeagaz? Zergaitik 16 urte, eta ez 17 urtegaz? 16 urtetik aurrera, garraioak zama izateari ixten al deutso familia-ekonomietan? Gazteek ez al dabe erosketa-mailarik, gazte guztiek egoera ekonomiko bera al dabe? Zergaitik jaso leiz errenta handiak daukazan familia batek garraio-hobariak, zaurgarritasun-egoeran dagoan familia batek lez? Familia horreek ibilgailu pribadua erabilteari itxiko deutsie garraio publikoak hobaria emoten deutselako? Benetan gorabehera ekonomikoa al da? Galdera erretorikoak dira, ez dodaz egiten erantzun deidazun. Horregaitik ez dodaz nire lehenengo txandan egin. Badakigu erantzuna.

Tira, horrelan jarraitu geinke, baina amaitu egingo dot. Sentipen bat konpartidu gura neuke, beste barik; izan be, mozino honetan gehiago sumau dot hauteskunde-programa baten garraio- eta mobikortasun-orria, txartel bakarrerantza eta tarifa-integrazinorantza alkarregaz aurrera egiteko benetako asmoa baino. Nire sentsazinoa da gaur datei emon jakela lehentasuna, herritarrek gainditu edo suspendiduko gaituen errebalidatik bi hilebetera gagozalako, eta proposamen hori aurkeztu deuskuzue, harenbaten, emon leikizuen titularrean pentsauta, herriaren onarpena gura dozuela emoten dauen itxureagaitik, benetan guk gura geunken planteamentu zorrotz edo orokor, koordinau baten bideragarritasunean pentsau beharrean. Sentsazino bat da, personala.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Beste barik, uste dot argi geratu dala gure botoa, eta ez, ez deutsugu babesik emongo.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Gómez Devesa.

Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 48 votos. Han sido 6 a favor, 42 en contra, y no ha habido ninguna abstención. Por lo tanto, no se ha aprobado la moción.

El punto sexto del Orden del Día, que será el último que haremos en la sesión matinal. Luego, dejaremos 3 puntos para la tarde.

El punto sexto, señor Secretario.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación (R.E.11/E/2023/0000338)
Autor: Benito Ziluaga, Xabier (EB)
Asunto: Fomento de la Economía Social y la Solidaria para la transformación justa de Bizkaia.
Documento Principal: (R.E.11/E/2023/0000338)
Boletines: Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas (78A)
Expediente: (11/B/20/0004235)

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa (11/E/2023/0000338SE)
Egilea: Benito Ziluaga, Xabier (EB)
Gaia: Bizkaiaren bidezko eraldaketarako gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioa sustatzea
Dokumentu Nagusia: (11/E/2023/0000338SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (78A)
Espedientea: (11/B/20/0004235)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Kaixo barriro guztioi.

Mozino honen azalpenari hasierea emoteko, legegintzaldiaren hasieran Ganbera honetan izan zan eztabaida bat gogorarazo gura dot. Lehenengo urtea izan zala uste dot. Politika Orokorreko eztabaida horretan, txarto gogoratzen ez badot, Euzko Alderdi Jeltzaleko bozeroale batek esan eban Bizkaian 5 Amancio Ortega eukitea gurako leukela. Uste

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dot bere garaian jakinarazo edo aitatu zan gurari horrek (bere momentuan zintzoa eta berez esandakoa, hori be esan beharra dago) argi eta garbi erakusten dauela hemen batzuek lortu gura daben herrialde-eredua eta lurralde-eredua. Gure ustez, eredu eskasa da, zoritxarrez, eredu pobrea, hauskorra, gitxi batzuen borondate aldakorraren zain dago-eta, asmo gitxiko eredua, eta, zoritxarrez, sano lehiakorra ez dan eredua be bai.

Begira, nik gaur, hemen, eta horrek ekarri leiken gauza txar guztiak onartuta, gurago neuke Bizkaian 5 Mondragon Korporazino egotea 5 Amancio Ortega baino. Ekonomia soziala eta ekonomia sozial eta solidarioa ez dira euskal enpresa-eredua bakarrik (eta hori be bada, kooperatibismoan nazinoarteko erreferentea da-eta); ez da gure eremuak eta gure talde politikoak sustatu gura daben ekonomia- eta enpresa-eredua bakarrik, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministeriotik egiten ari garan moduan, ezpada, batez be, etorkizuneko erronketarako eraldaketez ari garanean funtsezkoa izan beharko leuken eredua. Izan be, erredundantea bada be, ekonomia eraldatzaileak izango dau berehalako erronkei aurre egiteko balio eraldatzailerik handiena, ez bakarrik etorkizunekoak, ezpada berehalakoak be, esate baterako, klima-aldaketea, digitalizazinoa, aldaketa demografikoa, bardintasunaren aurrerapena, justizia soziala, edo giza eskubideen defentsea, besteak askoren artean.

Horregaitik aurkeztu dogu gaur mozino hau. Izan be, izenburuak dinoan moduan, ekonomia sozial eta solidarioaren sustapena dau berbabide, Bizkaiaren bidezko eraldaketarako. Bertan, proposamen eta neurri sorta bat jaso dogu, Bizkaiko Foru Aldundia gizarte-ekonomiagaz eta ekonomia sozial eta solidarioagaz lanean serio hasi daiten. Eta hori jarri dot lehenengo eta bat, eta Bizkaiko Foru aldundiak lan hori jarri dagiala helburu nagusi lez, baita ekonomia sustatzeko politikearen helburu nagusi lez be.

Izan be, aurreko Kontrolerako Osoko Bilkurako itaunean argi geratu zanez, Ekonomia Sustapeneko diputaduagaz eztabaidatu genduanean, sektore horri laguntzeko politikek gaur egun Enpleo, Gizarteratze eta Bardintasun Sailaren atal bat izateari itxi beharko leuskie (orain horrelan da-eta), eta Bizkaiko Foru Aldundiko gainerako sailak kutsatu beharko leukiez. Eta, batez be, jakina, Ekonomia Sustatzeko Saila, bere eskumenakaitik enpresa-sareagaz, ekintzailetzeagaz, tokiko merkataritzeagaz, barrikuntzeagaz eta abarregaz lan egiteko zuzeneko eskumena daukalako. Azken baten, ekonomia sustatzeagaz lan egitea, tira.

Sustapen ekonomiko horretan, gizarte-ekonomiak eta ekonomia sozial eta solidarioak berezko espazio bat izan beharko leukie, eta lehentasunezko espazio bat be bai Sailak edo Bizkaiko Foru Aldundi osoak garatzen dauzan politika orokorren barruan. Eta hori azaltzeko adibide bat jarri gura dot, zeozer sustatu gura dozunean ez dau-eta balio gainerakoakaz batera parte hartzera konbideteak, beste bat balitz lez.

Eta adibide erraz bat ipini gura dot: Bizkaiko Foru Aldundiak ETEei laguntzea emon gura deutsenean, ez dauz konbidetan gainerako multinazional handiakaz batera euren programetan parte hartzera, eta, tira, egin dagiela ahal dabena. Izan be, ETEentzako politika edo programa espezifikoak diseinetan dauz, erispide onagaz, jakina. Hori izango litzateke ekonomia sozialagaz eta solidarioagaz be egin beharko geunkena.

Eta uste dot aitatzen dodazan politika espezifiko horreen egokitasuna eztabaidatik kanpo geratu beharko litzatekela, agirikoa emoten badau be, eta eztabaideak arreta gehiago jarri beharko leuke bultzatu geinkezan neurri zehatzetan. Modu apalean, onartzen dot guk mahai gainean jarri doguzanak izan leitekezala, egokienak dirala uste dot-eta, baina beste batzuk izan leitekez. Egia esan, gustauko jatan neurri horreek zuzenketa lez entzun edo irakurri izana.

Labur-labur deskribiduko dodaz gure taldeak aurkeztu dauzanak: ekonomia sozial eta solidariorako Plan Estrategiko bat garatzea, gainerako erakundeen planakaz bat etorrita; zerga-harmonizazinoa, Gipuzkoaren eta Arabaren parean jarri gaitezan

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

enpresan beharginen parte-hartzea suspertzeko; eragileakaz batera, programa espezifikoak egitea eta lehendik dagozanetan lehentasunez sartzea; enpresentzako dirulaguntzetan neurriak ezartea ekonomia sozialeko eta solidarioko enpresek lehentasuna izan dagien; Sektore Publikoko Kontratuen Legeak merkadua erreserbetako daukazan mekanismoak erabiltea; eta, azkenik, REAS bultzatzen ari dan Auditoria Sozialeko Zigilua autortzea, autormen juridikoa emoteko eta erabilteko.

Proposamen moltso horren inguruan Euskal Herria Bildu taldearen zuzenketa bat jaso dogu, eta erdibideko zuzenketa batera heldu gara, Osoko Bilkura honetan jasoko zenduena. Zuzenketa horrek 1. eta 3. puntuak batu eta ordezkatu egin dauz eta testu barri bat sortu da eta, nire ustez, hobetu be egin dau. Tira, ez naz luzatuko gizarte-ekonomiak eta ekonomia sozial eta solidarioak islatzen dabezan datu onakaz, aurreko Osoko Bilkuran be halan egin nebalako. Baina esan gura dodana da Bizkaian eta Euskadi osoan emoten dauzan enpleo-kopuruari buruzko datu horreetako bakotxak, soldaten proporzinoak, gizonen eta emakumeen arteko bardintasunak, uste dot datu horreetako bakotxak argudio bat izan beharko leukiela gaur mozino honetan jasotako neurriak babesteko, hau da, kooperatiben, lan-soziedadeen eta orokorrean gizarte-ekonomiaren sektoreari berariazko bultzadea emongo deutsien neurriak bultzatzeko, horrek enpresa-sarean izango dauen eragin positiboagaitik, eta, beraz, Bizkaiko gizarte osoan be zabalduko dalako. Izan be, hasieran esan dodan moduan...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Joan zaitez bukatzen, mesedez.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Oraintxe bukatuko dot.

Hasieran esan dodan moduan, kooperatibak euskal eredua dira, gure talde politikoak defendidu gura dauen eredua be bada. Baina, mozino honegaz, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen dauen lehentasunezko eredua be izan daitela gura dogu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Benito Ziluaga. El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor López Odriozola, tiene usted la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Buenos días, señora Presidenta, junteros/as, buenos días. Buenas tardes, teniendo en cuenta qué hora es.

Antes de continuar con la intervención, agradecemos al señor Benito Ziluaga, de Elkarrekin Bizkaia, su amabilidad y disposición a dialogar y llegar a un acuerdo sobre la moción que han presentado.

El tema que nos ocupa en este punto me resulta cercano, tanto porque estoy trabajando en una institución vinculada a la Economía Social, como porque he tenido que hacer varios trabajos en la vida profesional sobre el tema. La moción pone de manifiesto que, como en cualquier Administración, aún hay temas que tratar, entre los que se encuentra este mismo.

El señor Benito Ziluaga ha manifestado que no va a facilitar ningún dato, porque los datos los dio en la anterior sesión. Yo daré un par de detalles. Por una parte, la Economía Social y Solidaria representa el 7% del PIB y del Empleo a nivel mundial, por lo que no es algo ajeno ni algo que deberíamos tener demasiado lejos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Según datos del EUSTAT del año 2021, la economía social tuvo una facturación superior a 8.200 millones de euros en la CAV, y más de 61.000 empleados/as en 2021, 23.000 de ellos/as empleados/as en Bizkaia. Si tenemos en cuenta únicamente a las cooperativas, según los datos de KONFEKOOP, las cooperativas facturaron 11.000 millones de euros en 2022, no son cantidades cualesquiera.

En cuanto a la Red Productiva, Bizkaia desde siempre ha sido el territorio histórico más importante, incluye el 50% del Producto Interior Bruto. Pero en la economía social no es pionera, no lidera. En ese sentido, es mencionable Gipuzkoa. Está demostrado, según diversos estudios, que las organizaciones y empresas de economía social y solidaria, además del favor que hacen al desarrollo local, tienen una adhesión más fuerte a este lugar. El resultado de esto es claro, no es frecuente el cambio de lugar o de residencia entre territorios. Actualmente sabemos lo que está pasando en ese sentido; hemos oído demasiado ruido en torno a empresas como Ferrovial, pero también hemos tenido ejemplos más cercanos, y puede que más.

Los efectos que esto puede tener en la sociedad, en el mercado laboral, en la estructura económica y en la fiscalidad pueden ser muy preocupantes para las empresas que no tienen un fuerte arraigo.

En este sentido, EH Bildu considera que esta moción es una de las formas de abrir las puertas a ese trabajo y no quiere decir que no valga lo que se haya hecho hasta ahora, sino que se pueden tomar medidas adicionales.

Dicho todo esto, desde EH Bildu enviamos una propuesta de enmienda, tal y como ha manifestado el señor Benito Ziluaga. En ella, en lugar del primer y tercer punto originales, se propuso uno único, en realidad, de cara al vigente Plan de Desarrollo de la Economía Social del Gobierno Vasco, y con la participación de agentes de la economía social, tanto públicos como privados, con el objetivo de impulsar este tipo de instituciones.

A partir de ahí, qué vamos a decir, que, en cuanto al segundo punto, consideramos razonable solicitar el tratamiento que se da a la ciudadanía en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en otros Territorios Históricos. Estamos a favor, por supuesto. De todas formas, y ya hemos tenido un punto en relación a esto esta mañana, no vamos a hablar de la reforma que necesita este sistema tributario, ya se ha hablado lo suficiente. Pero pone de manifiesto que el sistema tributario actual necesita una reforma integral porque si no, siempre vamos a cambiar este pequeño impuesto, cambiar este número, cambiar este porcentaje. Ya es hora de agarrar alguna vez a ese toro por los cuernos.

En cuanto al cuarto punto, es una forma de impulsar el tema de las subvenciones. No obstante, en el caso de que se diseñen y pongan en marcha programas concretos, a través de los cuales se cubrirá lo que se tenga que cubrir. En caso contrario, si no es a través de esos programas, nos parece razonable incorporar estos cambios en las bases de los ya existentes.

En cuanto al punto cinco, solo pedimos que se cumpla la ley. Y con el sexto el objetivo es que se le dé a la Economía Social la legitimidad que se merece.

Dicho esto, evidentemente, nuestro voto será favorable a esta moción. Muchas gracias por su atención.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor López Odriozola. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Tira, danok dakizuen moduan, gizarte-ekonomiaren egungo konfigurazinoa Lege baten onarpenak marketan dau, 2011ko Gizarte Ekonomiari buruzko Legeak, hain zuzen be. Horri jagokonez, Legearen testuak berak definiduten dau gizarte-ekonomia, eremu pribaduan, interes orokorra, ekonomikoa edo soziala edo biak helburu dabezan erakundeek gauzatzen dabezan ekonomia- eta enpresa-jardueren moltso lez. Azken baten, eta Gizarte Ekonomiako Espainiako Enpresarien Konfederazinoak esan deuskunez, argi eta garbi, erakunde-moltso oso zabal bati buruz ari gara, kooperatibak, mutualidadeak, gizarteratze-zentroak, gizarte-ekimeneko enpleo-zentro bereziak edo fundazinoak barne, besteak beste.

Nik uste dot agirikoa dala guztiontzat, danok nabarmentzen dogula horrelango erakundeek daben funtsezko zeregina, eta ez dot gehiago sakonduko zentzun horretan. Mozinoaren 1. eta 3. puntuak aldatu dozuez, edo batu egin dozuez. Tira, uste genduan ez geunkala argi-argi zer proponiduten zenduen Plan Estratetiko batek egiten dauen ekarpenaren inguruan, batez be gurea lako lurralde baten, gizarte-ekonomiaren alderdi horretan daukan kultureagaz eta tradizinoagaz.

Bigarren puntuari jagokonez, uste dot, uste dogu interesgarria dala, baina egia da onura mugatua ikusten deutsaguna, 89. artikuluak 1.200 euroko urteko muga ekonomikoa ezarten dau-eta kenkari horretan. Gure ustez, muga hori be handitu egin beharko litzateke, beste lurralde batzuetan gertatzen dan moduan. Oso urrun joan barik, Araban mugea 1.500 eurokoa da gizonentzat eta 2.000 eurokoa emakumeentzat. Eta, tira, horretaz gain, gure Foru Arauaren 89. artikuluak beste baldintza batzuk ezarten dauz, eta ez dakit zuek egindako proposamenagaz bat etorriko lirateken edo ez.

Laugarren puntuari jagokonez, ekonomia sustatzeko argitaratuko diran dirulaguntza guztiek neurriak ezarri dagiezala eskatzen da, gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioko enpresek lehentasuna izan dagien; uste dogu, ekidade-erispideari jarraituta, gai hori zehatzago aztertu behar dala, eta arabere zehatzago kasuistika zehatz bakotxa. Izan be, gizarte-ekonomiako erakundeen sektoreak, lehen esan dogun moduan, bere izaeran askotariko jarduerak biltzen dauz. Enpresa bat kooperatibea izan daiteke, baina, halanda be, gauzatu leike diruz lagunduko ez dan jarduera bat. Ez dot Mondragon lako korporazino bat aitatuko, baina bai Eroski lako enpresa bat, 30.000 behargin eta ia 5.400 milioiko fakturazinoagaz; edo manufaktura-enpresa bat, Maier, esaterako, hemen, Gernikan; Lantegi Batuak lako enpleo-zentroak, edo Banca Ética, Fiare Banca Ética.

Hau da, danetarik dago, eta, beraz, zalantzak sortzen jakuz erakunde zehatz horreek arabere gehiago sustatzeari buruz, hareen jarduerea kontuan hartu barik. Izan be, gizarte-ekonomiako enpresa horreetako batzuek tratamentu fiskal desbardina dabe Bizkaiko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko 6/2018 Foru Arauan. Hemen planteetan ez dan beste eztabaida bat da ea arau-eskaintzea kolektibo horretako beste erakunde batzuetara zabaldu beharko litzateken.

Eta zure mozinoaren bosgarren puntuari jagokonez, uste dogu normalean egiten dan gai bat dala; lehen Legea bete daitela aitatu da, normalean, hain zuzen be, laneratzeko enpresez eta gizarte-ekimeneko enpleo-zentro bereziez berba egiten danean egiten da, hareen izen soziala edozein dala be. Beharginek parte hartzen daben sektore jakin batzuetako enpresen kasuan, kasu bakotxaren eta emondako kontratuaren edo zerbitzuaren xedearen araberakoa izango da, gizarte-ekonomiako enpresa izateaz gain.

Halanda ze, ondorio lez, nire berbaldiaren hasieratik esan dodan moduan, guk balioan jarten doguz mueta horretako enpresak eta gizarte-ekonomia, jakina, baita gure

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Lurralde Historikoan daben garrantzia, aintzatespena eta, batez be, izan daben ibilbidea be, baina egia da zuek proponidu deuskuzuen ekimenean, indefinizinoak dagozala uste dogula alderdi batzuetan, eta, beraz, talde popularraren botoaren zentzuna abstentzinoa izango dala jakinarazoko dot. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Martínez Fernández. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenas tardes a todos/as.

Sozialistok, hemen eta presente gagozan erakunde guztietan, eredu ekonomiko eta sozial arduratsu baten alde egiten dogu eta, jakina, enpleo duinagaz eta kalidadezko enpleoagaz, gizarte-kohesinoagaz, gizarte-ondoizateagaz, aukera-bardintasunagaz eta iraunkortasunagaz konprometiduta. Eta, jakina, ikuspuntu sozioekonomikotik, lurralde-errotzea daben proiektuen aldeko apustua egiten dogu, deslokalizazinoaren aurrean. Uste dogu, eta seguru gagoz, gizarte-ekonomia beharrezkoa izateaz gain, balio erantsia emoten deutsala bidezkoa, kohesionadua eta iraunkorra izan gura dauen edozein gizarteri. Izan be, gizarte-ekonomiaren bidez, barne-alkartasuna, gizarte-bazterketea jasateko arriskuan dagozan personen gizarteratzea edo kontziliazinoa sustatzeko modu bat da. Sozialistoi gustetan jakun moduan, gizarte-ekonomiari balioa emoten deutsagula ekintzakaz erakusten dogu gagozan tokian gagozala, hemen Bizkaian eragin argia eta zuzena daben hainbat erakundetan, lurralde-eremuei jagokezanak izan arren.

Hasteko, Espainiako Gobernuak gizarte-ekonomiari egindako ekarpena aitatu geinke, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan. Gizarte-ekonomiari eta zainketei buruzko PERTEa dogu berbabide, 800 milioi euro baino gehiagoz hornidu dana. Plan horren helburua da gizarte-ekonomian eta zaintzan lan egiten daben ikerketa-zentroen, erakundeen, kooperatiben eta erakundeen arteko aliantzak indartzea eta sendotzea. Plan horren helburua da, era berean, Espainia arlo horretako erreferente bihurtzea.

Eta gertuagoko erakunde baten, hurbilagoko baten, Eusko Jaurlaritzeari jagokonez, euskal herritar guztiok eta baita Bizkaiko herritarrok be, jakina, Idoia Mendia gure lankide sozialistea buru dan Enpleo eta Lan Sailak bultzatutako Gizarte Ekonomiako Plan Estrategikoa daukagu. Plan hori gizarte-ekonomiaren gehiengoa osotzen daben eragileen inguruan sortu zan, eta eragile horreek ezinbestekoak dira urte honeetan lotutako krisiei konponbide barritzaile eta justua emoteko. Plan horrek 328 milioi eurotik gorako inbersino publikoa aurreikusten dau 4 urtetan, eta 6 helburu, 12 ardatz, 30 ildo eta 80 ekintza daukaz, jarraitu beharreko bidea ezarteko, gizarte-ekonomiaren balioak euren gain hartu eta garatuko dabezan enpresak eta erakundeak sortzeko eta sendotzeko helburu estrategikoa lortze aldera. Lurraldean errotuta dagozan enpresak eta erakundeak, eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik iraunkorrak. Kooperatiben eta lan-soziedadeen, kofradien, gizarte-aurreikuspeneko erakundeen, eraldaketarako nekazaritza-soziedadeen eta enpleorako eta laneratzeko zentro berezien eskutik landutako plana. Halanda ze, gizarte-ekonomiaren eta hori posible egiten daben eragileen aldeko apustu sendoa egiten dauen Plana da, eta Lurralde honetan eragin handia daukana, jakina.

Nik bai emongo dodazala gizarte-ekonomiari buruzko datu batzuk. Euskadi osoaren ikuspegitik, esan geinke Euskadik kooperatiben %9 eta Euskadin kontabilizautako lan-soziedadeen ia %7 daukazala, eta erakunde horreek enpleoaren %37 eta %11 emoten dabe euren sektorean. Hau da, eta hori garrantzitsua da, gure Autonomia Erkidegoa gizarte-ekonomian enpleo-proportzino handiena daben Europako herrialdeen

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

buruan dago. Eta uste dogu hori erakunde eta administrazino publiko guztiek kontuan hartu behar dogun balio bat dala, babestu behar dogun eta bultzatu behar dogun balio bat.

Esan dodan Eusko Jaurlaritzearen plan horrek berak gizarte-ekonomiagaz lotutako jarduera batzuk ezarten dauz, eta foru-aldundiei zuzenean eragiten deutsee. Horreen artean, erosketa edo kontratazino publiko arduratsua nabarmendu gura neuke, hau da, gizarte-ekonomiako produktuen eskaria bultzatzea, laneratzeko enpresen eta enpleo-zentro berezien ondasun eta zerbitzuen eskaerea sustatzeko, horrelan laneratzeko premina edo oztopo bereziak dabezan personentzat onuragarria izan daiten.

Esan dodan moduan, Gizarte Ekonomiako Plan Estrategiko horrek eta lehen aitatu dodan Espainiako Gobernuaren PERTEak erakusten dabe erakundeak preminazkoari (hau da, sortutako krisiei aurre egiten) zein garrantzizkoari begira (hau da, balio soziala eta eragin soziala gure garapen-ereduaren erdigunean jarriko dauen eredu sozioekonomiko bat definiduten eta bultzatzen) egon leitekezala, egon behar dabela eta egon dirala.

Eta Bizkaiko Foru Aldundira etorrita, aitatu gura neuke gizarte-ekonomiak ze eginkizun daukan Foru Aldundiaren sustapen ekonomikoko politiketan, bai eta enpleoko eta gizarteratzeko politiketan be. Aurreko Osoko Bilkuran Ekonomia Sustapeneko diputaduak azaldu eban moduan, Destino 2020/2030 proiektuaren helburua da lurraldeko enpresa-negozio eta enpresa-proiektuak GJHen arabera eraldatzea, eta horretarako, gure lurraldeko ETEei 2030 Agendeagaz lerrokatuta garatzea eta Garapen Jasangarrirako Helburuak betetea ahalbidetuko deutseen ekintza espezifikoak identifiketea.

Foru Aldundiak badauka gizarte-eragina daukan inbersino-funtsa be (FEIS) eta, horrez gain, Aldundiak hartu-emonak daukaz Seed Capital Bizkaiaren esparruan Konfekoop, Banca Ética, Anesvad eta San Prudentzio Fundazinoagaz. Hori guztia, jakina, gizartean eragina daben proiektuak eta jarduerak sustatzeari begira. Ekintzailetzarako eta gizarte-barrikuntzarako laguntza-ildoak be badagoz, eta, gainera, Ekonomia Sustatzeko Sailak bultzatzen dauzan programa edo laguntza-lerro guztien onuradun izan leitekez gizarte-ekonomiako enpresak edo erakundeak, jakina, eta, batez be, arretea barrikuntzan jarten bada; barrikuntza hori, jakina, gizarte-barrikuntzea be izan leiteke.

Eta sano garrantzitsua erexten deutsat arlo honetan azpimarratzeari Foru Aldundiko beste sail batetik, Enpleo, Gizarteratze eta Bardintasun Sailetik gizarte-ekonomiari emoten jakon bultzadea. Izan be, legegintzaldi honetan abiarazotako Enpleo Planean, 5. erronkearen (hau da, ekintzailetzea sustatzea enpleoa eraldatzeko eta sortzeko palanka lez) ardatzetako bi dira; batetik, kulturea sustatzea eta gizarte-eragina dauen ekintzailetzearen aldeko jarrerak sustatzea; eta, bestetik, gizarte-eragina dauen ekintzailetzearen aldeko jarrerak sustatzea. Ildo beretik, aitatzekoa da Sail horrek enpresa bat lehenengo urtean abian jarteko eta jardunean jarteko eta enpresea eskualdatzeko emondako laguntzei jagokenez, aitatu dodazan laguntza horreetan, balorazino-erispideen artean dirulaguntzearen enpresa onuradunaren forma juridikoa baloretan dala, eta, beraz, erispide hori kalkuletako 5 puntu emongo dira gizarte-ekonomiako enpresen, kooperatiben edo lan-soziedadeen kasuan, eta zero puntu gainerako kasuetan. Hau da, Aldundian bertan gizarte-ekonomiako erakundeen aldeko diskriminazino positiboaren adibide argiak dira.

Azken baten, Foru Aldundi honek eta Lurralde honetan eragina daben Administrazino Publiko guztiek badaukie daborduko enpleoko eta sustapen ekonomikoko politiken hedapen bat, gizarte-ekonomia, hau da, gizarte-eragina daben proiektuak bultzatu eta sustatzeko helburuagaz. Horregaitik, ez dogu zuok aurkeztutako mozinoa babestuko. Eskerrik asko.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor De Luis Zelaia, tiene usted la palabra.

El Sr. **DE LUIS ZELAIA** jaunak: Buenos días a todos/as. Buenos días, señora Presidenta.

Gaur, mozino bat aztertzen ari gara, beste batzuetan izan dauen euki bardinagaz baina beste itxura bategaz, eta Foru Aldundiak erantzun deutso Ekonomia Sustatzeko Sailak garatzen dauzan politikakaz lotutako jarduerei jagokenez. Lehenengo eta bat, errepetidu eta argi itxi gura dot gizarte-ekonomiako enpresek Ekonomia Sustatzeko Sailak abian jarten dauzan programa eta zerbitzu guztiak eskuratu leikiezala, baina argitu behar dogu, horretarako, sail horrek bere programetan lehenesten dauzan jarduerak garatu behar dabezala. Ez dogu ahaztu behar gizarte-ekonomiako enpresek merkaduan lehiatzen diran jarduerak garatzen dabezala, eta energia- eta ingurumen-eraldaketa handien, eraldaketa digitalen eta aldaketa soziosanitario handien ondoriozko egoera aldakorrei be heldu behar deutseela. Gure ustez, Ekonomia Sustatzeko Sailean garatu diran jarduera-ildoak inklusiboak dira enpresa mueta guztientzat, eta legealdi honetan zehar eraginkorrak dirala erakusten dabe. Funtzionetan dabe eta biziten ari garan egoera berezi eta korapilatsuetara egokitzen jakin dabe.

Horregaitik, talde hau ez da zure mozinoaren alde agertuko. Labur bada be, jarraian azalduko deutsudaz jarrera honen errazoiak. Ekonomia Sustatzeko Sailak diseinautako politiken xedea da Bizkaiak lurralde barritzaile, talentudun, erakargarri, konektau eta orekatu lez daukan posizionamentua indartzea, eta bere jarduerea ekintzailetzeagaz, nazinoartekotzeagaz, talentu-erakartzeagaz, eskualde-garapenagaz, barrikuntzeagaz eta lehiakortasunagaz lotutako 5 ardatzetan oinarrituta dago. Lehiakortasun-palanka horreei ekiteko, laguntza-programa ugari garatu dira, arrisku-kapitaleko funtsak, bai eta beste finantza-tresna batzuk be, esate baterako, mikro maileguak. Hau da, talentuaren esparruko enpresa-proiektuak eta zerbitzuak garatzeko, hazteko eta nazinoartera zabaltzeko laguntza-zerbitzuak, eta jarduera barrien sorrerea eta garapena bizkortzeko proiektu estrategikoak.

Talde honen ustez, gizarte-ekonomiaren sustapena, ikuspuntu fiskaletik, ezin da mugatu Bizkaian indarrean dagoan idazketea bakarrik hobetzen dauen araubidea kopietera, kenkariaren ehunekoa 5 puntu igotera eta diskriminazino positiboko modu lez beste 5 puntu gehitzera, emakumezko beharginen parte-hartzearen kasuan. Gure ikuspuntutik, genero-bardintasuna sustatzeko neurriak fiskalidadea Garapen Jasangarrirako Helburuakaz lerrokatzearen esparruan kokatzen doguz, bardintasun eraginkorrera eta kontziliazinora bideratutako neurriakaz.

Beste Lurralde Historiko bietan dagoan araudiaren eukiari jagokonez, ez jaku egokia iruditzen Bizkairako, bai partaidetzak hartzen diran erakundearen konposizinoaren betekizunei jagokenez, bai ha eskuratzen dauen beharginaren gitxieneko iraupenari jagokonez, gure araudia baino baldintza murriztaileagoak daukaz-eta.

Diskriminazino positiboari jagokonez, badaukagu edozein diskriminazino ezabatzeko baldintza bat. Izan be, beste bi lurralde historikoetan ez bezala, diskriminazino hori jagokon erakundearen enpresa-taldeko behargin guztiei egindako eskaintza baten ondorio izan daitela eskatzen dogu, behargin guztientzako baldintza berberetan, inolako diskriminazinorik eragin barik.

Gainera, nabarmendu gura dot daborduko Ekonomia Sustatzeko Saila gizarte-eragina daben proiektuak bultzatzen ari dala, ekintza espezifikoak garatzen ari dala ekintzailetzea eta gizarte-barrikuntzea eta gizarte-eragina sustatzeko, laguntza-dekretuen bidez, eta gizarte-eragina dauen inbersino-funts bat sortuta. Hau da, programa espezifiko bat

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta horretarako dan funts espezifiko bat dagoz.

Beste alde batetik, eta laugarren puntu lez, Ekonomia Sustatzeko Sailaren ustez, batez be garrantzitsua da gizarte-ekonomiako enpresak Seed Capital Bizkaia foro-soziedadearen bidez garatzen dabezan finantzaketa-programetatik kanpo ez geratzea. Horretarako, funts espezifiko bat eratuko da laster Konfekoop-egaz, (Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado, Enseñanza y Crédito de Euskadi - Lan Elkarteen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazinoa – ERKIDE). Eta Fiare, Banca Ética, Anesvad Fundazinoa eta San Prudentzio Lan Fundazinoagaz be lan egiten dogu horretarako, talde sozialisteak aitatu dauen moduan.

Bosgarrena. Esan behar dot, 5. puntuaren maminagaz bat etorri arren (beharbada hortxe egiten dogu bat gehien) ez gatoz bat formeagaz. Foru Erakunde honen konpromisoa da kontratuen erreserba hori garatzea, zentro eta enpresen kategoria horren alde egiteko, kolektibo horreek lana eskuratzeko daukiezan oztopoak ezabatuko dabezan ekintza positiboko neurriak erraztuko dauzan tresna lez. Eta foru-erakunde honek konpromiso irmea dauka kontratazino publikoa politika publikoak ezarteko tresna lez garatzeko, Europa 2020 Estrategian zehaztutako konpromiso eta helburu komunitariotik ondorioztetan dan moduan, hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzailerako estrategia bat, oinarrizko 3 helburuetako bat enpleo-maila eta gizarte-kohesino handiko ekonomia bat lortzea daukana.

Halanda be, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak ez dau tresnarik aurreikusten beste eragile batzuk sustatzeko, gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioko erakundeak kontsumidu eta hareekaz parte hartu dagien. Horregaitik, eta gertu egon arren, ezin dogu puntu hori be onartu, ez dogu-eta uste idazketea zuzena danik.

Azken puntu lez, kontuan hartu behar dogu sektore hori nahiko txikia dala, eta kasu askotan Sailaren politiken xede diran sektoreetatik kanpo lan egiten dabela, eta juridikoki definiduta ez dagoanez, ezin da modu objektiboan zehaztu ze erakunde diran sektorekoak eta zeintzuk ez, erispide juridiko objektiboetan oinarrituta. Horregaitik guztiagaitik, zuon puntuen aurka egingo dogu.

Muchas gracias a todos/as por su atención.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor De Luis Zelaia. Y pasaremos al turno de réplica. Para ello, el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Parkatu nire zintzotasuna arean zakarra bada, baina Gobernua osotzen dozuen taldeetako bozeroaleek hona igon dabe 7 minutuz berba egiteko eta ez esateko ezer, ez esateko ezer edo ekarpenik ez egiteko. Eta nik uste dot Ganbera honetako edozein talderen mozinoak, batez be oposizinokoenak (geu gara-eta erregistretan doguzan bakarrak), erregistroz jasoten dozuezanean izaten dozuen jarrerea dala arazoa. Izan be, zuek irakurriko bazendue eta pentsau “ea zer proponiduten daben eta ea zer proponidu geinken guk…”. Ez, zuok aurretik ezetza daukazuela irakurten dozue, eta zera dinozue: “tira, ea zelan dinotsadan ezetz gaur aurkeztu daben honi”, gaia edozein dala be, bardin deutso azearen garapena, gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioa, bardin deutsue. Kontua da ea zelan beteten dogun denporea ezetz esateko. Eta zuok biok modu berean bete dozue, orain zer dagoan azalduta, beste erakunde batzuetan eta honetan be.

Begira, horretan Bizkaiko Foru Aldundia zer egiten ari dan jakiteko, Ekonomia Sustapeneko diputaduak joan dan hilean azaldu eban, eta sentiduten dot esatea baina askoz hobeto egin eban, gainera, harenbaten, Ekonomia Sustatzeko Sailaren errealidadea

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ezagutzen dauelako, logikoa dan moduan, hemen gutako inork baino zehatzago.

Hain zuzen be, Ekonomia Sustatzeko Sailak lankidetza puntualak edo txikiak egiten dauz gizarte-ekonomiako edo ekonomia sozial eta solidarioko erakundeakaz. Baina argi dago, eta zuek be esan dozue, ez dagoala lan egituratu, jarraitu eta espezifiko bat, batez be sektore honetako enpresa eta erakundeakaz, eta hori da mozino honen proposamen nagusia, lan espezifiko bat egon daitela. Izan be, diputaduari entzun geuntsan moduan, Sailaren dirulaguntzen eta laguntzen ibilbidea egin leikela esan eban, edozein kooperatibak egin leikela, handik zein txikik, eta danak izan leitekezala laguntza horreen onuradun, baina gainerako enpresen baldintza berberetan. Zera esan eban "ez dogu diskriminazinorik egiten forma juridikoan", eta hori da gaur mozino honetan dakarguna, eta zuek saihesten ari zariena, edo ebitetan ari zariena. Enpresa txiki eta ertainen adibidea jarri dot. Beraz, emoten dozuezan argudioakaitik, enpresa txiki eta ertainentzako laguntza espezifiko guztiak gaur bertan desagertu beharko lirateke, egun batetik bestera.

Eta batez be, uste dot sektoreari mesede eskasa egiten ari zariela; izan be, sektoreari berari entzungo bazeuntsie, zer eskatzen daben eta zer behar daben esaten entzungo zeunskie. Hain zuzen be, euren lanean eta errealidadean lagunduko deutseen berariazko neurriak eskatzen dabez eta behar dabez, euren errealidadea kontuan hartuta. Eta, jakina, ez deutsuet esango ez dakizuenik; izan be, jakina, badakizue hori egiten, badakizue sektoreakaz eta baita enpresa espezifikoakaz be alkarlanean aritzen, jakina. Jazoten dana da batzukaz bai eta beste batzukaz ez. Tira, bada, Iberdrolagaz gehiago jarduten dozue, Petronorregaz gehiago jarduten dozue, eta, gainera, industria-parke bat be egin deutsezue, eta Energy Intelligence Center bat be egin deutsezue. Orain ez dot gogoratzen zenbat kostau jakun, baina milioi asko.

Badakizue lankidetzan aritzen gizarte-ekonomiaren sektoreagaz eta ekonomia sozial eta solidarioaren sektoreagaz, zeuek emondako datu guztien arabera. Nik, azkenean, ez dot daturik emon, denpora barik gertau nazalako; zuek sektore horrek daukan garrantziari buruzko datuak emon dozuez. Izan be, emoten dozuen datu bakotxa, esan dodan moduan, ez da bakarrik mozino hau babestu daigun argudio bat, ezpada hemen laguntza espezifikoko proposamen zehatzak eztabaidatu daiguzan.

Egia esan, Euskal Herria Bilduren bozeroalearen berbaldiaz gain, puntu gehienakaz bat gatoz. Horregaitik, akordio batera heldu gara. Bigarren berbaldi interesgarriena Alderdi Popularreko Martínez andrearena iruditu jat, proposamenei banan-banan erantzun deutselako, bere eretxia emon dauelako, edo beste ze gai planteau geinken esan dauelako.

Laburbilduz, ze ekarpen egiten deutsan Plan Estrategiko batek halako tradizinoa daukan Lurralde bati. Gure ikuspuntutik, tradizino horregaz berenberegi lan egitea. PFEZren 59. artikuluaren gaia, izan be, esan dodan moduan, artikulu konplejua da, eta astiro eztabaidatu beharko litzateke, baina behintzat kenkari-ehunekoak parekatzea oinarri ona da hasteko.

Eta programa espezifikoei jagokenez, aztertu egin behar al da? Bai, baina mozinoan jaso dogun moduan, gizarte-ekonomiako eragileakaz eta ekonomia sozial eta solidarioagaz batera aztertu behar dala uste dot, eta barriro dinot eurei entzun beharko geunskiela hori…

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Vaya finalizando, por favor.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Bai, bukatzen noa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Zer eskatzen ari diran ikusteko, berariazko programak, sektore horri laguntzeko berariazko dirulaguntzak. Besterik ez. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Benito Ziluaga. El representante del grupo Euskal Herria Bildu, señor López Odriozola, tiene usted la palabra.

El Sr. **LÓPEZ ODRIOZOLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Egia esan, arean harrituta nago, harrituta, ez dot-eta entzun mozino honen maminaren aurkako benetako argudiorik. Zuek aitatu dozuen gauza bakotxak mozino honen alde baino ez dau egiten izan, ez dot entzun ondorioz aurka doan puntu bakar bat be, zeozeren kontra edo legediaren edo egiten ari danaren kontra egiten ari dala dinoan punturik. Baina, tira, gutako bakotxak uste dot gure kontraesanakaz jokatu behar dauela.

Dana dala, gauza batzuk aitatzeko baino ez. Nik, kasu honetan, datu batzuk aterako dodaz daukadan denpora laburrean. Alde batetik, datuez ari gara, lehen be esan dogu behargin kopurua, etab. Hara, batez be datu makroekonomikoetatik hasiko naz, eta gero gizarte-ekonomiara jatsiko dodaz, eta bi datu sano esanguratsu. Alde batetik, Bizkaiak %11,3ko langabezia-indizeagaz itxi eban 2022. urtea. Gizarte-ekonomiako enpresetan askoz be lurralde aberatsagoa dan Gipuzkoak, esaterako, %7,7koagaz itxi eban.

Eskualdera bagoaz, gizarte-ekonomiako enpresen kontzentrazino nahiko handia dagoan eskualdera, hau da, Debagoienera, %5,4ko langabezia, kooperatibak bakarrik, beste jarduera mueta batzuk kontuan hartu barik, eta horreek be badagoz, baina ez dira hain nagusi. Ez dago datu horreetara hurbiltzen dan Bizkaiko eskualderik, ezta Gipuzkoako batez bestekora be. Eustatek emondako datuen arabera (ez dira EH Bilduk emondako datuak), Bizkaiko eskualde bat bera be ez da Gipuzkoako batez bestekora hurbiltzen, hau da, %7,7ra.

Horren haritik, beste adierazle bat: I+G. Barrikuntzeari jagokonez, De Luis jaunak barrikuntzeari buruzko gaiak be aitatu dauz. I+Gri jagokonez, Bizkaiak Barne Produktu Gordinaren %1,95 dauka. Gipuzkoa %2,5era hurreratzen ari da. Baina goazen barriro lehen aitatu dogun eskualde berera. Lehen aitatu dogun eskualde berak, hau da, Debagoienak, %4,20 eukiko leuke; bat, Europar Batasuneko batez bestekoaren sano gainetik; eta bi, orain dala urte batzuk Eusko Legebiltzarrak %3ra heltzeko jarri eban helburuaren gainetik.

Ez gara ari esaten, ez dogu esaten egin dana desegin behar danik; esaten ari garana da neurri mesedegarriak aplikau behar dirala kooperatibak enpleoaren zein lehiakortasunaren palanka izan daitezan. Era berean, gizarte-ekonomiako enpresak nazinoartekotu egiten dirala be esaten ari gara; De Luis jaunak aitatu dauen beste GJHetako bat nazinoartekotzea izan da. Nazinoartekotu be egiten dira. Beraz, ez dogu ikusten mozino honetan aitatzen danak talka egiten dauenik esan dozuenagaz.

Era berean, egia da aitamen handia egin jakona Eusko Jaurlaritzan esaten danari, berbarako, Mendia andreak; Trimiño Vegas jaunak esan deusku. Jatsi daigun apur bat Bizkaira. Ez dogu eskatzen Eusko Jaurlaritzan esaten dana ez daitela egin. Arabere gehiago, Eusko Jaurlaritzearen Gizarte Ekonomiako Plan Estrategikoa hemen ezarteko aprobetxau daitela be esan dogu. Ez dogu esaten baztertzen dogunik, ezpada dagoana aprobetxau daigula legorrera jasteko, Bizkaira.

Horregaitik dinotsuet harrituta nagoala honegaz. Eta gauza bakarra:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gizarte-ekonomiako enpresek errotzea dakarre, tokiko garapenagaz konpromisoa. Hara, hemen gero eta gehiago ikusten ari garan multinazionalek ez dabe konpromiso hori, eta edozein unetan, hemen ez dagoan erabagigune baten erabagi bategaitik hartu leikie erabagi hori.

Zoritxarrez, horren adibide argia dogu oraintxe bertan, Bizkaian, Bizkaiko enpresarik zaharrena dan Santa Ana de Boluetagaz. Familia eskuetatik finlandiarren eskuetara lehenik eta gero estatubatuarren eskuetara pasau dan enpresea, orain krisi egoeran egoteko. Multinazional bat heldu danean, bere bezero-zorroa hartu dau Afrikan, ez eukan bezero-zorroa, eta hilten itxiko dau. Enpresa horren batzordeak daborduko alderdi bakotxera bisitea egin deusku. Hemendik, gure babesik zintzoena Santa Ana de Boluetako beharginei, baina ikusi daigun hemengo beharginen partaidetzea daukan enpresa batek ez daukala horrenbesteko arazorik.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor López Odriozola. El Grupo Mixto no va a intervenir. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Trimiño Vegas, tiene usted la palabra.

El Sr. **TRIMIÑO VEGAS** jaunak: Muchas gracias de nuevo.

Tira, eta planteautako gairen bati erantzutearren. Guk Eusko Jaurlaritzearen Gizarte Ekonomiako Plan Estrategikoaz berba egiten dogunean, jakina, ez dogu ulertzen gauza isolatu lez, Lurralde honetan lurreratu ezin dana, ezpada gauza on bat lez, hor dagoan tresna bat lez, eta gure ustez, planak ez dira gainjarri edo bikoiztu behar, ezpada plan horreek Foru Aldundiaren ekintzan txertatu. Izan be, gainera, aitatu dodan moduan, Planean bertan gai jakin batzuetan lan egiteko eskatu jako Foru Aldundiari. Halanda ze, nik uste dot, zentzun horretan, bat gatozala.

Podemosen berbaldiari jagokonez, gauza batzuei erantzun gura deutset; izan be, tira, zuk berbaldien kalidadeari eta egitureari buruzko balio-eretxiak egiteko aukerea izan dozu, eta zure erantzunean denporearen heren bat emon dozu aurreko berbaldiak deskalifiketan, beste heren bat diputaduak aurreko Osoko Bilkuran esandakoa errepetiduten, eta beste herenean zuk proponiduten dozunagaz zerikusirik ez daben gauzak izan dozuz berbabide. Halanda ze, ez dakit besteen berbaldien kalidadea epaitzeko oso baimenduta ete zagozan, baina, tira, esatera nindoana.

ETEen adibidea jarri dozu: hemen, Aldundi honetan ez dirala modu positiboan diskriminetan gizarte-ekonomiako erakundeak. Nik bi adibide emon deutsudaz, eta ez dakit aitatu dodazanean non egon zaran, baina uste dot ez zarala entzuten egon. Izan be, esan dot Eusko Jaurlaritzearen Gizarte Ekonomiako Plan Estrategikoak aitatzen dauela Aldundiak, erosketa publikoa egiten dauenean, lehentasuna emongo deutsela gizarte-ekonomiaren sektore sozialeko erakundeei. Eta emon deutsudan diskriminazino positiboaren bigarren adibidea Enpleo, Gizarteratze eta Bardintasun Sailari buruzkoa da, enpresak abian jarteko, manteniduteko edo enpresa-transmisinorako laguntza-lerroetan enpresak ikuspegi juridikoan modu positiboan diskriminetan diranean, eta, beraz, bi adibide emon deutsudaz.

Egia da, baita be, gatxa dana eztabaida batera hurbiltzea zeozelan esateagaitik, begi bat estalita edo beso bat lotuta daukagunean, gizarte-ekonomiaz berba egin gura dozulako kontuan hartu barik gizarte-ekonomia gehienbat kudeatzen dauen saila. Ez bere lana Sustapen Ekonomikoak baino hobeto edo okerrago egiten dauelako, ezpada Bizkaiko Foru Aldundiko zereginen eta eskumenen banaketeak ezarten dauelako gizarte-ekonomia, gehienbat, Enpleo, Gizarteratze eta Bardintasun Sailak kudeatuko dauela. Halanda ze, hori

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jakin barik zatoz eztabaida honetara, eta, ba, jakina, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoerearen errealidadetik sano hurbil ez dagoan modu baten egiten deutsazu aurre eztabaideari. Beharbada ondo egongo zan Foru Aldundi honen errealidadean arean gehiago sakondu izan bazendu, gizarte-ekonomiaren kudeaketeari edo bultzadeari jagokonez.

Edozelan be, nik barriro dinot, eta uste dot argi dagoala eta erakusten dogula lan egiten dogun erakundeetan. Iraunkortasun-paradigmak lortzeko lan egiten dauen enpresa-eredu baten sinisten dogu, ez bakarrik iraunkortasun ekonomikoa, jakina, ezpada soziala eta ingurumenekoa be; inguruneagaz arduratsuak diran enpresak, balioa sortzen daben enpresak, baina balio ekonomikoa ez ezik, kulturala, soziala edo ekonomikoa be izan leiteken balioa. Azken baten, helburuakaz ekiten daben enpresak, gure ustez GJHek ez dabe itxurea bakarrik erakutsi behar; enpresa-ekimenen, proiektu ekonomikoen eta ekintzailetza-jardueren munean dagoan zeozer izan behar dira. Eta uste dot nire aurreko berbaldian orain esaten ari nazana adierazoten emon dodala denporea: Espainiako Gobernuan eta Eusko Jaurlaritzan egiten ari dala, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren bitartez, arlo horretan eskumenak dabezan 2 sailetan, batean bestean baino eskumen gehiagogaz. Baina, jakina, gatxa da azterketa serio eta zorrotzak egitea, aurrean dagoan errealidadearen erdia alde batera itxi ezkero.

Baina, tira, nire aldetik, besterik ez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Trimiño Vegas. Y para finalizar con el debate, el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor De Luis Zelaia, tiene usted la palabra.

El Sr. **DE LUIS ZELAIA** jaunak: Buenos días de nuevo.

Perdone, Benito jauna, nire lehenengo berbaldia ez bajatzu gustau. Benetan, sentiduten dot. Eta horrelan dala esan behar deutsut, Benito jauna: gure taldeak dagozan planetan sinisten dau, horixe baino ez zan falta! Gizarte-ekonomia garatzeko plan inklusibo bat daukagu, beti be Sailaren ardatzakaz lerrokatuta eta GJHakaz lerrokatuta.

Ez dot ulertzen zergaitik iruditzen jatzun txarto PFEZaren Foru Arauaren aldaketeagaz ados ez egotea gu. Beti puntu bardinetan bukatzen dogula iruditzen jat, BAT, Petronor, gaur Amancio Ortega aitatu dozu, eta azken berbaldian Ferrovial entzun dot. Ez dot esandakoa errepetiduko: plan inklusibo eta sozial bat daukagu, PFEZari buruzko Foru Arauan sinisten dogu, eta urratsak emoten ari gara sektoreagaz.

Horregaitik, zure mozinoaren aurka egin behar dogula uste dogu, ez zure eskaerearen aurka gagozalako, horren inguruan lanean ari garala uste dodalako baino. Muchas gracias, eta ea bigarren berbaldiagaz ez deutsudan hutsik egin.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor De Luis Zelaia.

Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la transaccional. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido en total 46 votos. Han sido 14 a favor, en contra han sido 31, 1 abstención. Por lo tanto, no se ha aprobado la transaccional.

Y llegados a este punto, interrumpiremos la Sesión Plenaria hasta las 16:00 horas. Hasta luego.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Etenaldia egin da

Se efectúa un receso

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señores y señoras, buenas tardes. Continuaremos con la Sesión Plenaria. Diputado General, apoderados/as, junteros/as. Dispuestos/as a retomar la sesión de la tarde.

El punto séptimo del Orden del Día. Y en este punto debatiremos la moción presentada por la señora Iratxe Arriola Alzola.

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación (R.E.11/E/2023/0000341)
Autor: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)
Asunto: La situación de la actividad forestal
Documento Principal: (R.E.11/E/2023/0000341)
Boletines: Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas (79A)
Expediente: (11/B/20/0004237)

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa (11/E/2023/0000341SE)
Egilea: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)
Gaia: Basogintzaren egoera
Dokumentu Nagusia: (11/E/2023/0000341SE)
Aldizkariak: Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea (79A)
Espedientea: (11/B/20/0004237)

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta, buenas tardes a todos/as. Tenemos una vez más como tema de conversación la actividad forestal.

Han sido muchas también las propuestas que EH Bildu ha traído a esta Cámara en esta legislatura en torno a este tema, y el debate está presente en la calle y en la sociedad y se han extendido las conversaciones tanto en los bares como en la prensa y los medios de comunicación. La DFB aplicó la moratoria al eucalipto y la Norma Foral Forestal de Bizkaia está en fase de revisión. A esta marcha da la impresión de que en breve tendremos el borrador en la mano, pero todavía no disponemos de él. No vemos con claridad qué medidas va a adoptar la DFB para fomentar el territorio y el sector vivo en lo relacionado al bosque, y finalmente en la sesión anterior Amaia Antxustegi nos mencionó que la conclusión que extrajo de las jornadas de noviembre era que toda actividad forestal tiene cabida en Bizkaia. Y eso nos preocupa: ¿no se pondrán límites a la monolabranza forestal destructiva? A lo que ha llevado al caserío a la asfixia, a lo que ha supuesto la pérdida de la biodiversidad, a lo que ha generado la rápida expansión de especies invasoras, pérdida de suelo, desprendimientos, falta de regulación del agua, riesgo de incendios y degradación del paisaje; y esa es la justificación o preocupación de la moción de hoy.

Todo ello debe estar muy presente en la Revisión de la nueva Norma Foral de Montes, a no ser que se pretenda que Bizkaia sea un territorio no seguro y no resiliente. Entendemos que en esta fase de revisión de la Norma Foral es imprescindible la planificación, tenemos que tener presente la planificación para generar la entrada de bosques maduros. No disponemos de bosques maduros, porque se talan antes. Ese hecho, el tener bosques maduros, entre otras cosas, nos reportará mitigación, adaptación y otros beneficios

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

para el conjunto de la sociedad.

Con esta moción hemos querido conocer cuál es el compromiso que la Diputación Foral de Bizkaia está dispuesta a asumir, hemos querido poner el termómetro, en qué dirección va a dar los pasos antes de la revisión de esa Norma Foral. Por ejemplo, en el primer punto, pedíamos que lidere la transición en terrenos de la DFB. Hay 31.000 hectáreas de terreno público, 21.700 de ellas en monocultivo, y 2.700 hectáreas con eucaliptos. Es cierto que la DFB ha adquirido 300 hectáreas para introducir robledales, pero eso multiplicado por 100 existe en terreno público y ahí no se ha tramitado ninguna transición, y eso es lo que pedíamos con plazos en el primer punto. También solicitábamos que no se llevara a cabo ninguna tala a matarrasa en esos terrenos, en esos suelos públicos. Hemos hablado mucho también sobre la erosión, y hoy he traído el Mapa de erosión de suelos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de 2005, que señala: "deforestetan dan landarez estaldutako lurzoruak materia organikoaren eukiaren zati handi bat galtzen dau, eta haren egiturea degradau egiten da. Higadureari begira, lurzoruak babesteko modurik onena landare-estalgi garrantzitsua mantenidutea da".

El Inventario de erosión nacional de suelos, de 2018, señala lo mismo; por lo tanto, la gestión es importante. Es importante que no se hagan matarrasas, que es lo que pedíamos en el primer punto.

También solicitábamos que se encauzaran bien las subvenciones, ya que contamos con 132.000 hectáreas de arbolado plantado en Bizkaia, y solicitábamos que se revisaran las líneas de subvención, suprimir los criterios no sostenibles, por ejemplo, eliminar la robinia pseudoacacia invasora entre los y las beneficiarias. En realidad, pedíamos que no se castigara el bosque que viene, que en la actualidad se penaliza, ¿por qué? Porque el coste es de 2.000 € por hectárea, por esos trabajos, y porque se abonan 610 € por hectárea. Así que está castigado frente a otras opciones. Al igual que está penalizado el fomento de bosques de producción próximos a la naturaleza, porque se apoya en un 40% mientras que otras alternativas se apoyan en un 100%, el coste es de 5.000 € por hectárea, y la ayuda es de 2.000 € por hectárea.

¿Y qué más dice nuestra moción? Pues bien, concretamente solicitamos que se ponga en marcha el planeamiento 1994-2030, para declarar y ampliar los bosques protectores. En las preguntas por escrito que realizamos se nos dijo desde la Diputación Foral que en los últimos 15 años no se ha declarado ningún bosque protector, y solicitábamos que se continuara con esas declaraciones.

El último punto es la extensión de la medida 15 del Planeamiento de Desarrollo Rural al conjunto de Bizkaia. ¿Cuál es esa medida? Servicios silvoambientales y climáticos y conservación de los bosques. Eso hoy en día solo se limita a algunas zonas, y solicitábamos que se extiendan al conjunto de Bizkaia. En fin, Elkarrekin Bizkaia presentó una propuesta para añadir ciertos puntos, y los aceptamos. Aceptamos, en concreto, los puntos primero y tercero. Uno de ellos hace referencia a que se tenga en cuenta el uso múltiple del bosque, algo que nos parece imprescindible. Y creemos que se realiza de esa manera, lo único que es incompatible, porque la silvicultura es intensiva.

Y el tercer punto, una amplia participación, una amplia consulta a la hora de diseñar líneas de subvención amplias, eso también, cómo no, interesante.

¿Qué decir de la propuesta del PNV-PSOE? Pues bien, que el texto es muy genérico, palabras que tienen buena pinta, no hay mención alguna del nuevo modelo, ahí no se ven escenarios posmoratorios, podrían mejorarse ampliamente, lo hemos intentado, Gorka, lo hemos intentado, pero no hemos logrado que incluyan una única letra de las aportaciones realizadas a su enmienda.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

¿Qué les pedíamos que incluyeran en su enmienda? Pues muy pocas cosas, pero sí las concreciones. En primer lugar, un calendario, los plazos, por dar un poco de seriedad, ¿cuándo se van a poner en transición los terrenos de la Diputación? Porque, como se ha dicho, existen 30.000 hectáreas de terrenos públicos y 7.000 de ellos patrimoniales, y se han adquirido 300 hectáreas, pero claro, 300 hectáreas comparando con 30.000 es cien veces menos. Entonces, eso; también pedimos plazos para la declaración de los montes protectores, modelo de bosques de producción próximos a la naturaleza, que ustedes mismos pongan en marcha en alguna parcela de tierra, como proyecto piloto, y dar posibilidades reales a los nuevos modelos de producción para poder hacerlo con especies autóctonas.

Que se pongan en marcha montes irregulares y modelos Prosilva. Muchas palabras y nada, eso es lo que dice su enmienda, no hay voluntad de acercamiento, no hay voluntad de acuerdos. Como se ha dicho, el texto es pobre, de escaso contenido nuevo, si no vienen nuevas políticas es inútil que se aprueben este tipo de textos generales, y por eso no lo aceptamos. Ya dijimos que la apuesta por los autóctonos necesita de una estrategia sólida por detrás. En Bizkaia no hay una estrategia fuerte, y eso implica riesgo de fracaso. Y lo dicho, ustedes, los grupos que están en el gobierno no quieren liderar esta transición, y eso nos produce pena, y planteamos nuestra moción porque creemos que es una moción de mínimos y que no hay excusas para no admitirla. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Arriola Alzola. Presentaron enmiendas tanto Elkarrekin Bizkaia como Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos; por lo tanto, en este momento, el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Fernández Medrano, tiene usted la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, aurretiazko gogoeta lez, proposamena egin dauen taldeak, bere errazoiketan eta azalpenean, oraintxe bertan mendiei buruzko Foru Arauaren berrikuspenari egin deutso erreferentzia, eta hori badago martxan. Aldundiaren barruan edo propagandearen bidez dago, edo susmo edo asmo lez. Izan be, hemen, legegintzaldi hau amaitu arte, ez da mendiei buruzko foru-araurik aldatuko, hamar egunen buruan indarbakotu egingo garalako, legegintzaldi osoan izan ez dan premina justifiketan ez bada behintzat ez da ezer egingo. Egin dan gauza bakarra, eta egia da entzun doguna, aurreko itauna, kontsulta bat, edo publiko orokorrak ikusi leiken gauza bakarra, itxuraz sano emonkorra izan ez dan kontsulta bat izan da. Kokatu gaitezan, ez gara foru-arau bat bera be aldatzen ari gaur hemen; geratzen jakona geratzen jakon gobernu bati asmoen adierazpen bat ateraten saiatzen ari gara. Hori da aldez aurretik egiten dodan gogoetea. Abiau gaitezan hortik.

Bilduren proposamenak lau puntu ditu. Lehenengoa, eukalipto pinuak Aldundiaren jaubetzako mendietatik kentzea. Gure ustez, interesgarria da, ez bakarrik gure mendien errealidadea de facto konpentsetako. Izan be, pinu-monolaborantzak dira eta orain eukalipto dezente dago moratoriaren aurreko bi urteetatik hona. Ez dogu horrelan bakarrik balioesten, ezpada jaube pribaduentzako eredu bat sortzeko modu lez be, baso baten doe ekonomiko eta ekologikoak baliau eraginda.

Bigarren puntuan, zur-ekoizpen jasangarria jagon daitela eta horren arabera jarduteko eskatzen da. Gai horrek poztu egin gaitu, eta uste dogu Aldundia daborduko hori egiten egon behar zala. Bestalde, “naturatik hur” deitu izan dogun horren ekoizpena finantzetako be eskatzen da: naturatik hur dagoan ekoizpena, eredu bat dana, naturatik hur dagoan basogintzearena, eta hori gure taldeak be behin baino gehiagotan defendidu eta aldarrikatu dau. Apurka-apurka bai gure inguruan eta bai gure lurraldean zabaltzen ari dan

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

monolaborantzen ordezko errealidadea da, gobernetan ari diranek ikusi gura badabe zein ez badabe ikusi gura be.

Arretea jarri behar jako, eta sustatu. Bat gatoz.

Hirugarren puntua: alderdi zentzun-zentzunezkoa dan baso babesleak zabaltzea, bai ekologiaren ikuspegitik eta bai segurtasunaren ikuspegitik.

Eta, azkenik, laugarrena, basogintza-, ingurumen- eta klima-zerbitzuak emoteko eta basoak kontserbetako jardueren finantzaketea probintzia osora zabaltzea. Landa Garapeneko Programearen 15. puntua, Arriola ahaldunak esan dauen moduan, probintzia osora zabaltzea laguntzen gaia.

Tira, neurri horreek guztiak modu batera edo bestera Elkarrekin Bizkaiaren babesa jaso dabe, edo gure taldeak berak proponidu dauz hainbat alditan, dala aurrekontuetan, ohiko batzordeetan zein osoko bilkuretan.

Ekimen hau osotzeko eta asmo handiagokoa izan daiten, zuzenketa bat aurkeztu dogu. Bertan, hiru puntu gehitu doguz, proposamen hau asmo handiagokoa izan daiten ikuspegi sozialean, asmo handiagokoa ikuspegi ekologikoan eta asmo handiagokoa ikuspegi ekonomikoan. Gure lehenengo puntua ikuspegi sozialean asmo handiagokoa izateari jagoko. Basogintzea, berez, zugatzen inguruko lehen sektoreko jarduera ekonomikoak dira, zehatzago esanda, egurraren ingurukoak. Horri buruz berba egiten ari gara ekimenean, baina gure mendietan, danok dakigun moduan, beste jarduera ekonomiko batzuk jazoten dira, esaterako, abeltzaintzea. Batzuetan logika ekonomikoaren kontrako jarduerak be emoten dira, esaterako, aisialdiagaz, jarduera ludikoakaz, jolas-jarduerakaz lotutakoak. Gure mendien errealidadea anitza eta askotarikoa da. Kontua ez da edozein baso-jarduerak gure mendietan tokia izan behar dauela, ezpada edozein jarduerak, orokorrean, edo balizko edozein jarduerak lekua izan behar dauela.

Bizkaiko Foru Aldundiak, eskura daukazan bitartekoen bidez, mendietan egurraren jarduereagaz batera dagozan erabilerak manteniduten dirala jagon dagiala eskatu dogu. Ze baliabide eskuragarri? Batez be, mendien antolamendua dogu buruan, titulartasun guztiena, erispide horri jarraituta. Ezpabere, mendien erabileran egon leitekezan tentsinoak luzatu egiten dira denporeagaz, eta egoera onartezinetara heldu arte enkistetan dira. Jakina, bere garaian Trianoko abeltzainek izan eben jazarpen-egoeran pentsetan ari naz. Zugaztieta, Aldundiaren mendia, demokraziara heldu zanetik modu formalean eta legez mugarritu barik, gure mendien erabilerea ez arautzeak nora eroan ahal gaituan erakusten dauen adibidea izan da. Ze adibide emoten ari gara Bizkaiko basoaren gehiengoa daben jaube pribaduei, erispide hori jarraitzen ez badogu?

Halanda ze, gure lehenengo puntuan, hainbat erabilera eta jarduera alkarregaz bizi diran basoak defendidu doguz, eta uste dogu proposamen horrek EH Bilduren ekimena asmo handiagoko proposamen bihurtzen dauela arlo sozialean.

Bigarren puntua, ikuspegi ekologikotik asmo handiagokoa dan proposamena. Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenean, onartu edo ez onartu alde batera itxita, uste dogu biodibersidadea babesteko daukan eskumenean, Aldundiak neurri egokiak hartu beharko leukezala bere titulartasunekoak diran lurzatiak lehendik dagozan erakunde natural babestuei atxikitzeko. Zer esan gura dau horregaz? Bizkaiko eremu babestuak handitzea, gure titulartasunekoak diran eta naturagune babestuetatik hur dagozan lurrakaz. Aldundiaren betebeharra da elementu natural adierazgarri, berezi, hauskor, mehatxatu edo interes bereziko edozein handitzea. Bere lurrakaz egin dagiala, naturagune babestu horreek handitu daizala. Gure ustez, interesgarria da eta ekimena alderdi ekologikoan asmo handiagoko ekimen bihurtuko leuke.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Eta, azkenik, hirugarren puntuan, zuzenketa bat planteau dogu, alderdi ekonomikoan asmo handiagokoa izan daiten. Bizkaiko baso gehienak, esan dodan moduan, esku pribaduetan dagoz. Horretan eragiteko modua, askotan esan dogu, diruz lagundutako basoen eredu horretan, beste batzuetan esan dodan lez, urteroko baso-laguntzen dekretua eta horreek arautzen dabezan erispideak kontuan hartzea da.

Hori badakigu bertan gagozan guztiok, eta egingo dan Mendiei buruzko Foru Arauaren ustezko aldaketez edo balizko aldaketez gain, beharrezkoa da jakitea baso-laguntzei buruzko urteko dekretu horri buruzko eretxia, ez bakarrik adituena, ezpada interesa daben eragileena eta gizarte zibilarena be. Nire ustez, hori beharbada modu zabalagoan edo orokorragoan egin diran beste batzuk baino kontsulta emonkorragoa izango litzateke. Eta horrelan, ekimena asmo handiagoko ekimen bihurtuko geunke, ekonomiari jagokonez. Uste dot proposamena egin dauen taldearen eta Elkarrekin Bizkaia taldearen arteko akordio bat egon dala legegintzaldi honetan baso-politikei jagokenez, eta ekimen horren alde bozkatuko dogu, gure koordenadu politikoetan dagoalako. Dana dala, zuzenketa honeekaz aberastu dogula uste dogu. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Fernández Medrano. A continuación, el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene usted la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenas tardes a todos y a todas.

Hain zuzen be, EH Bilduk proponidutako itaunetik eratorritako mozino hau daukagu, basogintzearen egoereari buruzkoa. Gainera, esan dan moduan, Elkarrekin Bizkaiak, Euzko Abertzaleak taldeak eta guk geuk, Euskal Sozialistok zuzenketea aurkeztu dogu. Hasteko, beste batzuetan esan dogun moduan, komenidu da argitzea Bizkaiko basoetatik %65 pribaduak dirala eta %25 esku publikoetan dagozala. Hau kontuan hartu beharreko gauza garrantzitsua da. Euskal Sozialistak eta Aldundia bat gatoz basogintzearen egoereagaz erakusten dozun kezkeagaz, eta urte asko daroaguz horretan. Gogorarazoko deutsuet 1994. urte haretan sortu zala mendiei buruzko lehenengo foru-araua, eta orain berrikusten ari garala; beraz, beti lanean.

Ordurik hona, basogintzea zentzun guztietan hobetu daben hainbat neurri hartu dira, eta beti be garapen jasangarria bilatu eta lehenetsi dogu. Lau besterik ez dodaz aitatuko. Eukaliptoaren moratoria ezarri da. Inguruneko kalteak minimizetako lan-metodoei buruzko aholkularitzea emoten jake enpresei. Bertako espezieak barriro sartzeko lursailak erosten ari gara. Eta joan dan zemendian, baso-kudeaketako ereduei buruzko jardunaldiak egin ziran, eta gai nagusi honeek jorratu ziran: azken produktu jasangarri bat lortzeko ziurtagiriaren garrantzia, erakundeen eta sektoreko eragileen arteko lankidetzearen garrantzia, ekosistema-zerbitzuen garrantzia, klima-aldaketearen ondorioz mendiek jasaten dabezan mehatxuak eta horreen ondorioak minimizetako alkarregaz lan egiteko beharra. Hau da, gauza asko egiten ari gara, barriro dinot, egiten ari gara eta ez gara ezerezetik abiarazoten. Gainera, Diputadu andreak Kontroleko Osoko Bilkuran deskribidu eutsuzanak dagoz, eta ez dodaz barriro esango, hainbeste diran ezkero ez neuke-eta ia astirik eukiko. Halanda be, zuon eretxiz, gitxi dira. Ez daukazue argi, zalantzan jarten dozue bere eraginkortasuna eta horregaitik dakarzue gaur mozino hau. Bada, gu, gaiaren garrantzia dala eta, ez gara aurka bozkatzera mugatu, eta zuzenketa bat prestau dogu, mozinoaren xedea ardatz daukana eta EH Bilduk proposatzaile lez eskatzen dauena eta Elkarrekin Bizkaiak zuzenketa lez proponiduten dauena hobeto jasoten dauena, eta honako hau dinoana:

Basogintzearen kudeaketan, epe ertain eta luzerako ikuspegi estrategikoa

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

izan behar dogu, euskal basogintza-sektorean sortzen diran erronka barriei erantzuteko, baina joera eta eredu nazionalak eta nazinoartekoak kontuan hartuta. Datozan urteetako basogintza-politikeak kontuan izan behar dauz mendietan eta Bizkaiko baso-baliabideen plangintzan biltzen diran ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arloko helburu eta interes ugariak.

Etorkizunean lurraldean ezarriko dan basogintza-politikeak izaera multidimentsionala euki behar dau, eta, alde batetik, ikuspegi sozioekonomikoa integrau behar dau, landa-garapena bultzatzeko, gure lurraldeko BPGari eta enpleo-sorrereari modu aktiboan lagunduko deutsan ekoizpen-sektoreari eusteko, eta, bestetik, ingurumena kontserbetako, baso-espezie eta baso-ibilbide desbardinen arteko orekearen bidez. Baliabide barriztagarriak eta hurbiltasunekoak erabiltea, bioekonomia eta, batez be, ekonomia hipokarbonikorako trantsizinoa.

Hori guztia lortzeko, lehenengo eta bat, Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie, bere jaubetzako lurretan pinu eta eukaliptoen landaketak baso autoktonora aldatzeko prozesua bultzatzen jarraitu dagiala, barriro dinot, jarraitu dagiala, baso-kudeaketa jasangarriaren kudeaketa horren hiru helburuak betetearen testuinguruan: ingurumenekoa, ekonomikoa eta soziala. Euskal Herria Bilduk lehenengo puntuan eta Elkarrekin Bizkaiak lehenengo eta bigarren puntuetan eskatzen dabena jasoten dau.

Bi. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie basogintzarako laguntzen helburua izan daitela inbersino jasangarriak egitea Bizkaiko Lurralde Historikoko azpiegituretan eta baso-eremuen garapenean, bai eta basoen bideragarritasuna hobetzea be, ekoizpen-, babes- eta kontserbazino-erabilerak bateragarri eginda. EH Bilduren bigarren puntua jasoten dau. Gainera, praxi txarrak zigortu egiten dira ja eta espezie autoktonoak barriro sartzeko dirulaguntzak be emoten dira.

Hiru. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie jarraitu dagiala baso babesleen izaerea jagoten, higadurearen aurrean jarduten, ura eta ur-ibilguak babesten, Mendiei buruzko Foru Araua eta indarrean dagoan Euskal Basogintza Plana barritzearen testuinguruan. Euskal Herria Bilduk hirugarren puntuan eskatzen dauena jasoten dau.

Lau. Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsie aztertu dagiala baso-ekosistemen ingurumen-balioa eta egokitzapen-ahalmena handitzeko inbersinoetara bideratutako egungo laguntza-lerroa Bizkai osora hedatzea. EH Bilduren laugarren puntua jasoten dau, LGPren 15. puntuaren luzapena urtarrilaren 10eko 3/2023 Foru Dekretuan jasota dago-eta. Inbersino ez-produktiboak aitatzen dauz; 688 epigrafea.

Gure ikuspuntutik, zuzenketa honek hobeto jasoten dau zuon mozinoaren espiritua. Egingo danari buruz berba egiten dau, baina une honetan egiten ari danari balioa emoten deutso, hau da, ez gara hutsetik abietan. Beraz, gure zuzenketea onartu daitela espero dogu, bestela, zure mozinoaren aurka bozkatuko dogu.

Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Ortiz Zaballa. El representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Beitia Zurinaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BEITIA ZURINAGA** jaunak: Buenas tardes a todos y a todas, y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

muchas gracias, señora Presidenta.

Con motivo de la moción derivada de la interpelación presentada por EH Bildu en la sesión anterior, estamos hablando de la política forestal de la Diputación. El grupo Nacionalistas Vascos hemos presentado una enmienda junto con los Socialistas Vascos, y para empezar en esta primera intervención hablaré de la enmienda o me centraré en la enmienda que hemos presentado, para luego en el segundo turno responder a todo lo que se haya manifestado.

En base a la justificación, bueno, no voy a leer todo, pero, bueno, para hacer una mención principal, la enmienda está dirigida a una visión estratégica a medio y largo plazo, con el fin de unificar los numerosos objetivos e intereses de tipo medioambiental, económico y social. Y para ello, cuatro puntos…, hemos cumplimentado 4 puntos en la enmienda. No voy a leerlos puesto que ya lo ha hecho previamente Jesús, del grupo Socialistas Vascos, pero sí voy a justificar un poco cada uno de los puntos.

El primer punto, por ejemplo, la Diputación Foral de Bizkaia inició hace más de 10 años el proceso de transformación de los montes de su propiedad para su reforestación y restauración con especies autóctonas. De hecho, esta línea de actuación se ha reforzado y potenciado notablemente a lo largo de esta legislatura, a través del proyecto de adquisición de montes y restauración natural de montes, con frondosas autóctonas, sobre todo con robles autóctonos.

De este modo, la Diputación Foral de Bizkaia continúa con el proceso de reforestación de los montes del país a través de diversas iniciativas que persiguen el mismo objetivo: la manera de incrementar la superficie forestal ocupada por los bosques autóctonos para lograr de forma sostenible el equilibrio entre la conservación de estos espacios naturales y el desarrollo de la actividad económica del sector forestal. Una de esas iniciativas ha sido la compra de terrenos del monte a propietarios/as particulares, que entre los años 2021 y 2022, según mis datos, son 550 hectáreas de superficie. No difiere mucho de lo que usted ha comentado, pero bueno, según mis datos, se han adquirido 550 hectáreas de superficie, para lo que en 2021 se invirtieron 1,7 millones de euros y en 2022, 1,5 millones de euros.

En el segundo punto hay que mencionar que, en cuanto al programa de ayudas para la realización de inversiones en infraestructuras, el desarrollo de zonas forestales y la mejora de la viabilidad de los bosques en el País Histórico de Bizkaia, cabe destacar que el Decreto Foral se publicó el 19 de enero de 2023, en el que se dotaba de una cantidad competitiva superior a los 4 millones de euros, pudiéndose prorrogar las solicitudes hasta el 3 de abril de 2023. Las cuantías que se fijan para las ayudas dentro del marco normativo de la Unión Europea alcanzan el máximo y dependen del esfuerzo inversor y de la rentabilidad en función de la duración del turno. Al margen de definiciones y denominaciones, la gestión forestal sostenible es la base sobre la que se conceden estas subvenciones y es una producción forestal próxima a la naturaleza que recoge todas las características y beneficios ambientales que deben conservarse y preservarse.

Para la concesión de todas las ayudas resulta necesario contar con un Plan de Gestión Forestal Sostenible. Y en muchos casos estas ayudas llegan al 100%, por ejemplo, en la convocatoria anual, donde la inversión para especies de ayudas llega al 100% en subvenciones.

En base a lo que planteamos en el tercer punto, resulta una evidencia científica que cualquier especie forestal que ocupe la cubierta forestal es un elemento protector frente a la erosión, es una medida de lucha, es tener nuestro entorno lleno de bosques, así como un factor de regulación hídrica. En este sentido, desde la publicación de la Norma Foral de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos, de 1994, se protege

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eficazmente esta cubierta forestal, siendo obligatoria la replantación o regeneración de forma natural de la cubierta forestal en función de las talas de regeneración.

Para evitar esto, la principal fuente de erosión, es decir, la pérdida de suelo erosivo se debe principalmente a la precipitación en nuestro entorno, tal y como señala la señora Arriola. En este contexto, el mayor riesgo de erosión se produce en el suelo desnudo expuesto a precipitaciones y emanaciones. En el caso de suelos con cubierta arbórea, independientemente de la especie, la superficie no aumenta con la erosión. En este sentido, en los suelos actualmente definidos por la normativa como suelos forestales se obliga a la repoblación en un plazo máximo de dos años desde la tala.

Y en el punto que planteamos en último lugar, debo mencionar que el 10 de enero de 2023, el Decreto Foral por el que se desarrolla la zona forestal en la que la Diputación Foral de Bizkaia realiza inversiones en infraestructuras en el Territorio Histórico y la viabilidad de los bosques, como he dicho, establece varios puntos, como son la gestión de las plantaciones forestales que incrementen el valor medioambiental, la sustitución de estos bosques con especies autóctonas por especies propias del lugar, y el uso del bosque autóctono, garantizar los servicios ecosistémicos, garantizar los servicios ecosistémicos en el bosque natural. Para ello hay que cumplir una serie de compromisos, pero bueno, porque hay que tener en cuenta la Red Natura 2000 pero, en definitiva, estas inversiones en actividades forestales deben realizarse en los bosques de la Red, ya que son áreas prioritarias de actuación, con unos recursos económicos limitados. La decisión política que se adopta en cada momento es cambiar o no cambiar. Pero bueno, hay que señalar que tal y como planteamos, creemos que nuestra iniciativa es más clara con el trabajo que se hace y hay que dejar claro que la Diputación se mueve y que la política forestal es cambiante y no es igual ahora que hace unos años. La Diputación se mueve, se le pide que se mueva más rápido, pero hay que decir que se mueve.

Continuaré más tarde.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Beitia Zurinaga. Y el representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Arrasti on guztioi.

Nire ustez, 2021eko maiatzean eta 2022ko urtarrilean luze eta zabal berba egin dogu gure mendiak jagoteaz eta Bizkaiko mendien etorkizunaz. Eta bi aldi hareetan, nire taldeak erispide batzuk azaldu ebazan. Lehenengoa zan mendiari buruz erabagiten zan guztia mendiaren jaubeak diran enpresakaz eta familiakaz egindako akordio batetik abiau behar zala. Lehen esan dogun moduan, mendien %75 jaubetza pribadukoak dira, eta bat gatoz erispide horregaz. Hau da, aurretik enpresariakaz, mendien jaubeakaz, mendi asko dabezan baserritarrakaz adostu behar da mendi horreei buruz hartzen dogun edozein erabagi. Izan be, hareekaz akordioak ez lortzeak mendiak bertan behera ixtea ekarri lei, eta baso-suteak egotea ekarri lei, eta Bizkaiko mendiak erabat galtzea ekarri lei, Batzar Nagusi honeetan lortu gura dogunaren guztiz kontrakoa izan daiteke-eta. Jakina, gure ustez, tasak ezartea, mozinoaren zatiren baten aitatzen dan moduan, edo lurren jaubeei dirulaguntzak kentzea, mozinoan be aitatzen dan moduan, ez da guk babesten dogun bidea.

Era berean, ez gatoz bat jaube pribaduak bertako espezieak ezartera behartzeko betebeharragaz. Bai, bide horretara joan daitezan bidea dirulaguntzea da; izan be, luze eta zabal berba egin dogu pinu bat edo eukalipto bat landatzearen eta zugatz autoktono

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

bat landatzearen arteko aldeaz (haretx bat edo pago bat); izan be, horrek 20, 30 urte eta askoz be urte gehiago behar ditu lurraren hornitzaileari errentagarritasun ekonomikoa eragiteko.

Moratoria bat be eskatzen genduan, bere garaian, bai 2021ean eta bai 2022an. Moratoria Aldundiak ezarri eban eta Eusko Jaurlaritzan jorratzen dan Euskal Baso Plana birformulau ahal genduan. Plana 2030ean bukatuko da, hontsuko epe batzuetan.

Autortu behar dogu, eta autortu beharra dago 2021. eta 2022. urteetako lehen eztabaida hareetatik hona asko aurreratu dala, EAJk eta Alderdi Sozialisteak adierazo dabe, asko aurreratu da basogintzearen gaian. Eztabaida ha hona ekarri zan eta aurrera egin da, autortu beharra dago. Aurrera goazanean, horrelan autortu beharra dago. Eukaliptoaren moratoria ezarri zan, eta Aldundiak lurrak erosi dauz. Gitxi izan diran edo asko izan diran, izan geinken beste eztabaida bat da, baina egia da aurrera egiten ari garana, eta Aldundia lurrak erosten ari dana.

Aldundia bertako zugatzak landatzen ari da bere lurretan. Bada, Aldundia egiten ari dan bide onak dira, autortu beharra dago. Orain Mendiei buruzko Foru Arauaren bilakaerearen azken fasean gagoz. Nik uste dot moratoria horretan hori zala kontua, bilakaerea aztertzea eta prozesu horretan izan leitekezan hobekuntzak ikustea.

Dirulaguntzen sistemea aldatu egin da, hori be aitatu da eta erreala da, aldatu egin da eta dirulaguntza hobeak emoten jakez bertoko landaketarako joerea dabenei. Autortu beharra dago, eboluzionau egin da. Ez dala zuk gura dozuna? Izan leiteke, eta gehiago gura dogu. Baina, nire ustez, legegintzaldia amaitzen ari gara, eta Mendiei buruzko Foru Arau hori osotuko dan Diputazino barriari egokituko jako, Batzar Nagusi barriei, gobernetea jagokunoi, batzuk zein beste batzuk izan, Mendiei buruzko Foru Arau hori nondik nora joatea gura dogun erabagitea egokituko jaku-eta. Uste dot mozino hau, ondo banabil, apur bat… Ba, hori, azken legealdian, azken Osoko Bilkuran ez da ezelan be sartuko.

Uste dot hurrengo legegintzaldian, hemen gagozan guztion artean gobernetea toketan jakunok foru-arau bat aurkeztuko dogula, eta hor, agintean ez dagoanak hori hobetzeko zuzenketak egiteko eskubidea eta ahalmena izango dau. Azken baten, gu abstenidu egingo gara, idea ona dalako, ez gatoz bat horren zati handi batega, baina badakizu bat gatozana. Nire ustez, mendiei buruzko eztabaidea sano ona izan da legegintzaldi honetan, eta eztabaidara ekarri dogu, eta hobetu egin da, eta Aldundiak hobetu egin dau. Autortu beharra dago, eta nik uste dot datorren legegintzaldira arte itxarotea geratzen jakula, ea nori jagokun hemen mendien foru-arau bat defendidutea. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. Y pasando al turno de réplica, la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Arriola Alzola, tiene usted la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Bueno, Partido Nacionalista Vasco y PSOE, hicimos unas aportaciones a las enmiendas y su propuesta no dice nada concreto. Dicen en el primer punto: “landaketak aldatzeko prozesua bultzatzen jarraitzea”. Aldaketa-prozesua bultzatzen jarraitu. Si no han transformado nada. ¿Que han comprado 500 hectáreas? Muy bien, y esa es una buena noticia, pero hay 30.000 hectáreas y 21.000 de ellas de monocultivo. Tiene que dar ejemplo; la Diputación tiene que dar ejemplo a los y las particulares, y esto no es obligar a nadie, señor Andrade, hay muchos/as particulares que quieren hacer una transición hacia el ecológico forestal y las subvenciones son insuficientes porque le subvencionan con un 40%. Y en otros

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

casos es el 100%, y justo eso es lo que pedimos, dar oportunidades, y ustedes no han querido. En este caso, solicitábamos un calendario, un número de hectáreas, comprometerse a algo. Nada. Dicen ustedes en el tercer punto: "baso babesleen izaerea zaintzen jarraitzea". Perdón, durante los últimos 15 años no han declarado ni tan siquiera uno, y eso está recogido por escrito en una de nuestras preguntas.

En el cuarto dicen ustedes: "inbersinoetara bideratutako egungo laguntza-lerroa Bizkai osora hedatzea aztertu daitela". Hedatzea aztertzea ez da "hedatzea", es decir, no es una cuestión semántica, no han querido hacer nada, esto es un efecto "greenwashing" y no vamos a entrar en eso. No hemos querido estar en una dinámica dual. Hemos realizado algunas aportaciones a su propuesta y no hemos encontrado una escucha abierta, ni voluntad para el acuerdo. ¿Qué solicitábamos? Es evidente, un planteamiento firme a favor del bosque autóctono en tierras de la Diputación, unos compromisos concretos, que se encaucen correctamente las subvenciones, para promover una actividad forestal nueva y sostenible. Pedíamos que se cumpliera la ley, el Plan 1994-2030 y fortalecer la calidad y la resiliencia de los terrenos, ampliando la medida 15 a toda Bizkaia. Eso era lo que pedíamos. Y ¿qué ha hecho la DFB durante años? Pues nos ha llevado al colapso. Y no se hacen responsables del colapso.

Promovieron el pino y eso tampoco era rentable económicamente, pusieron parches, inyectaron subvenciones, ¿en beneficio de quién? ¿De los y las propietarias, de los y las pequeñas propietarias? No. Porque precisamente a ellos/as les salen las cuentas. En beneficio de las grandes empresas, a quienes compran grandes camiones de leña. ¿Para quiénes gobiernan ustedes? Gobiernan para la industria celulosa. A lo largo de los años, la DFB ha dado paso a un modelo intensivo industrial con una alfombra roja apoyada con dinero público. En el discurso sí, sabemos que en el discurso hablan en nombre del colectivo campesino y de los y las propietarias de montes. En el ámbito territorial sabemos que no es así, que es mentira, pero en realidad sabemos que quieren beneficiar a los y las grandes propietarias y a la industria celulosa, y que en adelante también tienen intención de seguir haciéndolo.

Y un dato, el gerente de la asociación forestal y el administrador de la Sociedad Limitada Basoak ha sido durante años el único asesor de esta S.A.L., y eso también significa algo, a quién escuchan ustedes. No están ustedes dispuestos/as a escuchar a todos/as.

Dicen ustedes "Bizkaia verde", pero cerrada con externalidades con enormes costes ambientales, culturales, patrimoniales y sociales a medio plazo. ¿Y quién debe hacer frente a eso luego? La ciudadanía, quienes vivimos en zonas rurales, la humilde ciudadanía tendrá que hacer frente a todas esas externalidades. Por lo tanto, hay motivos para ser pesimistas, pero me gustaría enviar un mensaje positivo. Incluso los arquitectos medievales no veían terminadas sus catedrales, y hoy en día son patrimonio de nuestro pueblo, y con esto ocurre lo mismo, señor Andrade. EH Bildu ya propuso por escrito al final de la anterior legislatura la revisión de la Norma Foral, y ha pasado otra legislatura entera. Hemos tenido muchos debates, pero no tenemos todavía una norma foral en la mesa. Seguimos haciendo cosas en los pueblos, y EH Bildu seguirá haciéndolo en los pueblos donde gobierne, completando las subvenciones a la silvicultura, a quienes realizan bosques productivos próximos a la naturaleza, como se hace en Ea y Berriatua, así como transformando los bosques del pueblo a la silvicultura ecológica, y representando otra política forestal, en Nabarniz, Bakio, Orduña, Galdakao…, aunque la Diputación Foral no quiera hacer muchos favores y ponga muchas trabas para que nuestros hijos e hijas disfruten de todo ello.

La Diputación Foral ha perdido una oportunidad, porque la Diputación Foral ha tenido la oportunidad y este Gobierno ha tenido la oportunidad de ser guia, de tener un faro a la hora de establecer los criterios de la próxima Norma Foral, pero nosotros/as, en aquellos ayuntamientos donde gobierna EH Bildu, seguiremos teniendo esos pequeños fuegos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

que decía Galeano, esas pequeñas luces que cada vez serán más numerosas, y para que en Bizkaia se dé una verdadera transición, junto con la ciudadanía, con los y las propietarias forestales, cómo no, y con el sector económico, por una futura silvicultura sostenible y ecológica. Sin más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Arriola Alzola. El representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Fernández Medrano, tiene usted la palabra.

El Sr. **FERNÁNDEZ MEDRANO** jaunak: Muchas gracias.

Bihozmina emoten dau siesta orduan parte hartzeak, baina ahalegin bat egingo dogu. Arriola ahaldunak badaki zer bozkatuko dogun. Aldeko botoa emongo dogu, gure zuzenketetatik onartuko dozuen zatia edozein dala be. Baina ez dot gura apreziazino txiki bat egin barik itxi; izan be, atzoko eztabaida osoan, edo orain arteko alkarrizketa osoan zer bozkatuko dan eztabaidatzen egon gara, eta une baten, ordu batzuetan, Foru Gobernua osotzen daben taldeen zuzenketea onartuko zala emoten eban. Eta izugarri poztu naz EH Bilduk onartu ez dauelako, hain zuzen be, lehen aitatu dozu, Mendiei buruzko Foru Arau oso bat proponiduten zan legealdi batetik pasauko zinatekie…, zertara? Onartu zer? Eta orain nik be EAJren eta PSOEren zuzenketearen puntuen maminetara pasauko naz.

Lanean jarraitzearen mantrea alde batera itxita (hori da-eta oposizinoko taldeok zeozer onartzeko erabili behar dogun bidesari sinbolikoa), hori alde batera itxita, hau da, Aldundiak zeozer egiten dauela onartzea alde batera itxita, nik arnasea hartzen dot gehiegi saiatu barik, eta horrek ez dau esan gura borondatez zeozer egiten ari nazanik.

Goiazan lehenengo puntura. Azkenean, Aldundiaren jaubetzako lurretan eukaliptoak dagozala onartu da. Eta azkenean dinot, batzuetan Aldundia alborantza jarten zalako gai hau ateraten zanean, hontsura arte, orain dala gitxira arte. Halanda ze, tira, zuzenketa honen idazketan daborduko agirian itxi dira, ez dago onartu beharrik.

Bigarren puntua. Baso-laguntzei buruzko urteko dekretuaren izen osoa idazketeagaz bakarrik amaierea emon deutsazue paragrafoari. Ez dago ezer puntu horretan. Estutzen banozu, ulertu neike ekoizpen-erabileren koexistentzia eta mendien babesaren koexistentzia beteteko konpromisoa hartzen dozuela. Eta hori da indarrean dagoan Mendiei buruzko Foru Arauaren laugarren artikulua. Oinarrizko helburuak. Ez dago ezer.

Hirugarren puntua, beste horrenbeste. Mendiei buruzko Arauaren zortzigarren artikulua ez urratzea, hortxe esaten da-eta zer dan baso babeslea. Hori dok eta! Legea errespetetea.

Eta, azken puntua, hau baino apur bat korapilatsuagoa dana. Aldundiak konpromisoa hartzen dau Baso Laguntzei buruzko Urteko Dekretuaren puntu zehatz bat aldatuko ete dauen pentsetako. Ba, ez dago-eta ezer pentsetako. Eskatzen dozuena da 15. puntua probintziara hedatzea, eta ez dogu oso ondo ulertzen zergaitik ez dagoan probintzia osora zabalduta, ez guk, ez gizarte zibilak. Inork be ez dau ulertzen zergaitik, baina horrelan da.

Laburbilduz, zer dino EAJren eta PSEren zuzenketeak? Lehenengo eta behin, egiguzue ohore, lanean jarraitu, ez dakit zer…

Hurrengoa, eukaliptoak daukaguz gure mendietan.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hirugarrena, laugarrena. Ez dogu legea urratuko, Jainkoari eskerrak. Eta, itxaron, urteko baso-laguntzen alderdi oso zehatz batekaz zer egiten dogun pentsetako konpromisoa hartzen dogu. Pozten naz EH Bilduk hori ez onartzeaz. Izan be, hori kea baino ez zan, argi eta garbi. Eta nire aurreko berbaldiaren hasieran esan dodana barriro esango dot, legebiltzarreko izapideei jagokenez, hemen ez da Mendiei buruzko Foru Araua aldatuko, ez daigun inor engainau. Ez da prozedura hori modu sinplean eta zabalean emongo. Halanda ze, zer ari gara bozkatzen gaur hemen? Mendiei buruz EH Bilduren azken eskea bozkatzen ari gara, Elkarrekin Bizkaiaren zuzenketa batzuek hobetu dabena. Gure ustez, ibilbide efektibo txikia daukan proposamena da, 10 egunetan eta gainerakoetan desegin egiten garalako, baina balio sinbolikoa dauka. Uste dot mendi biziak eta ondo jagonda dagozan mendiak behar doguzala, eta adierazpen hau erreferentziazko erispidea izan leiteke etorkizunean, hurrengo datozanentzat. Tira, ba ezer ez. Egun txarren kideok, gabon opa deutsuet.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Fernández Medrano. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene usted la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias de nuevo.

Medrano jaunaren esaldiagaz hasiko naz. Ez kezkatu, Medrano jauna, mendi biziak eta ondo jagonda doguz-eta. Biziak, jagonda eta berdeak, eta ondo jagonda. Gauza gehiago egiten jarraitu beharko ginateke.

Gero, eskerrak emon gura neuskioz Andrade jaunari. Askotan ez gagoz ados, baina oraingoan ados gagoz Foru Aldundiak egiten dauena balioan jarri dalako behintzat, nahi-ta hondinokarren gauza asko geratzen diran egiteko, eta horretan be bat gatoz zuokaz, eta horretan ari da Aldundia. Eta gero, futbolagaz paralelismo bat egitea gustauko ltixakit. Izan be, hau partidu antzeko bat izango litzateke: EH Bildu, baita Elkarrekin Bizkaia be, eta bestetik, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak. Zuon eretxiz, ez da ezer egin edo ezer gitxi egin da; eta tira, gure ustez, barriro dinot, egin da, egiten jarraitzen dogu eta egiten jarraituko dogu. Beraz, 1-0.

Eta gero guk, zuek, gure ikuspuntutik, berba asko proponidu dozuez, baina Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak, eta Foru Aldundiko Gobernuak ekintzak egiten dabez, ekintzak. Halanda ze, nik uste dot nire ikuspuntutik futboleko antzekotasuna erabilita, 2-0 izango geunkela.

Lehen esan deutsut, tira, beharbada ez neukala astirik izango diputadu andreak egin zeuntsan itaunean aitatu eutsuzan neurriak gogoratzeko, baina horren susmoa neukanez, domeka honetan laburpen-ariketa txiki bat egin neban, gogorarazoteko ze neurri apliketan dauzan Foru Aldundiak basogintza jasangarria eukiteko. Horretarako aukerea emoten badeustazu, baso-estalgia erabarritzetik hasita, modu eraginkorrean babesten dogu, eta nahitaezkoa da baso-estalgia erabarritzea mozketen ondoren, eta gehienez be bi urtean zugatzak barriro sartzeko beharra ezarten da. Babestu ez ezik, handitu be egin da, Bizkaia osoko azalerearen %60ra heldu arte.

Gero, akuiferoak jagoteari jagokonez, ur-hartuneak, ibaiertzetako landaredia, esaterako, babestuta dagoz baso-espazio autoktonoak babesteko 11/1997 Foru Arauan. Baso-kudeaketa jasangarriaren helburua higadura handiak saihestea eta ur-hartuneak babestea da. 2007. urtea ezkeroztik, erabilera-aldaketak maldea be hartzen dabe kontuan, higadurak saihesteko.

Lurzorua kontserbetako neurriei jagokenez, baso-laguntzen planaren

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

urteko deialdian baldintza lez ezarrita dago baso-kudeaketa jasangarriko plan tekniko bat izatea.

Hostozabal autoktonoakaz egindako baso-barritzek ia %100eko dirulaguntzea jasoten dabe. Kalteak prebeniduteko eta konpontzeko Europar Batasunaren neurriak jasoten dira, hau da, inbersino horreek konpentsau egiten dira. Makineria astunaren erabilerea ezinbesteko lanetara mugatzen da, eta balio handiagoa emoten jake eskuzko lanei. Sektoreko enpresakaz etenbako kontsultan aholkularitzea emoten da, praktika iraunkorrenak sustatzeko. 2018tik hona, Aldundiak SINCERE programan parte hartzen dau. Programa horren helburua zerbitzu ekosistemikoak aztertu, ebaluau eta kuantifiketea da, eta zerbitzu horreen truke ordaintzea. Halanda ze, ikusten dogun moduan, Aldundiak epe labur, ertain eta luzerako plan bat dauka baso-kudeaketa iraunkorra egiteko, eta arlo sozialaren, ingurumenekoaren eta ekonomikoaren arteko orekea ahalbidetzeko.

Eta azkenik, eta amaitzeko, lehenengo barri bat aurreratuko deutsut. Mendiei buruzko Foru Araua, Mendiei buruzko Foru Arauaren zirriborroa, harenbaten apirilaren amaierarako eskuragarri egongo da. Besterik ez, eta eskerrik asko. Eta, beraz, aurka bozkatuko dogu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Ortiz Zaballa. El representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Beitia Zurinaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BEITIA ZURINAGA** jaunak: Sí, buenas tardes de nuevo.

Ahora me centraré un poco en el debate. Se ha dicho anteriormente en el debate de esta moción que el objetivo real es la Diputación Foral, o que este debate de hoy es marcar pasos a la normativa foral que se va a trabajar, y creo que eso está bien y se agradece. Siempre ideas y ponerlas sobre la mesa. Pero no hay que olvidar la presentación de un primer borrador de la propia normativa, espero que sea pronto; y las competencias de esta, como han manifestado desde Podemos que la Diputación está trabajando pero no sabemos con quién, pero la competencia y obligación de presentar ese primer borrador es únicamente de la Diputación, y luego empezaremos a trabajar con ese borrador, porque todos y todas, evidentemente, todos y todas sabemos cuál es el camino que hay que recorrer antes de aprobar cualquier normativa foral.

Zerga hori errenten ituna deritxanaren esparruan sortu da, eta haren helburu nagusiak prezioen igoereak eragiten dauzan ondorio kaltegarrien aurka burrukatzea eta eragin hori ekidadez banatzea dira. Alde horretatik, argi dago inflazinoak ez deuskuna guztioi bardin eragiten. Hain zuzen be, errenta ertainak edo errenta txikiak dabezan etxekoen unidadeak dira egoera horreek gehien jasaten dabezanak, batez be kontuan hartzen badogu soldaten igoerea, jazo bada, kasu gehienetan inflazinoa hazi danaren aldean sano azpitik dagoala. Familien erosteko ahalmenaren galera horri aurre egiteko, beharrezkoa da familiek

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

bizitza duinak izatea babestuko daben eta bermatuko daben politikak abian jartea. Eta ez dogu gure burua engainauko. Neurri horreek martxan jarteak inbersino publiko handia eskatzen dau, eta zerga horri esker, diru-bilketa handiagoa izan geinke politika horreek garatu ahal izateko, hilearen amaierara premina eta neke barik heldu ahal izateko jenteak behar dauzan prestazino, dirulaguntza edo zerbitzuen bidez.

Alkartasun-zergea da, gehien dabenen alkartasun-zergea, gehien behar dabenakazko fortuna handien zergea. Bestalde, gai hori pandemiaren lehen ondorioak gauzatzen hasi ziranetik eskatzen aritu gara Ganbera honetan.

Dakizuen moduan, ondoren, abenduaren 27an egindako Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan, bertan egozan erakundeek, baita Bizkaiko Foru Aldundiak be, zerga hori Euskadin araudi autonomoko zerga itundu lez ezartea erabagi eben.

Horrelan, figura barri hori gure ordenamentu juridikoan txertatu da. Halanda be, joan dan urtarrilaren 25ean, Kontroleko Osoko Bilkuran, gure zerga-araudiaren egokitzapenari buruz galdetu geuntsan diputaduari, Ogasuneko diputaduari, hain zuzen be, eta Ogasuneko diputaduaren aldetik kontraesan batzuk sortu ziran. Kontraesan berberak erakutsi ebezan bai EAJk bai PSEk be legea izapidetu bitartean, eta kontraesan horreek eroan ginduezan Arauz Besteko Proposamen hau aurkeztera.

Bide batez, behin puntu honetara helduta, eta proposamen zehatzagaz hasi orduko, Euskal Herria Bildugaz erdibideko akordio batera heldu garala argitu gura dot, eta akordio hori gaur goizean banatu jatzue, eta hori da gaur hemen eztabaidatu eta bozkatuko doguna; tira, lortu dogun erdibideko akordio hori izango da.

Zer proponidu dogu ekimen honetan? Ba, proponidu doguna da Foru Gobernuak, behin Ekonomia Ituna aldatuta, Aberastasun handientzako alkartasun-zergea arautu eta aplikau dagiala, eta horretarako Legeak ezarritako terminoak gitxieneko erreferentziatzat hartu daizala. Eta txotxolokeria dala esan lei, batez be, foru-diputaduari esaten entzun deutsagunean borondate argia daukala Aldundi honek zerga horren erregularizazinoa Ganbera honetara ekarteko. Baina itxi eidazue esaten; izan be, ez da txotxolokeria, eta esango deutsuet zergaitik. Izan be, bai Foru Gobernuak bai Gobernua osotzen daben taldeek ezadostasun eta kontraesan batzuk erakutsi dabez zerga-figura horri buruz egin dabezan adierazpenetan.

Begira, hanka-puntetan pasau gura izateak kezkatu egiten gaitu, batez be kontuan hartzen badogu Ogasuneko diputaduak egindako iruzkin bat, hau da, alkartasun-zerga hori 2022. eta 2023. urteetarako aplikatea aurreikusten dala. Eta ez gara inozoak izango, ze gaur egungo egoerea eta egin barik dagozan izapideak kontuan hartuta, edonor konturatu daiteke 2022a bukatu dala daborduko, amaitu dala, legegintzaldi hau amaitzear dagoala eta gauza bat dala eta beste bat dala, bada, hori heltzen danean, ba ez dakit, 2023an ez dakit helduko garan.

Eta, hain zuzen be, foru-diputaduak berak gaiagaz zorrotzago berba egin gura dauenean eta ezetz esan, “ez, duda barik, hau hona etorriko da”, eta barriro dino 2022 eta 2023ko ekitaldietara aplikatako ekarriko dala. Halanda ze, uste dot garrantzitsua litzatekela gai hori argitzea, ea 2023tik aurrera aplikatako prest gagozan, eta proposamen horri bere babesa emoteko. Izan be, uste dot horrelan islatuko neukela. Izan be, tira, estaduko legeak ezarten dauenetik harago joan leitekela aurreikusten da, ezta? Diputaduak zerga honen bi helburuetako bat aitatu izanak be kezkatu egin gaitu. Iruarrizaga jaunak Estaduak neurri moduko bat ezarten dauela baino ez eban aitatu, berbaz berba irakurriko dodaz bere berbak: “Estaduak neurri defentsibo moduko bat ezarten dau Ondarearen gaineko Zergearen tributazinoa murrizten edo mugatzen daben autonomia-erkidegoen erabagiak indarbakotzeko”, eta horrek pentsau eragiten deusku, hara, zeozelan, lege honen lehen helburuagaz ez zarala itandua sentiduten,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

hori bigarrena dalako. Helburu horreetako lehenengoak zera dino: “bi dira zerga barri honen helburu nagusiak. Lehenengoa diru-bilketea da, krisi energetiko eta inflazino garai honeetan ahalmen ekonomiko handiagoa dabenei ahalegin handiagoa eskatzeko, hau da, aberastasun handien alkartasunaren erakusgarri”.

Baina berbaldi osoan ez zan horren aitamenik egin. Eta barriro esan gura dot dirua biltzeko neurri bat dala. Geroago esan geinke horri eutsi gura ete deutsagun, uste dogu-eta Ondarearen gaineko Zergea handitzea ona izan leitekela Bizkaiko herritarrentzat. Baina tira, behin-behinekotasun zerga honi jagokonez, tira, diru-bilketarako neurria dana, nire ustez, argi dago. Eta hemen be, Bizkaian, beharrezkoa da, hain zuzen be, desbardintasunak hazten ari diralako, gizarte-bazterketea jasateko arriskuan dagozan personen taldeak be halan egiten dauelako, baina batez be justizia-neurria eta zerga-ekidadekoa dalako.

Eta horretan, Bizkaian egin beharko litzateken zerga-erreformeari buruz gaur izan dogun eztabaidetako bati lotzen natxako. Halanda ze, uste dot gaurko gai-zerrendako laugarren puntuan egin dozuzan lehenengo berbaldiak entzun ondoren, hau da, gehiago daukanak gehiago ordaindu behar dauela esan dozunean, ba espero dot gaurkoan ez dozula arazorik izango mozino hau babesteko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Como se ha manifestado, el grupo Euskal Herria Bildu ha presentado una enmienda. Por lo tanto, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, gracias, señora Presidenta.

Bueno, creo o quiero creer que todas y todos estamos de acuerdo en que el Impuesto Temporal de Solidaridad sobre las Grandes Fortunas debe integrarse en nuestro sistema tributario.

Al menos, creo que así lo manifestó el señor Iruarrizaga en un Pleno anterior y así lo han manifestado, en su nota, PNV y PSE. Luego, que lo cumplan o no, yo espero que sí lo hagan. Pero entiendo que el verdadero debate está en cómo se incorporará. Creo que esa es la cuestión.

La Propuesta No de Norma presentada por Elkarrekin Bizkaia decía así: “Las Juntas Generales de Bizkaia instan al Gobierno Foral a que, una vez modificado el Concierto Económico, apliquen el Impuesto de Solidaridad a las grandes fortunas en los mismos términos que los marcados por la Ley 38/2022, de 27 de diciembre”.

EH Bildu presentó una enmienda y, tal y como ha señalado la juntera Eneritz De Madariaga, hemos consensuado una transaccional que dice lo siguiente: “Las Juntas Generales de Bizkaia instan al Gobierno Foral a que, una vez modificado el Concierto Económico, aplique y regule el Impuesto de Solidaridad para las Grandes Fortunas, tomando como referencia mínima lo establecido en la Ley 38/2022, de 27 de diciembre”.

Es decir, en la transaccional, no se plantea la incorporación de lo aprobado por el Estado. Se plantea la aplicación y regulación del mismo y se determina que la Ley aprobada por el Estado se tomará como referencia de mínimos.

Y para EH Bildu estos cambios son importantes. Son importantes porque la regulación de este impuesto es nuestra competencia (así se ha incluido en el Concierto Económico y así lo aprobamos recientemente aquí, creo que en el anterior Pleno) y, por lo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

tanto, disponemos de competencia reguladora y debemos regular este impuesto.

¿Y cómo regularlo? Entendemos que lo aprobado por el Estado debe ser una referencia mínima. En nuestra opinión, este impuesto es un paso a nivel estatal, pero no es suficiente, y al menos desde EH Bildu tenemos unas propuestas para mejorar ese impuesto. ¿Cuál es la primera? No queremos que sea temporal, sino que debemos plantear este impuesto de solidaridad de forma permanente, y al menos es eso lo que queremos debatir. La Ley dice que dos años. Yo tengo claro que no será 2022, no sé si, quizás, 2023 o 2024. En todo caso, nuestra propuesta será que cuando se traiga aquí y cuando se debata se mantenga de forma permanente.

Y queremos modificar un segundo punto, que nos parece muy importante, que tal vez a veces se pasa o la gente no se da cuenta. EH Bildu ha planteado el tema una y otra vez, y es el Escudo fiscal. La ley dice: "zerga honen kuota osoa, Persona fisikoen Errentearen gaineko Zergearen eta Ondarearen gaineko Zergearen kuotakaz batera, ezin izango da lehenengoaren zerga-oinarrien %60 baino handiagoa izan betebehar personalagaitik zergea ordaindu behar daben subjektu pasiboentzat".

Y ¿qué quiere decir eso? Pues si miramos las memorias de las Haciendas de Bizkaia, el Escudo fiscal se aplica justo a los de más de 3.000, lo que significa que no van a pagar. Entonces, si ese artículo se mantiene así, pues realmente creemos que el impacto va a ser muy escaso. También queremos debatir si hay que superar los 3 millones o tenemos que establecer de otra manera el impuesto de solidaridad. Y ¿por qué lo decimos? Más de 3 millones en Bizkaia tendrá impacto, teniendo en cuenta cómo está el Impuesto de Patrimonio, pero Araba y Gipuzkoa tienen otros tipos en el Impuesto de Patrimonio y solo va a afectar al tramo final. Entonces, supongo que el impuesto que se va a aportar estará armonizado y entonces tendremos que mirar cómo plantearlo, y también queremos debatir la clase de tipos que vamos a establecer, así como cuánto debe ser la cuantía mínima exenta.

Y también creemos que tendremos que analizar qué pasa con el Impuesto de Patrimonio, cómo vamos a hacer compatible este impuesto con el de Patrimonio. Es cierto que por ley se dice que deben ser compatibles, pero habrá que ver cómo. Por lo tanto, tenemos que analizar el contenido de este impuesto. No podemos dar por bueno sin más lo aprobado por el Estado; menos de lo aprobado por el Estado, no, lo tenemos claro. Pero sí más de lo que ha aprobado el Estado. Al menos, esa es la postura de EH Bildu. Y creemos que la transaccional que hemos acordado permite dar cabida a este debate. Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

EAJri, PSOEri, Podemosi eta Bilduri funtsezko zergea iruditzen jaken zerga honen sorrereaz berba egiten hasi geintekez, ezta? Izan be, zerga hori Espainiako Gobernuak onartu eban, gauzak modu maltzurrean egin ohi dauzan moduan. Hau da, bankuen eta energien gaineko zerga bati buruz berba egiteko lege-proposamen bat aurkeztu, eta ezelako lotsa barik sartu eben zerga hori zuzenketa baten bidez. Zer esan gura dau horrek? Ba, handik aurrera akats teknikoak sortu zirala, eta zuek ez zinien gai izan Senaduan zuzentzeko.

Hau da, hasieratik planteauta dago planteauta dagoan moduan. Eta bilketa-helburua ez dan helburu bategaz dago planteauta. Ez da egia. Zerga horren lehenengo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

helburua (edo gura izan dauena, argi eta garbi) izan da Espainiako gainerako autonomia-erkidegoek dabezan zerga-eskumenen eremuan berenberegi sartzea. Ez gu, guri ez deusku-eta eragiten. Baina bai beste erkidego batzuei, esaterako Madrili, Murtziari edo Andaluziari, ondare-zergeari buruzko erabagi propioak hartu ebezan-eta. Eta zuei hori gustetan ez jatzuenez, eta nahi-ta hemen danok defendiduten dogun bakotxak gure eskumenak daukaguzala eta horreek erabiltea gustetan jakula, emoten dau guretzat bai, baina gainerakoentzat, ba, onilaren alde estua darabilgula.

Eta horrek hori guztia esan gura dau. Eta horregaitik jazo da autonomia-erkidegoen finantza-autonomia urratzea, eta, gainera, nire ustez, segurtasun juridikoaren aurkako eraso fulminantea be bada. Horregaitik, autonomia-erkidego batzuk Konstituzino Auzitegira joan dira, eta horregaitik, hain zuzen be, errekursoak izapidetzeko onartuta dagoz. Eta badakigu nor dan ipini dauena, ezagun egiten jaku, Espainiako Gobernuko kide be izan dalako, hau da, Campos jauna. Eta horrelan jardun ohi dozue. Eta orain hona zatorkuze, eta ni bat nator zuokaz; gustauko litxakit. Izan be, bai EAJk bai PSOEk, Podemosek eta Bilduk zerga hori onartu dabenez, hemen zer egingo dogun jakin gura neuke. Izan be, ez deusku inork esaten.

Eta, De Madariaga andrea, bat nator zugaz; egia da EAJ jarrera kontrajarriak izaten ari dana. Eta ez bai ez ez, ezta guztiz kontrakoa be. Izan be, egun baten gauza bat dinoskue eta hurrengo egunean beste bat. Baina, tira, legeak eta zergak horrelan onartzen dabezanen berezko kontraesanak dira. Eta zuek hartutako erabagi hareen artean, orain honako honegaz egin dogu topo. Zergak atzeko atetik sortzen, zerikusirik ez daben arau-zuzenketen bidez, inongo txosten tekniko barik, Estadu Kontsejuaren txosten barik, ezertxo be euki barik. Ezertxo be ez. Baina ohituta gaituzue abilezia horretara, egia esan, Gorte Nagusietako talde guztiek eretxia emoteko eta zuzentzeko eukien eskubidea be murriztuta, ezin dalako zuzenketa bat zuzendu, ondo dakizuen moduan.

Horrenbestez, hontsu, Ignacio Zubiri EHUko katedradunak esan eban politika fiskala baino gehiago, Espainiako Gobernua eta haren lagunak, hau da, zuok guztiok, politika fiskala baino gehiago espasmo fiskalak egiten ari zariela. Eta halan da, erabat ados nago. Hori ondare-zerga bis bat baino ez da, eta ikusiko dogu ze eragin daukan; izan be, barriro dinot, ez dot uste zerga-bilketan eragina izango dauenik. Badinotsut ez dala beteko zuek esan dozuena, izan be, gura izan dozuen eragin bakarra da autonomia erkidegoek ondare-zergan emoten dabezan hobariak, kenkariak eta salbuespenak ezarteko daben autonomia mugatzea.

Tira, jakina, gustauko jat entzutea Euzko Alderdi Jeltzaleari eta Alderdi Sozialisteari esaten, une honetan eurek dira-eta foru-gobernua babesten ari diranak, tira, barriro entzutea ba orain legegintzaldia amaitzear dagoala eta ikusiko dogula. Eta hurrengo egunean Urkullu jaunari entzungo deutsagu beste gauza bat esaten eta hurrengoan kontrakoa. Benetako gauzak, Sancho laguna.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Martínez Fernández. A continuación, el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Arrasti on barriro, Mahaiburu andrea, ahaldun jaun-androk, mahaikideok.

Tira, lehenengo tartetxo txarra igaro ostean, ba, orain ni, benetan, hementxe geratuko nintzateke zortziak, bederatziak arte. Eta, gainera, hau animetan ari da, nahi-ta hasiera-hasieratik izan behar izan dauen horrelan. Izan be, kontua ez da aurreko

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eztabaidek ez dabena garrantzirik izan; aurreko eztabaidek garrantzi handia izan dabe, baina badirudi edozein tributuri eragin ezkero, barreneraino heltzen jakula edo barrua eragiten deuskula. Ba, tira, nik, egia esan…, 2022ko zemendiaren 25ean hasi zan, Kongresuak gehiengoz onartu ebanean Fortuna handien aldi baterako alkartasun-zergea sortzeko Arauz Besteko Proposamena; parkatu, lege-proposamena. Egia, egia. Horregaitik, gauza batzuetan ados egongo gara.

Uste dot, horreetako pare baten izan ezik, funtsean eta forman, gainerako guztian ados egongo garala. Beraz, jakina, horrek hemen hurrengo urratsera eroango gaitu, jakina, geroago, abenduaren 27an Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak egindako akordioaren ostean, joan dan zezeilaren 3an, EAJk, Alderdi Popularrak…, barriro irakurriko dot: EAJk, Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialisteak Kongresuko mahaian aurkeztu eben lege-proiektua preminazko prozedurearen bidez izapidetzea eskatzeko idazkia. Idazki horretan, era berean, lege-proiektua aldatu zan, Euskal Autonomia Erkidegoagazko Ekonomia Ituna be aldatu zalako. Halanda ze, Alderdi Popularra be ez egoan oso urrun, eta pozten naz hor egon izanaz.

Tira, behin horra iritsita, bigarren puntura heltzen gara, eta zera dino: "Ondoren, abenduaren 27an egindako Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan, bertan egozan erakundeek, baita Bizkaiko Foru Aldundiak be, zerga hori ezartea erabagi eben". Ez, ez. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak ez dauka eskumenik ezelako tributurik ezarteko. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak tributuaren loturea balorau eta adostu egiten dau, hau da, Estaduko tributu bat foru-tributuaren aukereagaz lotu, kasu honetan.

Ondo, jarraitu daigun. Zerga hori Bizkaian apliketeari buruz galdetuta, Ogasuneko diputaduak jakinarazo eban, orain dala 15 egun eskas, ozen eta argi adierazo eban zergea apliketako asmoa eukala. Arabere gehiago, Urkaregi andrearen galdereari, eta konfiantzea eskertzen deutsat, horrelan izango da-eta, hain zuzen be, bai Alderdi Sozialisteak, bai Alderdi Sozialisteak jarriko dauen ahalegin guztiak, eta beste edozein alderditara eroan leiken guztiak, zerga hau aplikau egingo dau, aldatu egingo da, eta ahal dan neurrian aplikauko da. Esan gura dot, egin ahal dan neurrian, idea horregaz bat egin gura daben taldeen artean adostu leiteken neurrian. Baina, jakina, ibai horretara iristen garanean zubia izango dogu berbabide. Jakina, gure araudia garatu behar dogu, ni horregaz geratuko naz. Hori bai, ezin gara geratu Estaduak ezarritakoaren azpitik. Oso ondo, horra guztira helduko gara. Berba egin beharko da, eztabaidu egin beharko da, eretxia emon beharko dogu, adostu egin beharko da, ahal bada. Baina, jakina, oraintxe bertan erabat ezinezkoa da, eta badakigu. Guztiz bideratuezina. Ondo, gero gindoazan…

Hurrengo puntuan, parkatu. Zergea Euskadin araudi autonomoan itundutako zerga lez ezarri daitela onartzea edo erabagitea. Tira, tira, badauka nondik ibili. Madrilen dago hondinokarren, Alcalako atean, gitxi gorabehera. Zergaitik? Kongresuan onartu dalako. Senaduan onartu da, baina hemendik aurrera Estaduko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da ekonomia itunaren aldaketea, tributuak jarraitu dagian berori egiteko prozedurea, aurreproiektua, etab., etxe honetan bertan. Baina hori falta da. Tira, une horretatik aurrera egin geinke berba zerga horren inguruan. Niri Ondarearen gaineko Zergea gustetan jatan zerga bat da. Gustetan jat, bai, baina ez dot ordaintzen. Halanda ze, gustau egiten jat. Esango deutsut, ez dot ordaintzen. Ez dot ordaintzen, ez. Izan be, ordaindu egin beharko baneu ordaindu egingo neuke. Hori beste kontu bat da. Ez dot ordaintzen ze…, apur batgaitik. Ondo.

Beraz, nik horri buruz esan gura dodana da, batez be gogoratzen dodalako, 1977. urtetik hona gorabehera asko izan dauzan tributua dala. Izan be, orduan salbuespenez eta aldi baterako indarrean sartu zan, eta ibilbide bat egin eban 2008. urtera arte. 2008an desagertu egin zan (Guadianaren itxurea dauka arean), eta gero barriro agertu zan aldi baterako 2011 eta 2012. urteetarako. Niri beti gustau jat gogorarazotea autonomia-erkidegoak konpentsau egin zirala zerga hori kendu zanean eta, zeozelan, autonomia-erkidego askok

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

daborduko…, eta nik horrelan esango dot, baieztu behar da araubide komuneko autonomia-erkidego horreek birritan jaso dabezala baliabideak Ondarearen gaineko Zerga lez.

Baina, hara, erabat ukatuko dot ahal dodan eta zehatzen, indarrez, ozen eta argi zerga horri jagokonez Alderdi Sozialisteak zalantzea izan dauena, eretxiz aldatu dauena, segundu baten be, segundu bakar baten be. Eta hori dinot, igarle asko eta asko dagozalako, beste alde batetik, haran honeetatik kanpo koipeztu eta sinistuarazo gura dabenak hau galiar herrixka bat dala, edo ugarte edo penintsula moduko bat, edo batek badaki zer, edo ad hoc kontinente bat, sur-puntuan jarten jakuzan arauen arabera gobernau behar dana. Ba, hara, ez. Espainiako Konstituzinotik datorren zilegitasuna eta legezkotasuna dogu, hortik Autonomia Estatutura, Autonomia Estatututik Ekonomia Itunera. Eta une horretatik aurrera ez dogu Konstituzino hori ukatuko, hortik zehar kasuren baten izugarri harrotzen gara-eta Konstituzino horregaz berorregaz. Hortik zehar dinot, hortik urrunetik. Kasu batzuetan, guraizateaz, maitatzeaz, babesteaz sano harro egoten gara.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Parkatu, joan zaitez amaitzen, mesedez.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: … Koitadua zazpi giltzapean eta askotan ondotxo blokeauta daukagunean gehien komenidu jakuzan gauzak galbahetik pasetan dira; baina guk ez, hara. Gu hortik gatoz, bertako zergadunak gara eta hor jarraituko dogu. Oraingoz, besterik ez. Eskerrik asko. Txantxetan esan dot zortziak artekoa.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eskerrik asko. Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. La responsable del grupo Nacionalistas Vascos, señora Pieló Muguruza, tiene usted la palabra.

La Sra. **PIELÓ MUGURUZA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenas tardes a todos/as.

Tira, esan dan moduan, Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu erdibideko akordio batera heldu dira, eta horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen jako, behin Ekonomia Ituna aldatuta, Aberastasun Handien Alkartasun Zergea arautu eta ezarri dagiala, abenduaren 27ko 38/2022 Legeak zehaztatutakoa gitxieneko erreferentziatzat hartuta, bertan onartzen da-eta zerga hori sortzea. Ba, adierazo behar dogu hasierako Arauz Besteko Proposamenean, eta gainera, De Madariaga andreak berbaz berba adierazo dauen moduan, honako hau esaten dala: joan dan abenduaren 27ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak zerga hori Euskadin ezartea erabagi eban.

Horri jagokonez, esan edo gogorarazo gura dogu Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak ez daukala eskumenik inongo tributu-figurarik ezarteko, ezpada ituntzen diran tributuen lotura-puntuak ezarteko baino ez. Bestalde, Estaduaren zerga-sistemea osotzen daben guztiak dira; izan be, lurralde historikoek, euren zerga-araubidea ezartean, Estaduaren zerga-egiturea errespetau behar dabe eta, beraz, kupoaren ondoriozko finantza-orekeak eskatzen dau Estaduan onartzen diran tributu barriak ituntzea, ekonomia-itunaren bigarren xedapen gehigarriak adierazoten dauen moduan.

Beraz, joan dan abenduaren 27ko bileran Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak zergea itundu eban, eta araudi autonomoko tributu lez erabagi. Ondarearen gaineko Zergarako Ekonomia Itunean ezarritako baldintza beretan eskatuko da zerga hori. Horregaitik, Batzar Nagusi honeei zergearen mamina arautzeko gaitasuna autortzen jake, Batzar Nagusiak

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

osotzen dabezan taldeek komenigarritzat joten daben eran. Eta puntu hori sano garrantzitsua da; izan be, gure ustez, Elkarrekin Bizkaiak zergearen erregulazino-ahalmen hori ezabatu egin gura dau aurkeztutako hasierako Arauz Besteko Proposamenaren bidez, Estaduko araudia zehatz apliketea eskatzen dauelako, araudi komuneko zerga bat balitz lez, Ganbera honetan eztabaidea kenduta. Eta EH Bildugaz akordio batera heldu arren, erdibideko zuzenketan honako hau aitatzen da: "zergea arautzea eta apliketea, 38/2022 Legea gitxieneko erreferentziatzat hartuta". Beraz, orain bi taldeek onartu egiten dabe Batzar Nagusi honeek zergearen elementuei buruz erabagiteko daben gaitasuna, berenberegi esaten dabe-eta arautu daitela, baina, bestalde, gaitasun hori mugatu egin gura dabe, zerga hori erreguletako araudi komuna gitxieneko oinarri lez ezarrita.

Bestalde, Elkarrekin Bizkaiak eta EH Bilduk ez dabe kontuan hartu zerga barria Ondarearen gaineko Zergearen osogarria dala, eta Estaduak bardin arautu dauela zerga horren mamina, eta hiru milioi eurotik gorako ondareetarako tarifa-tarte barriak baino ez dauzala sartu. Horrek esan gura dau zerga-oinarria zehazteko modua, ondasunen balorazinoa, ezkutu fiskala deiturikoa eta zerga-kuotea zehazten daben gainerako elementuak bat datozala bi zergetan. Gainera, Elkarrekin Bizkaiaren eta EH Bilduren asmoak ez dabe kontuan hartu indarrean dagoan Ondarearen gaineko Zergea araubide komuneko autonomia-erkidegoei lagatako zergea dala eta horreetako bakotxaren erregulazinoa desbardina dala. Eta zerga barriaren ondorioak be desbardinak izango dira.

Era berean, nabarmendu gura dogu, zerga barria sortzeko errazoien azalpenean adierazoten dan moduan, zerga barriaren helburua dala bermatzea, behintzat ezarriko dan bi urteetan, ondare garrantzitsuak dabezan zergadun guztiek, hau da, hiru milioi eurotik gorakoek, lagundu egingo dabela errenten ituna deritxan horretan, pandemiaren eta prezioen igoerearen ondoriozko egoera ekonomikoaren ondorioak arintzeko beharrezkoa da-eta itun hori.

Horregaitik guztiagaitik, prozedureak bere bideari jarraitu arte itxarongo dogu: Ekonomia Itunaren aldaketea BOEn argitaratu, aldi baterako zerga hori itunduta, aurreproiektua egin, Gobernuak foru-arauaren proiektua onartu eta, azkenik foru-araua onartu Batzar Nagusi honeetan, horreetan ordeztuta dagozan taldeek zehazten daben moduan. Eta aurreratzen deutsuet, argudiatutako errazoi guztiakaitik, gure Euzko Abertzaleak taldeak aurkeztutako erdibideko zuzenketa honen kontra bozkatuko dauela.

Nada más. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Pieló Muguruza. Pasamos al turno de réplica. Para ello, la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Tira, Mahaiburu andrea, muchas gracias.

Gogoan hartu eizu hurrengorako osoko bilkurak ez daitezala asko luzatu; izan be, berbaldi batzuk entzun ondoren, esan leiteke digestinoek faktura gogorrak pasetan deutseezala batzuei.

Hara, Euzko Alderdi Jeltzaleko bozeroaleak esan dau ganbera hau eztabaidatik kendu gura izan dogula. Eztabaidatik, eta gehiagotik? Zer gehiago ukatu gura izan dau Elkarrekin Bizkaia taldeak? Izan be, Gobernu honek gaitasuna dauka oposizino osoari zergak arautzen dabezan foru-arauetan parte hartzeko aukerea kentzeko, oposiziniko taldeok legegintzaldi honetan foru-dekretu guztiei bersino desbardinetan egin ahal izan deutseguzan

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zuzenketa horreek guztiak aurkezteko. Begira, legegintzaldi osoan egin dau. Beraz, saiatu zaitez behintzat atal hori ez aitatzen, baieztapena arean itsusi eta nahiko handi geratzen jatzu-eta. Eta Alderdi Sozialisteari esan behar deutsat barregurea emoten izan deustala; zera dino "ez dogu eretxiz aldatu". Ixten badeustazu, berbaz berba irakurriko dot.

Begira, Sonia Pérez Euskadiko Alderdi Sozialistearen ejekutibako ekonomia arloko arduradunak, ezagun egingo jatzu, zure alderdikoa da-eta, abenduan zera inoan: Euskadik ondare-zerga nahiko altua dauka. Nahiko altua. Eta zuk dinozu egongo litzatekela…, sekulakoa dala daukagun ondare-zergea, baina tira. Eta Fortuna handien Zergea aplikau ez daben edo ezarteari itxi gura deutsien autonomia-erkidegoei zuzenduta dago batez be. Ez da gure kasua. Gure kasua ez dala esaten zenduan. Esan leiteke ez dala beharrezkoa Euskadin ezartea. Gura dozu irakurtea zer esan eban Anduezak handik egun gitxira? Bai? Seguru al zagoz? Hara, esango deutsut, e? Irakurriko deutsut. Tira, kontauko deutsut. Bada, guztiz kontrakoa, hain zuzen be. Andueza jaunak esan eban beharrezkoa zala eta Euzko Alderdi Jeltzalea bultzatu behar zala alkartasun-zerga hori ezartera. Uste dot kontraesan bat dagoala… Argi daukazue zein dan zuen jarrerea? Aplikauko dogu ala ez? Alkartasun-zergea bai, Estaduan bakarrik edo beste autonomia-erkidego batzuentzat? Izan be, hemen, euskal oasian, ez da beharrezkoa hori ezartea, nahikoa daukagulako.

Hara, nik uste dot bi elementu modu maltzurrean nahasten saiatzen ari zariela. Bata, aldi baterako zergea da, eta bestea Ondarearen gaineko Zergea. Bizkaiko Ondarearen gaineko Zergea aldatu egin behar dala uste dot. Bat nator horregaz. Gainera, uste dot bi gauza aldatu behar doguzala. Bat, tipoak, tarteak, eta uste dot daukan mugea kendu behar jakola. Kendu egin behar dala uste dot. Eta, hain zuzen be, legegintzaldi honetan Ondarearen gaineko Zergea erreformetako proposamena aurkeztu dogunean, halantxe egin dogu. Baina uste dot ezin deutsagula geure buruari guzurrik esan. Eta ezin dogu hartu eta hona etorri eta zera esan: "ez, zu bere horretan apliketako esaten ari zara-eta". Hain zuzen be, tira, badakit zuzentzen eta zera dinot, "tira, ba beharbada erreferentzia minimo lez hobeto da, ez daitela izan jente hori (hain fidagarria dana, badakizu, ezta?) etorri daitela eta esan dagiala: ba hori esan dozun ezkero, ba 2022rako eta 2023rako aplikauko dogu eta aldaketea 2024ko urtarrilaren 1ean sinatuko da".

Halanda ze, horregaitik hain zuzen be, zuek tribuna honetan azaltzen dozuena ez dalako sinisgarria, horregaitik aurkeztu dogu proposamen hau. Eta nik uste dot nahiko argiak izaten ari garala. Beharrezko erreformea da, bai, eta garrantzitsua da hona etortea. Eta, jakina, zera dinogu, "ai, autonomia errespetau behar da-eta". Tira, ba errespetau eizue. Hori orain dala bi hilebete egin ahal izan genduan, orduan be eskatzen genduan-eta. Aurrekontuetan eskatu genduan, irailean eskatu genduan Politika Orokorreko azken Osoko Bilkuran. Horreen sano antzeko zergak ezartea eskatu genduan, eta zuon botoa ezezkoa izan zan beti. Beti ezetz. Beraz, mesedez, koherentzia apur bat hemen berba egitera igoten dogunean. Koherentzia apur bat. Izan be, orain arte defendidu dana zera da, "ez, ez, ez, ai, Estaduan daukaguzan kideek martxan jarten dabe, baina hemen horren gainetik gagoz". Orduan, zertan geratuko gara? Dinot, batez be gaur goizean, zerga-erreformeari buruz eztabaidatzen aritu garanean, zuek dozuen zerga-erreformearen ereduaren alegatu bat egiten aritu zarielako, eta, ez dakit, ez dalako koherentea mozino hau onartzeagaz. Pentsau eizue.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Bueno, está claro. Hoy a la mañana hemos debatido acerca de la reforma fiscal y yo he planteado que en materia fiscal no tenemos acuerdo, y es evidente que tampoco en esto

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

estamos de acuerdo; no estamos de acuerdo en que hay que aplicar y no se aprobará la propuesta. La señora Eneritz De Madariaga ha manifestado las contradicciones que ha habido dentro del PSOE en este tema, pero yo quiero hablar de las contradicciones existentes entre los dos partidos que sustentan el gobierno foral en esta Cámara.

Izan be, jakina, Álvarez Castrejón jaunak zera dinosku, tira, hasi da esaten mamina eta formea kenduta, bat gatozala; ba…, daborduko sor eta gor itxi nau. Izan be, ez dakit mamina eta formea kendu ezkero zer geratzen dan. Baina tira, esan deusku aldatu eta ezarri egingo dala. Hau da, Estaduak dinoana eztabaidaezina da.

Eta nik zera dinot: ¿para qué nuestra competencia, si luego copiamos lo del estado? Zure berbak horreek izan dira: kopiau, aldatu eta ezarri egingo da. Hau da, Elkarrekn Bizkaiak hasieran planteetan ebana eta azkenean berba egin ostean aldatzea lortu doguna. Izan be, gure eskumena bada, arautu egin beharko dogu. Guk arautu daitela eta aplikau daitela dinogu. Jakina, beharbada arautu egiten dogu, eta nik dinodan moduan ZKO (Zerga Koordinazinorako Organoa) zulo baltz hori dan ezkero, badakigu zer sartzen dan, baina ez zer ateraten dan, eta beharbada ZKOan bertan geratzen da. Horregaitik da arautzea eta apliketea. Baina gitxieneko erreferentzia Estadua dala jarri dogu, ez dogu-eta uste kopiau behar dogunik; izan be, horretarako ez bada, zertarako gura dogu, estaduko araudikoa izatetik aparte?

Y luego, la señora Pieló. Bueno, tira, Ekonomia Itunaren nahaspila horretaz gain, ezin dauela erabagi, ez dauela ez dakit zer… Bueno, lo tenemos claro. Lo que el Concierto Económico ha decidido es que este impuesto de solidaridad es competencia nuestra. Tenemos la competencia de regular y eso es lo que se ha decidido. Que si ponía en el texto, que si no sé qué, bueno, yo creo que, en fin…, apur bat txikikeriak, baina tira. Ahora, que no le gusta que hay que regular pero tomando como base mínima la del Estado. Entonces, mi pregunta es, ¿qué quieren, regular por debajo de lo que ha aprobado el Estado? ¿Eso es lo que proponen? Porque nosotros/as lo hemos dicho claramente: menos de lo que dice el Estado, no; más de lo que ha establecido el Estado, sí. Y regular es regular, y poner todo en jaque y decidir nosotros/as qué hacemos con esto, qué hacemos con esto, qué hacemos con el Impuesto de Patrimonio, porque es nuestra competencia. Y luego, ¿cuándo se va a realizar? Sabemos que ahora se disolverán estas Juntas Generales.

Baina, tira. Álvarez Castrejón jaunak be esan dauen istorioaren ondoren (emoten eban ez zala onartuko ez dakit noz arte, BOEn argitaratzea falta dala…). Ez dakit, oso lanpetuta dagoz zentsura-mozinoagaz, ez dakit noz argitaratuko daben, baina ez dot uste luze joko dauenik. Baina EAJko andreak zera dino: itxaron egingo dogu. BOEn atera arte itxarongo dogu, BOEn gero zuzendu beharreko akatsen bat egon ez daiten, badakigu-eta zer argitaratuko dan BOEn. Baina ez, itxarongo dogu. Hau da, prisarik ez daukagunez…; izan be, kontua da "ez daukagu prisarik", edo behintzat Euzko Alderdi Jeltzaleak ez dauka prisarik, eta esan leiteke Alderdi Sozialisteak ez dauela asko bultzatzen, eta orduan ez dago prisarik. Argitaratu arte itxarongo dogu, Batzarrak desegin egingo dira. Eta, orduan, ZKOa martxan al dago? Izan be, Aldundia lanean dabil. Baina zertarako hasiko gara, azken baten Batzar Nagusirik ez badagoz, ez? Beraz, tira, gero udea pasetan itxiko dogu, gero Gobernua eratuko da, gero ez dakit nor izentauko da, ZKO barria hasiko da. Eta, tira, 2024ko urtarrila ez. Ez dakit noz eztabaidatuko dan hau.

Eta badakigu zer aplikau behar dan. Badakigu zeintzuk diran eztabaidaguneak. Bada, hasi gaitezan lanean eta prestau daigun foru-arau hori, badakigulako hurrengo Batzar Nagusiek onartuko dabena. Baina egin daigun behintzat lana. Ez daigun itxaron BOEko argitalpena lako gauza formal bat egon arte; badakit beharrezkoa dana, baina, esan dodan moduan, ez dot uste akatsik egongo danik.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Urkaregi Etxepare. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Azkenean, hemen planteetan dana baiezkoa edo ezezkoa baino ez da. Zuek, PSOEK eta EAJk zerga hau onartu dozuenok, hemen aplikauko dozue ala ez? Espero dot hurrengoan ez daizuela gobernau, baina oraintxe bertan balitz, aplikauko zeunkie ala ez? Eta horri erantzuten ez zarie ausartzen, zuek, guk Bizkaian, zerga hau ez apliketako aukerea daukagulako, zuok guztiok Madrilen babestu dozuen arren. Gainerako autonomia-erkidegoek ezin dabe. Hori betetera behartuta dagoz, Konstituzino Auzitegian etetea eskatu dalako, izapidetzeko onartu da, baina ez etetea. Aplikauko dozue ala ez? Ondo erraza da-eta. Ez egiozue horrenbeste buelta emon. Edo zer jazoten da, ezin dala esan? Ezin da esan. Eta orduan hona jasten zarie komediaren klub moduko bat egitera. Horixe egin dozue. Eta niri, egia esan, ez deust barregura handirik emoten.

Eta zuok zera dinoskuzue, hain zuzen be, onartu dala Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketea, gure Ekonomia Itunarena, eta baita kupoaren lege barria be 2022. eta 2026. urteetarako, jakina, Alderdi Popularrak beti egin izan dauen moduan, Castrejón jauna. Eta, hain zuzen be, Diputaduen Kongresuan onartu danaren araberako ahalmen arauemaile bat emon da bertan. Plastikozko ontzien gaineko Zergea, berotegi-efektuko fluordunak, hondakinak zabortegietan ixtea, errausketea, baterako errausketea. Hori be aztertu dogu hemen, Batzar Nagusi honeetan. Horrek ez dauka zerikusirik. Jazoten dana da nik uste dodala zuei bardin deutsuela, hori dozue berbabide eta bardin deutsue 8 zein 80. Benetan. Eta dana "bai ala ez" galderea gainetik kentzeko. Izan be, gainerako autonomia-erkidegoek ez dabelako guk daukagun ahalmena. Aplikauko al dozue ondare bis zerga bat besterik ez dan hau, bai ala ez? Horren erraza da eta horren laburra. Ez da bost minutuko erantzuna emon behar erantzuteko. Bai ala ez?

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Martínez Fernández. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Ondo. Eskerrik asko ostera be, Mahaiburu andrea, mahaikide jaun-androk. Tira, ba bai. Bai, ezarriko dogu. Bai, Alderdi Sozialisteari jagokonez aplikauko dogu, jakina, berak irabaziko dau-eta hurrengo hauteskundeetan. Une horretatik aurrera, Euzko Alderdi Jeltzaleak irakastunak ditu bat egiteko edo pentsau dagian. Baina ez dot uste, ez dot uste, hara, Martínez andrea, ez dot uste. Halanda be, zure galdereari erantzuna. Hurrengo puntua honakoa litzateke: Alderdi Sozialistea konfiantzazko alderdi bat da, Eneritz De Madariaga Martín, konfiantzazko alderdia da. Begira, gustauko litxakit zuek hori egiaztetako aukerea izan daizuela denporearen joan-etorrian. Atzo heldu zinien, seguruenik bihar joan egingo zarie eta ez dakit aukera hori izango dozuen. Baina euki ezkero, gustauko litxakit Alderdi Sozialisteak zelan beteten dauen ikusi daizuela, dagoan tokian dagoala.

Eusko Legebiltzarrean sekulako lana egiten dauen lankide baten bi esaldiei heldu deutsezu, ahal izan dozun moduan. Eretxi bat emon eban, ikusi egin behar zein testuingurutan, ez dakit. Eta Idazkari Nagusiaren esaldiak, hemen aplikauko dot hierarkiaren eta mendekotasunaren printzipioa, baina Idazkari Nagusia zuzen dabilela bere hausnarketan esango dot, hori bai. Hortik aurrera, gainerako guztia denporeagaz ikusiko da. Heltzea gura ez dogun denpora hori. Izan be, Estaduko Aldizkari Ofizialean argitaratzea falta da. Gura badozu, parrokiako orrian argitaratuko dogu eta gauza bera da, baina ez da bardina izango, ondo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

dakizunez, ezta? Beraz, itxaron daigun argitalpen hori heldu arte, bete daiguzan izapideak, ez daigun legezkotasun-printzipiorik urratu, eta, heltzen danean, adostu egingo dogu, adostasunaren bidetik, gainerako taldeek, jakina, deitu beharreko batzorde horreetako eztabaidan eta bozketan parte hartu ahal izan dagien. Bai horixe. Horretarako, hauteskundeak danok irabaziko doguzan ezkero, ba, guztiok batzarkide kopuru oso garrantzitsua izango dogu une horretan indar egin ahal izateko. Baina sinistu eidazue, benetan. Nire berbetan ez egoan ez ezer ez inor mintzeko asmorik, hori baino ez zan falta.

Hortik aurrera, eskertu gura deutsut ulertu dozulako kasuren baten gartsutasun lar erakutsi badogu, ez horrenbeste eztabaida honetan, baina beharbada bai besteren baten. Besterik ez, demokraziaren jai zoriontsuak izan daizuezala eta guztiok irabazi daigula, eta guk gehiago, jakina.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. Y para finalizar con el debate, la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Pieló Muguruza, tiene usted la palabra.

La Sra. **PIELÓ MUGURUZA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Y buenas tardes de nuevo.

Tira, hasi gaitezan. De Madariaga andreak esan dau barregura handia egiten deutsala eztabaidarako aukerea kentze horrek. Ba bai, eztabaidarako aukerea kentzea hasierako Arauz Besteko Proposamenean zeuk edo zure taldeak jarri dauelako. Segundu bat. Hementxe: Foru Gobernuari eskatzen deutsazuela, Bizkaiko Batzar Nagusi honeei, Foru Gobernuari eskatzen deutsazuela (ez dauena hondino Ekonomia Ituna aldatu) Fortuna handientzako Alkartasun Zergea aplikau dagiala, 38/2022 Legeak zehaztatutakoaren modu bardin, bardin, bardin, bardinean. Horrek kopiau eta itsatsi esan gura dau. Halanda ze, hori ez da eztabaidatu behar, zuzen-zuzenean jarrita dago-eta.

Eta gero gauza gehiago. EH Bildu. Urkaregi andreak esan dau, tira, apur bat txikikeriei emoten deutsedala garrantzia. Ba, beharbada bai; ba, beharbada horrelangoa naz. Baina, izan be, ez da gauza bera A zein B, eta zorrotzak izan behar gara Arauz Besteko Proposamenak proponiduterakoan edo zuzenketak proponiduterakoan. Eta ez da gauza bera arauaren interpretazino bat edo beste bat. Eta zertarako itxaron behar deutsagu BOEri? Hara, itxaron egin beharko geunke. Zertarako? Ba legeria beteteko, eta zuk badakizu. Legea bete behar dogu, eta izapide baten lehenago BOEn argitaratu behar da. Baina argitalpen hori ezin da egin Senaduak onartu arte. Senaduak hondinokarren ez dau berretsi Ekonomia Itunaren aldaketa hori, eta, printzipioz, datorren astean izango da, eta onartzen danean, BOEn argitaratuko da gero.

Gero, gauza gehiago. Tira, izan be, Senaduari jagokonez, zelan aplikauko dogu orain zerga barri bat haren arau-esparrua onartuta be ez badaukagu? Zorotzeko modukoa izango zan, ezin izango zalako.

PPri jagokonez, zera dinozue, tira, ea aplikauko dan, bai ala ez? Oraintxe bertan erantzun behar dodala, bai ala ez, edo bai ala ez. Bai, baina legegintzaldia bukatzear dago. Gaur da azken legegintzaldi honetako ohiko Osokoa. Halanda ze, maiatzaren 28ko hauteskundeetatik aterako diran Batzar Nagusietako ordezkariek erabagiko dabe hori. Ez zuk, ez nik, bakarrak munduan. Hau da, aterako diranak izango dira, ordezkari horreek. Eta gainerakoan, ezer bere, bai Elkarrekin Bizkaiari bai EH Bilduri gogorarazotea zerga hori arautzeko gaitasuna Ganbera honek daukala eta hautatuak izango direnek hurrengo legegintzaldian erabagiko dabela.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Eta, ondorioz, lehenengo berbaldian esan dodan moduan, gure Euzko Abertzaleak taldeak aurkeztu dan erdibideko zuzenketearen aurka bozkatuko dau. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Pieló Muguruza. Y una vez finalizado el debate, someteremos a votación la transaccional. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: se han emitido en total 41 votos. Han sido 11 a favor; han sido 30 votos en contra; no ha habido ninguna abstención. Por lo tanto, no se ha aprobado la transaccional.

Y una vez finalizado el Orden del Día, finaliza también esta Sesión Plenaria. Que tengan todos y todas un buen día.

Batzarra amaitu egin da 18:35ean.

Se levanta la sesión 18:35 horas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 1PH5-FUP3-NJM8-4RC7
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus